



estilo  
liburua

## **Estilo liburua**

Elgoibarko Izarra kultur elkarte, Hedabide Saila.

**Lanaren koordinazioa:** Oier Narbaiza.

Elgoibarren, 2010eko martxoan.

BARREnek eskerrak eman nahi dizkie  
Andres Alberdiri eta Jesus Mari Makazagari,  
lan hau egiteko eskaini duten laguntzagatik

1. oinarri nagusiak.....	14
<b>1.1. sarrera</b> .....	15
<b>1.2. helburuak</b> .....	15
<b>1.3. balioak</b> .....	15
√ euskararekiko konpromisoa.....	15
√ autonomia.....	16
√ pluraltasuna.....	16
√ ulergarritasuna.....	16
√ aitzindaritza.....	16
√ zuzentasuna eta informazioa kontrastatzea.....	16
√ herrikoia eta hurbila.....	16
√ parte hartzailea.....	16
√ irekia.....	16
<b>1.4. kontuan hartzekoak</b> .....	16
1.4.1. bereizkeriarik gabeko tratamendua.....	16
1.4.1.1. sexismoa.....	17
√ genero indarkeria.....	17
√ hizkera sexista.....	17
√ askatasun sexuala.....	17
1.4.2. immigrazioa eta gutxiengo etnikoak.....	17
1.4.3. suizidioaren tratamendua.....	18
1.4.4. pertsonen intimitateari errespetua.....	19
1.4.5. errugabetasun presuntzioa.....	19
1.4.6. zuzenketa eskubidea.....	19
1.4.7. irainak.....	20
1.4.8. irudien eta argazkien erabilera.....	20
1.4.9. Lurraldetasuna.....	20
<b>1.5 zabalkunde eremua</b> .....	21
2. aldizkariaren egitura eta izaera.....	22
<b>2.1. edukia</b> .....	23
2.1.1. edukia aztertzeko irizpideak.....	23
√ gaiak eta protagonistak.....	23
√ tratamenduak.....	23
2.1.2. iritzia eta informazioa, bereiztuta.....	23
2.1.3. eskutitzei buruzko araudia.....	23
2.1.4. kexen eta txaloen atalaren inguruko araudia.....	25
<b>2.2. diseinua eta maketazioa</b> .....	25
2.2.1. argazki eta irudien garrantzia.....	25
2.2.2. azala, astekariaren erakusleihoa.....	26
<b>2.3. publizitatea</b> .....	26
2.3.1. publizitatearen helburuak.....	26
√ dirua lortzea.....	26
√ euskarari sarbidea.....	26
√ herriko kartel handiena da.....	26
√ eskelen fenomenoa.....	26
2.3.2. Publizitatearen gaineko irizpideak.....	27
2.3.3. BARREn publizitatea kontratatzeke arauak.....	27

3. idazkuntza .....	28
<b>3.1. hizkuntza</b> .....	29
<b>3.2. euskara batua eta Elgoibarko euskara</b> .....	29
<b>3.3. estiloa</b> .....	30
3.3.1. sarrera .....	30
3.3.2. argi eta zehatz .....	31
3.3.3. labur .....	31
3.3.4. aditz estiloa erabili .....	32
3.3.5. subjektua agertu .....	32
3.3.6. aktiboan, ez pasiboan .....	32
3.3.7. orainaldia, biziagoa .....	33
3.3.8. kazetaria ez da protagonista .....	33
3.3.9. hikako tratamendua elkarriketetan .....	33
3.3.10. testu hasiera, amua .....	33
3.3.11. zaindu erritmoa .....	33
3.3.12. bukaeran biribildu .....	34
3.3.13. inbertsonaltasuna .....	34
3.3.14. <i>aurpegia jarri</i> informazioari .....	34
3.3.15. azaldu eta zehaztu .....	35
3.3.16. erredundantziarik ez .....	35
3.3.17. eufemismoak, inoren esanetan bakarrik erabili .....	35
3.3.18. klixerik ez .....	35
3.3.19. siglak, neurrian .....	36
3.3.20. arrunkeriak, inoren esanetan bakarrik .....	36
3.3.21. hizkera espezializatuak ez dira kazetaritzarako .....	36
3.3.22. aditzak ez errepikatu gehiegi .....	36
3.3.23. alferreko lokailurik ez .....	36
3.3.24. enumerazio eta zerrendetan, egitura bera .....	37
3.3.25. kazetariak ulertu egin behar du zer idazten ari den .....	37
3.3.26. euskaraz pentsatu .....	37
3.3.27. ondo orraztu testua .....	38
<b>3.4. testuaren egitura: paragrafoa</b> .....	38
3.4.1. testua antolatu eta egituratu beharra .....	38
3.4.2. paragrafoa, baliabide grafikoa .....	38
3.4.3. edukia, paragrafoka antolaturik .....	38
3.4.4. paragrafo bat, ideia bat .....	39
3.4.5. paragrafoa eta alferreko lokailuak .....	39
3.4.6. paragrafoa eta tarteko titulua (tartekia) .....	40
<b>3.5. esaldiaren antolamendua</b> .....	40
3.5.1. informazio nagusia aurrean .....	40
3.5.2. aditza ez laga azkenerako .....	40
3.5.3. subjektua eta aditza, elkarrengandik hurbil .....	41
3.5.4 kontuz subjektu segidekin .....	41
3.5.5. aposizioak .....	41
3.5.6. adierazpenak .....	42
3.5.6.1. adierazpenak idazteko moduak .....	42
3.5.6.2. ez nahastu estilo zuzena eta zehar estiloa .....	42
3.5.6.3. adierazpenak neurrian .....	43
3.5.6.4. nork esan duen garbi adierazi, baina ez betegarri .....	43
3.5.6.5. kazetariak gehitutako argibideak, parentesi zuzenen artean .....	44
3.5.6.6. aipuetarako bi marka mota .....	44

3.5.7. kontuz perpaus erlatiboekin .....	44
3.5.8. parentesiak eta marra luzeak .....	45
<b>3.6. puntuazioa</b> .....	45
3.6.1. zertarako erabiltzen den .....	45
3.6.2. tituluak .....	45
3.6.3. puntua .....	46
3.6.3.1. ezaugarri orokorrak .....	46
3.6.3.2. noiz erabiltzen den .....	46
3.6.4. puntu eta koma ; .....	46
3.6.4.1. ezaugarri orokorrak .....	46
3.6.4.2. noiz erabiltzen den .....	47
3.6.5. bi puntuak , .....	47
3.6.5.1. ezaugarri orokorrak .....	47
3.6.5.2. noiz erabiltzen diren .....	48
3.6.6. koma , .....	49
3.6.6.1. ezaugarri orokorrak .....	49
3.6.6.2. noiz erabiltzen den .....	49
3.6.6.3. noiz ez den erabiltzen .....	54
3.6.7. eten puntuak ... .....	55
3.6.7.1 ezaugarri orokorrak .....	55
3.6.7.2 noiz erabiltzen diren .....	55
3.6.8. parentesiak eta marra luzeak .....	56
3.6.8.1. ezaugarri orokorrak .....	56
3.6.8.2. parentesia ( ) .....	56
3.6.8.3. marra luzeak – – .....	57
3.6.9. parentesi zuzenak [ ] .....	57
3.6.10. galdera marka eta harridura marka ? ! .....	57
3.6.11. zehar marra / .....	58
3.6.12. aipu markak “ ” .....	58
3.6.13. aipu marka bakunak ‘ ’ .....	58
3.6.14. hitz elkartuak: aukeran marrarik gabe .....	58
<b>4. ortotipografia</b> .....	60
<b>4.1. kazetaritza estetika eta ortotipografia</b> .....	61
<b>4.2. letra etzana</b> .....	61
4.2.1. zertarako .....	61
4.2.2. etzanez idaztekoak .....	61
4.2.2.1. izenburuak .....	61
√ liburuak... .....	61
√ egunkariak... .....	62
√ ikus-entzunezkoak... .....	62
√ musika lanak .....	62
√ artelanak .....	62
√ erakusketak... .....	62
√ biltzarren letra espezifikoak .....	62
√ leloak .....	62
√ BARREn atalen izenak .....	62
4.2.2.2 goitzenak eta familia izendatzeko baserrien izenak .....	62
4.2.2.3 zenbait izen berezi .....	63
√ ibilgailuen izenak .....	63
√ birus informatikoak .....	63

√ interneteko helbideak eta e-posta .....	63
√ animaliei jarritako izen bereziak .....	63
√ animalien eta landareen latinezko izen zientifikoa .....	63
√ natur fenomenoei jarritako izen bereziak .....	63
√ objektuei jarritako izen bereziak .....	63
√ auziak, eskandaluak eta operazio militarrik .....	63
√ lege, plan eta batzordeak .....	63
4.2.2.4. metahizkuntza eta matematikak .....	63
√ metahizkuntza .....	63
√ formula matematikoetako testu atalak .....	64
4.2.2.5. beste hizkuntzetakoak .....	64
√ euskarak bere egin gabeko gabeko maileguak .....	64
√ beste hizkuntzetan idatziriko esaldiak .....	64
√ ironiaz idatziriko hitzak .....	64
√ hitzaren betiko esanahia aldaturik idatzitakoa .....	64
4.2.2.6. nola deklinatu .....	64
4.2.2.7. tituluak eta beste informazio elementu bereziak .....	65
<b>4.3. letra larria, xehea eta maiuskula txikia</b> .....	65
4.3.1. zertarako letra larria .....	65
4.3.2. letra larria, tokiaren arabera .....	65
√ testu hasieran eta paragrafo hasieran .....	65
√ puntuaren ostean .....	65
√ galdera eta harridura marken eta hiru puntuen ondoren .....	65
√ bi puntuen ostean, sailkapen, kronologia edo taula modukoetan .....	65
√ bi puntuen ostean, aipu marken barruko adierazpena badator .....	65
4.3.3. letra larria, izen nagusiak markatzeko .....	66
4.3.3.1. pertsona izenak, egiazkoak zein alegiazkoak .....	66
√ pertsona baten izenak eta gaitzizenak .....	66
√ santuen izenetan eta erlijiosoen izenetan .....	66
√ jainko-jainkosak, mitologia eta alegiazko heroi eta pertsonaiak .....	66
4.3.3.2. animaliak .....	66
4.3.3.3. lekuak .....	66
4.3.3.4. argizagiak .....	67
4.3.3.5. erakundeak eta taldeak .....	67
4.3.3.6. ekitaldiak .....	67
4.3.3.7. izenburuak .....	68
√ argitalpen, dokumentu eta artelanen izenak .....	68
√ ingelesezko izenburuetan .....	68
√ liburu bildumak .....	68
√ erakusketa, berbaldi, tailer, mintegi eta mahai-inguruak .....	68
√ biltzar eta jardunaldien izen deskriptiboak .....	68
4.3.3.8. agiriak .....	68
√ hitzarmenak, agiriak, planak, egitasmoak .....	68
√ legeak .....	68
4.3.3.9. historia .....	69
4.3.3.10. ikasgai, ikastaro eta ikasketak .....	69
4.3.3.11. markak eta modeloak .....	69
4.3.4. letra xehea (minuskula) .....	69
√ herritar izenak .....	69
√ puntu kardinalak .....	70
√ karguak .....	70

√ noblezia tituluak .....	70
√ familia, leinu eta dinastien izenak .....	70
√ herrietako jaiak .....	70
√ otoitzak .....	70
√ arte, ideologia eta kultur mugimenduak .....	70
√ musika notak .....	70
√ zientzia arloak eta diziplina akademikoak .....	70
√ hezkuntza zikloen izen generikoa .....	70
√ mahats motak .....	70
√ koktelak eta antzeko edariak .....	70
√ hiriei-eta ematen zaizkien izendapenak, generiko-deskriptiboak direnean .....	70
4.3.5 maiuskula txikia .....	70
4.3.6. letra lodia .....	70
4.3.7. kapitularra .....	71
<b>4.4 zenbakiak</b> .....	71
4.4.1 zenbakiak nola idatzi .....	71
4.4.2 egunak, urteak, hamarkadak, mendeak, kronologiak .....	71
4.4.2.1. egunak .....	71
4.4.2.2. urteak .....	71
4.4.2.3. data osorik .....	71
4.4.2.4. ikasturteak, kiroleko denboraldiak eta beste .....	72
4.4.2.5. hamarkadak .....	72
4.4.2.6. mendeak .....	72
4.4.2.7. kronologiak .....	72
4.4.3. orduak .....	72
√ osorik zifraz idatzi behar dira, bestela osorik letraz .....	72
√ orduak zelan deklinatu .....	72
4.4.4. kiroleko emaitzak, denborak eta markak .....	73
4.4.5 ehunekoak .....	73
4.4.6. zifraz idaztekoak .....	73
√ hogeita batetik gorako zenbakiak .....	73
√ hamarrenak dituztenak .....	73
√ tauletan zerrendatzen diren zenbakiak .....	73
√ adina .....	74
√ helbideak .....	74
√ kale izena data bat bada .....	74
√ posta kodea, punturik gabe .....	74
√ errepide zenbakiak .....	74
√ ibilgailuen zilindroak .....	74
√ errezetetako kopuruak .....	74
√ magnitudeak .....	74
√ serieak osatzen dituzten zenbakiak .....	74
√ telefonoak eta faxak .....	74
√ izen berezietako zenbakiak eta ibilgailuen matrikulak .....	74
√ legeen izenak eta atalak; epaitegien zenbakiak eta salak .....	74
4.4.7. letraz idaztekoak .....	74
√ batetik hogeira artekoak .....	74
√ ehun, mila .....	74
√ esapideetakoak .....	75
√ zatikiak .....	75
√ kiroleko maila .....	75



4.4.8. zifrak nola eman .....	75
√ hamarrenak .....	75
√ milakoa, milioikoak eta hortik gorakoak adierazteko .....	75
√ balio tartea edo gutxi gorabeherakoak .....	75
4.4.9. lerro bukaeran ezin dira bereizi .....	75
√ zifra bakarra osatzen dutenak .....	75
√ zifra eta dagokion sinboloa .....	75
√ marratxoaz loturiko zenbaki multzoak .....	76
√ ahal dela, telefono zenbaki osoak lerro berean .....	76
4.4.10. zenbaki errromatarrak .....	76
√ mendeak eta milurtekoak .....	76
√ errege-erreginen, aita santuen, enperadoreen eta kirolarien izenak .....	76
√ urteurrenak, jaialdiak, biltzarrak, jardunaldiak, olinpiar jokoak, txapelketak... ..	76
4.4.11. tituluak eta esaldi hasierak .....	76
4.4.12. dirua eta balioa .....	76
4.4.13. erdia, erdiak .....	76
4.4.14. ordinalak .....	77
√ puntuarekin idazten dira .....	77
√ mendeak eta milurtekoak, zenbaki erromatarrez .....	77
√ jaialdiak, biltzarrak, sariketak, urteurrenak eta historiako gertakaria .....	77
√ Gainerako kasuak .....	77
4.4.15. banatzaileak .....	77
4.4.16. kopuru zehaztugabeak .....	77
<b>4.5. izen bereziak nola deklinatu</b> .....	78
4.5.1. pertsona eta leku izenak .....	78
4.5.2. taldeen izenak .....	78
√ absolutiboan daudenak .....	78
√ bestelakoak .....	78
4.5.3 letra etzanez idaztekoak (izenburuak, gaitzizenak) .....	78
<b>4.6. lerroak</b> .....	78
4.6.1. lerro bukaerak .....	78
4.6.2. tituluetak lerro banaketa .....	79
<b>4.7. tituluak egiteko arauak</b> .....	79
4.7.1. berbarik ez errepikatu .....	79
4.7.2. koma gutxirekin .....	79
4.7.3. tituluetan nola eman <i>gaur</i> , <i>bihar</i> eta <i>atzo</i> kontzeptuak .....	79
<b>4.8. enumerazioetako ordena</b> .....	80
<b>4.9. laburtzapenak</b> .....	80
4.9.1. laburdurak .....	80
4.9.2. siglak eta akronimoak .....	81
4.9.2.1. zer diren .....	81
- Siglak .....	81
- Akronimoak .....	81
4.9.2.2. nola idatzi .....	81
4.9.2.3. nola deklinatu .....	81
4.9.2.4. zer esan nahi duten .....	82
4.9.2.5. letra arruntez beti .....	82
4.9.2.6. lerro bukaeran nola eman .....	82
4.9.2.7. zenbakia loturik .....	82
4.9.2.8. letraz erantsitakoa, lotuta eta minuskulaz .....	82
4.9.2.9 tituluetan, kontuz .....	82

4.9.3. sinboloak .....	83
4.9.3.1. zer diren eta nola idatzi .....	83
4.9.3.2. noiz erabili .....	83
5. onomastika .....	84
<b>5.1. pertsona izenak</b> .....	85
5.1.1. izen-abizenak .....	85
5.1.2. gaitzizenak .....	85
5.1.3. pertsonaia historikoak, garaikideak eta fikziozkoak .....	86
<b>5.2. erakundeak, bankuak, elkarteak, alderdiak, sindikatuak eta GKEak</b> .....	86
<b>5.3. enpresak</b> .....	86
<b>5.4. talde artistikoak</b> .....	86
<b>5.5. siglak eta akronimoak</b> .....	86
<b>5.6. mahai inguruak eta berbaldiak</b> .....	86
<b>5.7. kirol probak</b> .....	87
<b>5.8. zientzia, teknika, literatura eta zinema lanak</b> .....	87
<b>5.9. musika lanak</b> .....	87
<b>5.10. arte plastikoetako lanak</b> .....	87
<b>5.11. sariak</b> .....	87
<b>5.12. produktuen izenak</b> .....	87
<b>5.13. atzerriko hiri eta herrietako toponimia</b> .....	87
<b>5.14. kirol taldeak</b> .....	88
<b>5.15. Elgoibarko leku izenak</b> .....	88
6. kontuan hartzekoak .....	90
<b>6.1 zenbait hitzen erabilera okerra edo desegokia</b> .....	91
6.1.1 itzulpenetako akatsak .....	91
√ baldintza .....	91
√ <i>bere aldetik</i> .....	91
√ <i>berriz</i> .....	91
√ <i>desberdin</i> .....	91
6.1.2. plural okerrak .....	91
6.1.3. <i>bera / berdin</i> .....	91
6.1.4. <i>maila</i> .....	92
6.1.5. <i>gaurkoan / atzokoan</i> .....	92
6.1.6. <i>bezala</i> .....	92
6.1.7. <i>ere / baita ere</i> .....	92
6.1.8. <i>pena merezi</i> .....	93
6.1.9. <i>atera / irten</i> .....	93
6.1.10. <i>Hau / hori</i> .....	93
<b>6.2. hitz erabiliegiak</b> .....	94
6.2.1. aditz erabiliegiak .....	94
6.2.2. <i>bat</i> .....	94
6.2.3. <i>beranduago</i> .....	94
<b>6.3. deklinabidea</b> .....	94
6.3.1. <i>Kultur Etxetik esan dute</i> .....	94
6.3.2. <i>bi tantogatik</i> .....	95
<b>6.4. bestelakoak</b> .....	95
6.4.1. <i>delarik</i> .....	95
6.4.2. alferreko egiturak .....	95

7. Internet .....	96
<b>7.1. sarrera</b> .....	97
<b>7.2. sarean lan egitea ezberdina da</b> .....	97
<b>7.3. Interneteko hizkuntza</b> .....	98
7.3.1. sarrera .....	98
7.3.2. Interneteko hizkuntzaren ezaugarriak .....	98
√ berezitua .....	98
√ informala .....	98
√ motza .....	99
√ zuzenekoa .....	99
√ xumea .....	99
√ zehatza .....	99
√ elkarreragilea edo interaktiboa .....	99
√ pertsuasiboa .....	99
√ eduki sortzailea .....	99
√ argia .....	99
√ doia .....	99
√ originala .....	99
√ askotarikoa .....	100
√ erakargarria .....	100
√ erritmikoa .....	100
√ koloretsua .....	100
7.3.3 Interneten nola idatzi .....	100
7.3.3.1. izenburua .....	100
7.3.3.2. sarrera .....	100
7.3.3.3. ondorioak sarreran idatzi .....	101
7.3.3.4. idatzi zehatz .....	101
7.3.3.5. testua antolatu .....	101
7.3.3.6. hizkuntza objektiboa .....	101
7.3.3.7. loturak .....	101
7.3.3.8. erlazionatutako loturak.....	102
7.3.3.9. bertakotu albiste guztiak.....	102
7.3.3.10. argazkiak.....	102
7.3.3.11. aprobeixatu berehalakotasuna .....	102
7.3.3.12. gonbidatu irakurlea .....	102
7.3.3.13. idatzi errespetuz .....	103
7.3.3.14. irakurleen iritzi eta irizpideen inguruko arauak .....	103
7.3.3.15. zertaz idatzi .....	103
7.3.3.16. idatzi euskaraz .....	104
7.3.3.17. Stephen Kingen urrezko arauak .....	104
8 Elgoibarko hizkeran idazteko arauak .....	106
<b>8.1 noiz idatzi Elgoibarko hizkeran</b> .....	107
<b>8.2 irizpideak BARREnerako</b> .....	107
<b>8.3 h</b> .....	107
<b>8.4 z / s</b> .....	107
<b>8.5 tz / ts</b> .....	107
<b>8.6. bustidurak: iñ, ill, itt, indd, ildd</b> .....	107
<b>8.7 bokal arteko g</b> .....	108
<b>8.8 bokal arteko d eta r</b> .....	108

<b>8.9 hitz elkarketak</b> .....	108
<b>8.10 berba amaierak</b> .....	108
<b>8.11 erdaratik hartutako berbak</b> .....	108
<b>8.12 erdaratik hartutako aditzak</b> .....	109
<b>8.13 deklinabidearen inguruan</b> .....	109
<b>8.14 -dade</b> .....	109
<b>8.15 eta</b> .....	109
<b>8.16 ezker</b> .....	109
<b>8.17 erdaraz r- batekin hasi eta geureganatu ditugun berbak</b> .....	109
<b>8.18 erakusleak eta azentua</b> .....	109
<b>8.19 aditza</b> .....	110
9 eranskina: Elgoibarko aditza (J.M. Makazagaren tesitik hartua).....	112
10 eranskina: Elgoibarko hiztegia (J.M. Makazagaren tesitik hartua).....	132
11 Bibliografia	



1

oinarri nagusiak

### 1.1. sarrera

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak argitaratzen ditu BARREN astekaria eta *elgoiBARREN.net* ataria. Hori dela eta, proiektuko langileek oinarri nagusien berri izatea ezinbestekoa dute, lana modu egokian egin ahal izateko.

### 1.2. helburuak

Honako hauek dira Elgoibarko Izarra elkarteko Hedabide Sailaren helburu nagusiak:

√ Elgoibartarron arteko giza harremanak sustatzea. Komunitate moduan trinkotzea.

√ Herriko informazioa sustatzea. Herriko informazioa sustatzea. Elgoibartarrok gure herriaren berri izatea, ezagutzen ez dena ezin baita estimatu.

√ Herriko mugimendu sozio-kulturalen erakus-leiho izatea.

√ Herriko publizitatearen eragile izatea.

√ Herriko informazioa euskaraz jasotzeko aukera izatea. Euskal prentsa prestigiatzea. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna eta ohiturak bultzatzea.

Horiek dira elgoiBARREN astekariari jarritako helbururik garrantzitsuenak. Baina

BARREN asko aldatu da; eta BARREN ez ezik, Elgoibarko gizartea ere bestelakoa da 1992koarekin alderatuta. Beraz, beharbada, BARRENen helburuak berriz aztertu behar ditugu.

### 1.3. balioak

Horrelako proiektu batek, helburuak ez ezik, balioak edo ezaugarriak ere izan behar ditu. Proiektua nolabait definitzen duten balioak eta ezaugarriak, hain zuzen ere.

√ **Euskararekiko konpromisoa:** Euskara dago proiektu honen erdigunean. Gure lan esparru guztietan euskaraz jardungo dugu, eta hizkuntza zaindu eta egokia erabiltzeko ahalegina egingo dugu. Gainera, herritarren artean euskarazko gaitasuna, sentiberatasuna eta erabilera areagotzeko konpromisoa daukagu, eta euskal kultura ere sustatu nahi dugu. Elgoibarko hizkera sustatu eta ezagutarazteko helburua ere badu BARRENek.

√ **Autonomia:** BARREN astekaria hedabide autonomoa da. Elgoibarko Izarrarena da, eta hark erabakitzen du proiektu honen izaera eta norabidea. Horrek ez du esan nahi beharriak eta begiak itxita izan behar ditugunik; gu ere Elgoibarko gizarteko parte gara, eta gizarteak esaten eta pentsatzen duenari irekita egon behar dugu.

√ **Pluraltasuna:** pentsamolde eta iritzi guztiek dute lekua. Gizalegez eta errespetuz ematen diren iritzi eta jarrera guztiek izango dute lekua gurean. Hori bai, *Kontutan hartze-koak* atalean aipatuko dugun moduan, BARRENen ezin da edozer eta edozein modutara esan edo idatzi.

√ **Ulergarritasuna:** Sintaxi ulergarri eta komunikatiboaren aldeko apustua egin beharko du BARRENek. Euskaldun berriek zein adineko pertsona alfabetatu gabeek erraz irakurtzeko moduko produktua izan behar du astekariak. Diseinuak ulergarritasun printzipioari lagundu beharko dio.

√ **Aitzindaritzza:** Herriko edo gertuko komunikazioari eta euskararen normalizazioari bide berriak zabaltzeko ekin genion 1992an, eta, aurrerantzean ere, gertuko informazioari eta komunikazioari atak zabaltzen segitu nahi dugu.

√ **Zuzentasuna eta informazioa kontrastatzea:** Bai eguneroko jardunean eta bai informazioaren tratamenduan ere. Esku artean daukagun erremintaren garrantziaz jabetu behar dugu, eta ematen dugun informazioa zuzena dela egiaztatu behar dugu.

√ **Herrikoia eta hurbila:** Herritik hurbil egon nahi dugu. Herriko informazioa kudeatzeaz gain, herrian txertatuta egon nahi dugu. Herritarrek eta irakurleek herriko parte sentitu

behar gaituzte; eurengandik hurbil gaudela ikusi behar dute. Hurbiltasun hori lortzen lagunduko digu, besteak beste, hizkuntza eredu hurbileko batek (nahiz euskara batuan aritu, hiztegia eta egiturak izan daitezke hurbilekoak).

√ **Parte-hartzailea:** BARREN ez du lantaldeak bakarrik egin behar. BARRENeko orriak herriak ere bete behar ditu. Bestalde, BARRENeko protagonistak herritarrak dira. Herria da albistea, eta herritarrak dira albiste horietako protagonistak.

√ **Irekia:** BARRENeko atek, telefonoak, e-postak eta lantaldeak irekita egon behar dute. Edozein sartzeko moduan; edozeinek deitzeko edo idazteko moduan. Herritarrek espazio irekia sumatu behar dute; etxean bezala sentitu behar dute BARRENera joan, deitu edo idazten dutenean. Hori bai, hemen ere badago aurrera egin edo atzera geratzeko marra: errespetua.

## 1.4. kontuan hartzekoak

### 1.4.1. bereizkeriarik gabeko tratamendua

BARRENek ikuspegi integratzailea du, eta ez du onartzen edozein motatako diskriminazioa bultzatzen duen jokabiderik: sexuan oinarritua, etnial, erlijioan, kulturean, sexu aukeraketan, ideia politikoetan eta abarretan.



#### 1.4.1.1. sexismoa

Emakume zein gizoni tratu simetrikoa emango die BARRENEk. Emakumeen presentzia indartzeko ahalegina egingo du, eta orekari eutsiko dio iritzi emaileengana jotzeko orduan, elkarrizketatuak aukeratzeko orduan, gaiak aukeratzeko orduan...

√ **Genero indarkeria:** Halako gertaerak deskribatzeko orduan, pertsonen duintasuna errespetatuko da eta sentzazionalismoa baztertuko. Ezin izango da maitasun gehiegikeriaren edo erotasunaren ondorio dela azaldu.

Errugabetasun printzipioa erabiliz argitaratuko da albistea, arrasto garbiak daudenean ere (salaketa, ageriko gertaerak, agiriak...), eta, ustezko erasotzailearen izena adierazteko, inisialak erabiliko dira. Emakumea identifikatzeko ere, teknika bera erabiliko dugu, hark hala eskatzen badu.

√ **Hizkera sexista:** BARRENEko hedabideetan ez da hizkera sexistarik onartuko.

*Gizon* hitza *gizonezko* adierazteko erabiliko da. Bi sexueta pertsonak izendatzeko, berriz, *pertsona*, *jende*, *herritar*, *lagun* (pluralean bakarrik) edo *gizaki* erabiliko dira.

Tradiziorik gabeko berbetan, ez da erabiliko *-sa* atzizkia. Esaterako *alkate* edo *aktore* idatziko dugu, eta ez *alkatesa* edo *aktorea*.

Honako hitz elkartu hauek erabiliko dira: *seme-alabak*, *maisua-maistrak*, *errege-erreginak*, *anai-arrebak*, *andre-gizonak*..., eta ez *semeak*, *maisua*, *erregeak*..., kolektiboari buruz ari garenean.

Familia loturen alferreko aipamenik ez dugu egingo. Albistea osatzeko datu ezinbestekoa edo garrantzitsua bada bakarrik aipatuko dugu senidetasuna edo harreman pertsonala. Edozein modutan ere, izen-abizenak adieraziz identifikatuko dira beti pertsonak, eta sekula ez familia lotura hutsekin; txarto erabilita: Alfredo Etxeberria alkatea eta emazte Deñe Zabalo dantza ikuskizuna ikustera joan ziren.

√ **Askatasun sexuala:** Sexualitatearen eta maitasun harremanen aniztasuna aintzat hartuko da, ikuspegi heterosexistatik gabe. Gay, lesbiana eta transexualek ez dute talde homogeneorik osatzen. Hortaz, baztertu egin behar dira estereotipoak eta topikoak.

Ez da hizkera homofobikorik, lesbofobikorik edo transfobikorik onartuko. Oro har aritzeko, *gay* eta *lesbianak* idatziko dira, eta ez homosexualak. Izan ere, *homosexualak* berba bakarrik erabiltzeak *ikusez*in egiten ditu lesbianak.

#### 1.4.2. immigrazioa eta gutxiengo etnikoak

Protagonisten etnia, erlijioa, jatorria eta kultura ez dira aipatuko informazioetan, albistea ulertzeko ezinbestekoa ez bada.

Etorkinek ez dute talde homogeneorik osatzen. Beraz, estereotipoak eta topikoak saihestu beharra dago. Esate baterako, ezin da identifikatu jatorri, etnia edo erlijio jakin bat jarrera fundamentalistekin, delituekin edo gizarte arazoekin.

Immigrazio gaietan ere ezinbestekoa da informazio iturrien aniztasuna bermatzea. Etorkinek, albisteko protagonista ez ezik, informazio iturri ere izan behar dute.

Informazioaren alderdi grafikoa (argazkiak, irudiak eta abar) zaindu egin behar da, ideien artean nahi gabeko lotura inpliziturik ez sortzeko.

Hizkera xenofoborik ez da onartuko.

### 1.4.3. suizidioaren tratamendua

Suizidioak eskatzen du, heriotza guztien artean, sentiberatasun handiena. Kontu handiarekin jokatu behar da eta senitartekoen sentimenduak zaindu behar dira bereziki.

Suizidioak, berez, ez dira albiste, pertsona ezagunak ez badira edo, arrazoiren bat tarteko, suizidioak jendartearen oihartzun handi edo berezirik ez badu izan.

Suizidioa albiste bihurtzen bada, BARREN gertaera tentuz azaltzen ahaleginduko da,,

sentsazionalismoa albo batera lagata, zoritxarreko istripuztat joz, harik eta epai judizial batek edo polizia txosten batek baieztatu arte, behinik behin. Honelako formulak erabiliko dira: Ezbehar bat gertatu da, leihotik behera jausi da...

Kontuan izan behar da, gainera, suizidioek beste pertsona batzuegan duten eragina.

Oso pertsona ezagunak diren kasuetan edo interes publikoarentzako garrantzi handiko albistea bada, orduan suizidioa izan dela azalduko da, horrela izan dela kontrastatu eta konfirmatu ondoren; baina orduan ere sentsazionalismoak albo batera lagata.

Bereziki alde grafikoa zainduko da. Argazki edo irudiak erabili ahal izango dira, baina lehen planoak baztertu egingo dira, albisteari balio erantsia edo informazioari indar handiagoa emateko balio duten kasuetan izan ezik. Adin txikikoak tartean daudenean, ez da haien irudirik ez eta argazkirik erabiliko.

Pertsona oso ezagunak ez direnean, inizialak erabiliko dira beti.

Adin txikikoak ez dira inoiz identifikatuko suizidio kontuetan.

#### 1.4.4. pertsonen intimitateari errespetua

Pertsonen intimitatea errespetatu egin behar da, eta haien bizitza pribatuan muturra sartzea baztertu.

Gertaeren gaineko albisteetan (istripuak, bortxaketak...), inplikatuaren inizialak bakarrik erabiliko dira. Ez dira izen-deiturak erabiliko. Salbuespena izango da tartean pertsona publikoak, kargu politikodunak-eta badaude.

Gertaeretan adin txikikoak ez dira identifikatuko ez izen-abizenek, ez eta argazki edo irudien bidez ere. Gehienez ere, beharrezkoa bada bakarrik, inizialak erabiliko dira.

Akusatu edo konbiktuen familia anonimotasunean gordeko da, bai eta lekukoenak (haien aurka ezer egin ez dezaten) eta bortxaketak edo tratu txarrak jaso dituztenenak ere.

Tratu txarren eta abusuen ustezko egileak ez dira identifikatuko: akusatua identifikatzeak biktima bera identifikatzea ekar lezake (emaztea, alaba...).

#### 1.4.5. errugabetasun presuntzioa

Pertsonen eskubide nagusietako bat da errugabetasun presuntzioa, eta pertsona guztiei

zor zaie, harik eta auzitegi batek epaia eman arte. *Ustezko, susmagarri* eta halakoak erabiliko dira atxilotuen-eta kasuan. Gauza bera, sumario batean inplikaturik daudenei buruz aritzean ere: *akusatu, prozesatu* eta halakoak erabiliko ditugu. Pertsona bat erruduna edo errugabea dela frogatu eta epaitu ez bada, kontu handiz jokatu behar da, haren aurkako jazarpen moralik ez sortzeko.

#### 1.4.6. zuzenketa eskubidea

BARRENen albistean bat txarto eman bada edo albistean protagonista batek uste badu informazio okerra edo ez osoa edo zehaztasunik gabea eman dela, astekariak aukera emango dio albistea zuzentzeko.

BARRENek izan behar du errakuntzak onartzen eta haien jarraipena egiten lehen interesatua.

Akatsa egin eta ondorengo alean egingo da zuzenketa, ahalik eta azkarren, eskutitzen atalean.

Albiste bat zuzentzeko edota norbaitek esandakoak zuzendu edo erantzuteko eskubidea dute irakurleek. Horregatik, aukera hori eskainiko da gutunetan orrian.

#### 1.4.7. irainak

BARRENeK ez du onartuko elkarrizketatuen edota lekukoen irainik edo beste batzueganako errespeturik gabeko adierazpenik bere orrietan. Halakorik gertatuko balitz, BARRENeK eskubidea izango luke elkarrizketa ez argitaratzeko edo pasarte hori ezabatzeko.

#### 1.4.8. irudien eta argazkien erabilera

Argazkiak eta irudiak informazio elementuak dira eta helburu horrekin erabiliko dira. Testua bezain garrantzitsuak direnez, albistea osatzerakoan, garrantzi bera emango diegu.

Informatzeko helbururik ez duen argazki edo irudirik ez da erabiliko BARRENeN.

Istripu, atentatu edo hondamendiren bat irudizatzeko, ez da lehen-lehen planoko irudi edo argazkirik erabiliko: ez da beharrezkoa odola eta sufrimendua gertutik ikustea tragediaren neurriaz jabetzeko.

Istripu, atentatu eta hondamendietako irudi edo argazki desatseginak argitara eman aurretik, erabakia ondo aztertu beharko da, eta kontuan izan beharko da, batetik, argazki edo irudion balio informatiboa eta, bestetik,

familiartekoei edo kaltetuei eragin diezaieketen kaltea edo mina.

Gertaeretan, mehatxatuta senti daitezkeen pertsonen eta adin txikikoen argazkiak haiek ez ezagutzeko moduan argitaratzeko ahalegina egingo da.

Artxiboko argazki edo irudietan pertsonak agertzen badira, kontu handiarekin jokatu behar da: baliteke pertsona horietakoren bat hilda egotea eta haren familiari mingarria gertatzea irudi edo argazkiok argitara ematea.

#### 1.4.9. Lurraldetasuna

*Euskal Herria* erabiliko du BARRENeK euskaldunen nazio-izena izendatzeko. Zazpi herrialdez osatutako eremua da: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa.

Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osatutako antolamendu administratiboa Euskal Autonomia Erkidegoa da.

Norbaitek *Euskal Herria*, *Euskadi* edo *Pais Vasco* aipatzen badu, beharbada ez du Euskal Herri osoa adierazten. Kazetariak zehar-estiloan idaztean, zehaztu egingo du zertaz ari den (EAE, Hegoaldea, Euskal Herria...). Estilo zuzenean, berriz, ezin da interpreta-

ziorik egin eta terminoak bere horretan laga behar dira.

Estatua ez da herri, *pais* edo lurraldearen sinonimoa. Espainia eta Frantzia aipatzeko, beraz, *Espainia* eta *Frantzia* erabiliko dira eta ez *Espainiako estatua* edo *Frantziako estatua*.

### **1.5. zabalkunde eremua**

Elgoibarko udalerria da, batez ere, BARREN astekariaren eremua. Hala ere, BARREN astekaria beste hamaika lurraldetara ere iristen da. Alerik gehienak Elgoibarrren banatzen badira ere, Mendaron ere ehunka ale banatzen ditugu astero-astero (Mendaroko udalarekin hitzarmen berezia daukagu sinatuta, herri horretako informazioari leku berezia eskaintzeko). Gainera, Euskal Herriko hainbat txokotara ez ezik, Espainiara, Europara eta munduko beste hamaika lurraldetara ere iristen da BARREN. Beraz, Elgoibarrerako egiten dugu lana, batez ere, baina munduan zehar sakabanatuta dauden ehunka etxe eta txokotara ere iristen da gure lanaren oihartzuna.



aldizkariaren egitura eta izaera

BARREN astekariari hiru zutabek eusten diote: edukiak, diseinuak eta publizitateak.

## 2.1. edukia

Beharbada, edukia da BARRENi eusten dion hankarik garrantzitsuen. BARREN ez da “gainetik begiratzeko”. BARREN jendeak irakurtzeko egiten dugu; herritarrok gure herriaren berri izateko. Baina, horretarako, jendearen interesekoa izan behar du. Ondorioz, edukia ondo aukeratu eta landu behar dugu. Gure helburua ez da astero BARREN argitaratzea; gure lana astero BARREN interresgarri bat plazaratzea da.

### 2.1.1. edukia aztertzeko irizpideak

√ **Gaiak eta protagonistak:** Gizartegintzari eta herrigintzari lotuta dauden kolore eta jite guztietako gaiak dute lekua gure astekarian. Elgoibarko gaiak eta elgoibartarroi eragiten diguten gaiak (Elgoibarkoa izan edo ez) izango dute lekua BARRENe. Bestalde, BARRENe protagonistak elgoibartarrak izango dira (honek ez du esan nahi kanpoko-ei lekurik egingo ez diegunik).

√ **Tratamendua:** Gaiak lantzeko orduan, hura edozein izanda ere, originaltasunari eta sorkuntzari egin behar diegu tokia. Gaien tratamendu berritzaileak lantzen saiatu behar

dugu. Gaiak landu egin behar ditugu, irtenbide errazak alde batera lagata.

### 2.1.2. iritzia eta informazioa, bereiztuta

Informazioak eta iritziak bereiztuta joan beharko dute. Atal jakin batzuk iritzirako izango dira (*Gutunak, Semaforoa, Nire txanda...*) eta aldizkariak ez du bere gain hartuko han esandakoen ardura. Hala ere, BARRENe ez du onartuko gutun iraingarriak (ikus 2.1.3. atala, gutunei buruzkoa).

Albisteetan norbaiten iritzia jasotzean, norik esan duen agertu egin behar da.

Albisteetan, kazetariak ez du bere iritzia emango eta ahalik eta neutraltasun handienaz idatzi beharko du.

Albiste edo erreportaje bat osatzeko iritzi artikuluren bat eskatuz gero, testu nagusitik bereiztuta eta sinatuta emango da argitara.

### 2.1.3 eskutitzei buruzko araudia

BARRENe edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek betetzea ezinbestekoa izango da:

1.- Eskutitz guztiek identifikatuta egon behar dute: izen-deiturak, telefono zenbakia

eta NAN zenbakia erredakzioari helaraztea derrigorrezkoa da.

2.- Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edo izen-deiturekin argitaratuko dira. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da. Ez dira *koadrila bat*, *gazte bat* edo *irakasle bat* bezalako formulak onartuko. Gaitzizenarekin ere ezin izango dira gutunak sinatu. Alabaina, onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: *Ikastolako irakasleak* edo *Urliaren lagunak*. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk daudenean, horiek ere identifikatuta egon beharko dute.

3.- Gutun batean pertsonaren bat edo erakunderen bat salatzen denean, gutun jabearen izen-abizenek bere osotasunean azaldu beharko dute.

4.- Pertsona eta erakundeek gutun egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute, gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada, eta gutuna inzialekin sinatuta badago.

5.- Eskutitzen luzerari dagokionez, 1.500 karaktere artekoek izango dute lehentasuna (hutsuneak barne). Hortik gorakorik balego, (2.100 karakteretik gorakorik ez da onartuko) lekua dagoenean bakarrik argitaratuko genuke.

6.- Eskutitzak erredakziora iristen diren

ordenan argitaratuko dira. Halere, gutunetako gaien gaurkotasunaren mesedetan, ordena aldatzeko aukera izango da. Lekurik ez dagoen kasuetan, gaurkotasunak izango du lehentasuna.

7.- BARRENeke gutunetan ez dira onartuko:

- Biraoak

- Gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak.

- Buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko prestaturiko idazkiak.

- Pertsona eta erakunde konkretuen kontrako mehatxuak.

-...

8.- Gaztelaniaz datozen eskutitzak erredakzioan itzuli aurretik, egileari euskaraz ahalegintzeko eskatuko dio BARRENeke.

9.- Eskutizetan datozen akatsak (ortografiakoak, gramatikalak...) erredakzioak zuzendu egingo ditu. Halaber, izenbururik gabe iristen diren eskutitzei, izenburua jarriko die.

10.- Arautegian jasota ez dagoen kasuren bat gertatuko balitz, BARRENeke zuzendari-tzak izango luke erabakia hartzeko ardura eta erantzukizuna.



#### 2.1.4. kexen eta txaloen atalaren inguruko araudia

- Atal horrek egileen anonimotasuna gordeko du.
- Kritika eta aipamen pertsonalak ez dira onartuko kexen atalean. Atal horretan ezin izango da kritikatu norbanakorik, familiarik edo etxe partikularrik. Bizitza pribatuari lotutako kexek ere ez dute lekurik izango.
- Herriko talde, elkarte eta erakundeen kontra egindako kexak onartu egingo dira, baina betiere arautegi honetan zehazten diren irizpideak errespetatu beharko dira.
- Ez da biraorik edo tonu iraingarrian idatzitako kexarik onartuko.
- Bigarren zentzu batekin bidalitako txaloak ere ez ditugu onartuko (txalo formatuan bidalitako kexak, alegia, ez dira onartuko).
- BARRENeko *Eskutitzak* sailean argitaratutako gutun baten gaineko kexa edo erantzunik ez da onartuko atal honetan.
- Ahal den kasu guztietan, BARREN kexak egiaztatzen ahaleginduko da.
- Honako gai hauek ez dute lekurik izango kexen atalean: tratu txarrek, bortxaketek, jipoiek, lapurreta partikularrek, bizilagunen

arteko arazoek... Gai horien gaineko kexa, iritzi eta bestelakoek *Eskutitzak* sailean joan beharko dute.

- Atal horretako testuek ezin izango dute 650 karaktere baino gehiago izan.

BARRENeko zuzendaritzak du arautegi hau interpretatzeko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko ahalmena. Beharra ikusten den kasuetan, elkarteko zuzendaritzei eska dakieke laguntza, aholkua edo iritzia.

## 2.2. diseinua eta maketazioa

BARRENek erakargarria izan behar du. Alferrik egingo ditugu testu erakargarriak, horiek txukun eskaintzen asmatzen ez badugu. Beraz, diseinua eta maketazioa ere oso oso garrantzitsuak dira.

### 2.2.1. argazki eta irudien garrantzia

Informazioa eskaintzen dutelako eta erakargarriak direlako aukeratzen dira.

Argazkiak ez dira orrialdearen betegarri. Ez dira orrialdea dekoratzeko. Balio informatiboa dute.

Informazioak alde grafikoa eta idatzizkoa dituela jakin behar du kazetariak. Informa-

zioa lantzerakoan, ondo pentsatu behar du alde grafikoa ere nola landu: zertarako erabili argazkia, zelako argazkia erabili, non atera...

Albisteetan, gaurkotasuna duten argazkiek izango dute lehentasuna.

Informazio bat ilustratzeko gaurkotasun-argazkirik ez badaukagu ez eta artxiboko argazki egokirik, errekurtsio argazkiak erabil daitezke. Erabiltzen badira, oso zorrotza izan beharra dago aukeratzekoan, baita argazki oina idazterakoan ere, irakurlea ez nahasteko.

### 2.2.2. azala, astekariaren erakusleihoa

Azala astekariaren aurkezpen txartela denez, hango irudiek eta testuek indar berezia izan behar dute. Era berean, azalak erakargarria izan behar du, aldizkaria zabaltzeko gogoia piztu behar dio irakurleari.

Eduki guztien artean, nabarmenena edo gure iritiz garrantzitsuena joango da azalean. Hala ere, alde estetikoari ere erreparatuko dio BARRENEk: gai mamitsua izan arren, grafikoki pobrea bada, beste azal erakargarriago bati heldu beharko dio, ahalik eta mamitsuena, betiere.

Azalari behar duen garrantzia eman behar

du lan taldeak. Azken orduan irudirik txukunena aukeratzen jardun beharrean, alde aurretik erabaki behar du zer-nolako azala argitaratuko duen, eta horretarako zer lan, aukera eta baliabide dauden aztertu.

## 2.3. publizitatea

### 2.3.1. publizitatearen helburuak

√ **Dirua lortzea:** Horixe da helbururik garrantzitsuena. Astekari bat argitaratzea garestia da, eta, ahal dugun neurrian, diru propioak lortu nahi ditugu proiektua finantzatzeko. Proiektuak daukan aurrekontuari aurre egiteko, ezinbestekoa dugu publizitate-arekin asmatzea.

√ **Euskarari sarbidea:** BARRENEk aurretik ez geunden ohituta publizitatea euskaraz ikustera. BARRENEk hori ere ekarri dio herri honi.

√ **Herriko kartel handiena da:** Inolako harrokeriarik gabe esan behar dugu BARREN dela herriko “kartelik” edo erakusleihorik herrikoiena eta ikusiena.

√ **Eskelen fenomenoak:** Aitzindari izan ginen eskelei tokia egiten, eta bete-betean asmatu genuen. Eskelekin betetzen dugun funtzio soziala oso garrantzitsua da.

### 2.3.2. publizitatearen gaineko irizpideak

Informazio edukiak eta publizitatea ez dira inoiz nahastuko. Horretarako, tipografia eta diseinuaren baliabideak erabiliko dira. Informazioerako erabiltzen den diseinuaren eta tipografiaren antzekoak erabiltzen badira iragarki batean, *publizitatea* edo *publierreportajea* hitza nabarmenduta agertu beharko da.

Euskara akastunez edo era desegokian datorren publizitatearen kasuan, BARRENEk bezeroaren esku jarriko ditu bere baliabideak, eta iragarkia euskara jatorrean argitara dezan gomendatuko dio iragarleari. Hala ere, BARRENEk gomendioak jaso ondoren iragarleak bere horretan jarraituko balu, hark esandako moduan argitaratuko litzateke iragarkia, iragarlea bera da-eta azken erantzulea.

Publizitaterako gordetako tarreak ezin izango dira erabili BARRENEk agertutako informazioak ezeztatzeko edo zehazteko. Horretarako badaude beste toki edo modu batzuk: gutunak eta zuzenketak.

Euskarak izan beharko du publizitate-enkarteretako hizkuntza nagusia. BARRENEk ez du onartuko euskararen presentzia % 60 baino txikiagoa den enkarterik.

### 2.3.3. BARRENEk publizitatea kontratatze arauak

BARRENEk bere gain hartzen ditu iragarkiak kaleratzeko eskubidea eta arazoan ondorioz atzeratzeko eskubidea.

Iragarkiren bat argitaratzeko aste bi lehenago eskatu behar da. Astebete lehenago ere hartuko dira iragarkiak, lekua egonez gero behintzat, baina lehenago ibiltzen denak izango du lehentasuna. Iragarkien originalek, bezeroak egindakoak diren heinean behintzat, BARRENEk eskuetan egon behar dute argitaratu baino astebete lehenago. Hau da, ostiralean argitara ematen denez, aurreko ostiralean egon behar du iragarkiak erredakzioan.

Iragarkia kendu nahi baldin bada, agindua idatziz eta iragarkia argitaratu behar zena baino astebete lehenago (hau da, ostirala) abisatu behar da. Epez kanpoko ezabaketarik ez da onartuko.

Iragarkiren batek, BARRENEk erruz gaizki argitaratu delako edo, eraginkortasunik galduko balu, hurrengo atal batean behar bezala eta doan argitaratuko luke BARRENEk.

Aurreko baldintzak beteko ez balira, BARRENEk bere gain hartuko luke iragarkia argitaratzearen ala ez argitaratzearen erabakia.

3  
idazkuntza

### 3.1. hizkuntza

Euskara da BARRENen hizkuntza. Horrekin batera, denon kultur altxorra ere bada euskara, eta, horregatik, BARRENen zereginetako bat hizkuntzaren erabilera egokia sustatzea da, esamoldeak eta ereduak zabaltzeko bideak jartzen dituen neurrian.

Testuak zuzen erabiltzea da BARRENeko kazetarien lana.

Zuzentasun morfosintaktikoa eta semantikoa, biak hartuko dira aintzat, itxura eta edukia; gramatikalki ondo idazteaz gain, hitz egokiak erabiltzea.

Kazetariak bere hitzek duten oihartzunaz jabetu behar du. Mezuak irakurleengan dituen ondorioen erantzulea da kazetaria.

Kazetaria da idazten duenaren arduraduna eta berari dagokio, idatzitakoa behin eta berriz irakurrita, testua garbi ulertzen dela egiaztatzea eta ortografia akatsik ez dagoela ziurtatzea. Ortografia akatsak zuzentzea ez da euskara zuzentzailearen eginkizuna, kazetariarena baizik.

Gutunak eta kolaboratzaileen artikulu iruzkinak zuzendu eta moldatu egingo dira, huts ortografiko eta gramatikal agerikoenak batez ere.

### 3.2. euskara batua eta Elgoibarko euskara

Euskara batuan idazten da BARRENen, oro har, baina Elgoibarko hizkeran erabiltzen diren berba, esamolde eta egitura sintaktiko-ei lehentasuna emango diegu. Kontuan izan behar da, batez ere irakurleetako asko alfabetatu gabeak direla, eta hizkuntza erraztu egin behar diegu, gerturatu. Era berean, BARRENen arduradunak izango da bertako ezauzgarri lexiko eta sintaktiko berezietan eustea, geure altxorra baitira.

⇒ Martitzen; barren; laga eta horrelakoak idatziko ditugu.

Euskara batuan ari garela ere, hurbileko hiztegi hautaketa egingo dugu, bi edo hiru aukera dauden kasuetan.

Euskaltzaindiaren irizpideei jarraituz idatziko da BARRENen, baina irizpideok ez dira % 100ean beteko komunikazioaren kalterako bada: *adjudikatu*, *labadora* eta *depuradora* idatziko dugu (*esleitu*, *ikusgailu* eta *araztegi* beharrean), jende gehienak uler dezan. Hala ere, BARRENen helburu eta zeregina izango da hizkuntza landuagoa pixkanaka erabiltzen joatea ere, euskara normalizatzen den heinean (sinonimoak, beste forma batzuk erabiliz...).

Kolaboratzaileek Elgoibarko hizkeran idatzi ahal izango dute. Kasu horietarako, irizpide

batzuk zehaztu ditu BARRENEk, Deba Arroko Badihardugu elkarteak jarritako irizpideei jarraituz. Erredakzioaren zeregina izango da testuok irizpide horien arabera moldatzea.

Era berean, BARRENEk atal batzuk Elghoibarko hizkeran idaztea noizbait erabakiko balu, irizpide horiek jarraituko lituzke.

### **3.3. estiloa**

#### **3.3.1 sarrera**

Irakurleengana iristeko helburua du BARRENEk. Hori lortzeko, ezinbestekoa da idazkera erakargarria lantzea: zuzen eta egoki ez ezik, bizi eta bizigarri ere idatzi behar da.

Irakurleen komunikazio premiak asetzeko, ezinbestekoa da forma eta edukia ondo ezkontzea, azala eta mamia ondo etortzea. Edukia ez ezik, forma ere zaindu beharra dauka BARRENEko kazetariak, eraginkor jokatu eta irakurlea bereganatuko badu: estiloa landu egin behar du, irakurleak errazago irakur dezan; idazkera gozatu egin behar du, irakurtzea gozagarria izan dadin.

Kazetaritzako testuen estiloa berezia da, eta beste idazki mota guztietatik berezia, baina, era berean, askotarikoa ere bada: idazlearen arabera, generoaren arabera, komunikabidearen arabera.

#### **3.3.2. argi eta zehatz**

Testu argi eta zehatzak idatzi behar dira, lehen irakurraldian ulertzeko modukoak. Argitasuna eta zehaztasuna ezinbestekoak dira antolamenduan, joskeran eta hiztegian; azken batean, testuen alderdi guztietan. Kontuan izan behar da beti BARREN aste-kariko irakurleak era guztietakoak direla: euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak, alfabetatuak eta alfabetatu gabeak, gazteak eta zaharrak, lizentziatuak eta ikasketarik egin ez dutenak. Guztientzat izan behar du ulertteraza. Esapide eta hitz ezagunak idatzi behar dira, irakurlea beti gogoan. Pedantekeriek eta arkaismoek mezua iluntzen dute. Aldiz, Elgoibarko berba eta esapideak erabiliz, hein handi batean gerturatu egingo dugu mezua.

Idazteari ekin aurretik, ondo pentsatu behar da. Antolamendu nahasiek indarrrik gabe lagatzen dute albistea eta ulermena eragotzen dute. Gainera, bihurrikeria sintaktikoek eta itzulinguruek ez dute idazkera aberastuko. Gogoratu: anbiguotasunak eta alferreko itzuliak albo batera laga.

### 3.3.3. labur

Kazetariak labur idatzi behar du. Paragrafoak, esaldiak eta aditzak ondo antolatu. Paragrafo bakoitzean ideia nagusi bat landu ohi da, horrek argitasuna ematen diolako testuaren hariari. Ondo antolatutako testuan, kazetariak eskutik eramango du irakurlea, paragrafo batetik bestera, informazioa eman ahala.

Esaldietan, neurrian erabili behar dira menpeko esaldiak, batez ere alferrikako erlatiboak. Esaldiok luzeak izanez gero, haria galduko du irakurleak.

Puntuz berezitako bi esaldi ulerterraz egitea hobe da, luze ulergaitz bakar bat baino.

⇒ Elgoibarko eta aukeratutako gainerako herrietako eraikin publikoetan eguzki energia lortzeko panelak kokatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak hasiko duen proiektuaren bidez herritarrek plaken instalazioan inbertitu eta produkzio elektrikitik urtero bideratzen diren dibidenduak errentagarri bihurtu ahal izango dituzte.

⇒ Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektua hasiko du eguzki energia lortzeko Elgoibarko eta aukeratutako gainerako herrietako eraikin publikoetan. Horren bidez, herritarrek plaken instalazioan inbertitu ahal izango dute. Gainera, produkzio elektrikitik urtero bideratzen diren dibidenduak errentagarri bihurtzeko aukera izango dute.

Hitzak ere egokiagoak izan ohi dira laburrak: konkretuagoak, naturalagoak eta bizitzari lotuagoak; azken batean, komunikaziorako egokiagoak. Ez erabili, esaterako, hauek: antzekotasun, problematika. Erabili antz, arazo.

### 3.3.4 aditz estiloa erabili

Estiloaren alderdi garrantzitsu batek lotura estua du nagusiki izenak edo nagusiki aditzak erabiltzeko joerarekin, eta, alde horretatik, bi estilo mota bereizi ohi dira: izen estiloa eta aditz estiloa.

Izen estiloan, aditzak izenekin (edo izen sintagmekin) ordezkatu ohi dira. Esate baterako:

⇒ Autodeterminazio eskubidearen **onarpena** da gatazka konpontzeko bidea. [izen estiloa]

⇒ Autodeterminazio eskubidea **onartzea** da gatazka konpontzeko bidea. [aditz estiloa]

⇒ Aurrekontuek **murrizketa** jasango dute aurren. [izen estiloa]

⇒ Aurrekontuak **murriztu** egingo dira aurren. [aditz estiloa]

⇒ Gazteen egoeraren azterketa burutzen ari dira. [izen estiloa]

⇒ Gazteen egoera aztertzen ari dira. [aditz estiloa]

⇒ Umeen artean, euskararen erabilpenak gora egin du.

[izen estiloa]

⇒ Umeek euskara gero eta gehiago erabiltzen dute.

[aditz estiloa]

Aditz estiloa dinamikoagoa da, adierazkorragoa eta euskal estiloari lotuagoa. Laburrago idazteko aukera ematen du. Konkretoagoa da, eta agentea esplizitatu egiten du. Horrez gain, naturalagoa da izen estiloa baino.

Kazetaritzako testuetarako egokiagoa da aditz estiloa.

### 3.3.5. subjektua agertu

Sarritan, ekintza nork egin duen zehaztu gabe lagatzen dugu.

⇒ Pilota partidak antolatu dira umeentzat.

Ahalegindu gaitezen informazio osotua ematen:

⇒ Pilar ikastetxeak pilota partidak antolatu ditu umeentzat.

### 3.3.6. aktiboan, ez pasiboan

Kazetaritzan, ekintzak, gertaerak eta esanak izaten dira berrien oinarriak: norbaitek egiten ditu. Berriak kontatzean, esaldiek argi

erakutsi behar dute nork zer egin duen, eta, horretarako, egitura aktiboak lagungarriak zaizkio kazetaritzari, adierazkorragoak eta biziagoak baitira. Aktiboa erabiliz gero, albis-teak indar handiagoa izango du.

Pasiboak, aldiz, moteldu egiten du idazkera. Geldoagoak izateaz gain, egitura pasiboek ezkutatu egiten dute agentea edo egilea eta hori ez zaio komeni kazetariari: *zer* ez ezik, *nor(k)* ere adierazi behar du, argi eta garbi. Gainera, *izan* aditzez betetzen da testua egitura pasiboak erabiliz gero, eta era zeharkakoagoan ematen du informazioa.

⇒ Hamar lagun identifikatuak izan ziren Elgoibarren.

[desegokia]

⇒ Guardia Zibilak hamar lagun identifikatu zituen Elgoibarren. [egokia]

### 3.3.7. orainaldia, biziagoa

Orainaldia gertukoagoa denez, biziagoa da lehenaldia baino. Batez ere tituluetan erabiltzea komeni da. Kronika biziagoak egiteko aukera ematen du orainaldian idatzitako kontakizunak.

Euskaraz ez dago orainaldi historikorik. Kronologietan lehenaldia erabiltzen da, eta beste hizkuntzetako orainaldi historikoa euskaratzean, lehenaldian eman behar da.



### 3.3.8. kazetaria ez da protagonista

Albisteetan kazetariak ez du agertu behar. BARRENeko kazetariak ez du lehen pertsona erabiliko: alkateak esan digu. Sarri, gainera, ez da beharrezkoa alkateak BARREni esan dio... formula erabiltzea, berez ulertzen delako.

Kazetariaren lana iturrietara jotzea da. Zurrumurruak zurrumurru dira, ez albiste. Iturri batera jo eta berba egin nahi ez badu, zera idatz dezakegu:

⇒ Lerun Txikin bizi diren gazteekin harremanetan jarri da BARREN, baina ez dute berba egin nahi izan.

Jakina, erreportaje eta kronika berezietan, erabil daiteke lehen pertsona.

### 3.3.9. hikako tratamendua elkarrizketetan

Elkarrizketatuak hika erantzuten badu, bere horretan lagako dugu. Kazetaria, dena den, zuka ariko zaio, ez bada lagunarteko elkarrizketa informala behintzat.

### 3.3.10. testu hasiera, amua

Testu hasiera ondo zaintzea komeni da. Izan ere, testu hasiera da irakurlea erakartzeko amua. Ulerterraza ez ezik, erakargarria ere izan behar du, bai edozein

albiste informatibotan, bai erreportajeetan.

Albisteetan sarrerak landu eta aberastu beharra dago. Beraz, irakurlearen jakin-mina pizteko amuak jarri behar dira, hasiera-hasieratik: esaldi labur indartsu bat, ideia harrigarri bat, paradoxa bat... Baliabide mordoa dago hori lortzeko, eta kazetariak sormena erabili behar du egokiena aurkitzeko.

Baliabide guztiak, baina, neurrian erabili behar dira; bestela, indarra galtzen dute. Kontuz ibili behar da topikoekin: esaera eta atsotitzak, esaterako, bere horretan lagata, orokorregiak gerta daitezke, eta originaltasunik gabeak, testu baten hasierako amua izateko.

Albiste hasteko beste baliabide bat protagonistaren aipu biribil labur bat idaztea da, baina tentu handiz ibili behar da, irakurleek noren berbak diren jakin behar dute eta.

Erreportajeetan, berriz, idazkera literarioa goa da, eta sarrera ere hala izan ohi da. Gainera, albisteetan ez bezala, sarreran ez dago informazioaren muina eman beharrik.

### 3.3.11. zaindu erritmoa

Oker larria da testuan barrena behin eta berriz antzeko egiturak errepikatzea.

Kazetaritzan, atsegingarri izan nahi duten testu guztietan bezala, komeni da esaldien eta paragrafoen egitura eta luzera aldatuz joatea, erritmoa monotonia izan ez dadin. Hala egin ezean, testua aspergarria izango da. Aditza beti esaldi amaieran duten esaldiak kateatzeak, esaterako, monotonia handia ematen dio pasarteari, testuari.

Esaterako, inoren adierazpenak biltzen dituzten testuetan, arrisku handia dago beti egitura bertsuak egiteko:

⇒ Alkateak esan duenez, (...). Alkateak adierazi duenez (...). Alkateak jakinarazi duenez (...).

Horrela idatzitako testuak nekez erakarriko du irakurlea, eta, beraz, ez du lortuko bere helburua.

### 3.3.12. bukaeran biribildu

Bukaera ere biziki zaindu behar da, horren oihartzuna geratuko baitzaio irakurleari gogoan.

Erreportajeetan, esaterako, garrantzitsua da bukaera biribiltzea. Adibidez, oso eraginkorra izan daiteke amaiera tituluarekin eta hasierarekin lotzea.

### 3.3.13. inbertsonaltasuna

Esaldi inbertsonalek indarra kentzen diote testuari, eta ezkutatu egiten dute agentea edo egilea. Azken batean, berriari ere indarra kentzen diote, albistea norik edo zerik eragin duen lausotzen baitute.

Nolabait, kazetaritzaren egiteko nagusiarekin kontraesan dago estilo inbertsonala: gertakari bat albiste bihurtu badugu, norbaitek zerbaite egin edo esan duen seinale izango da; bada, esaldi inbertsonaletan, ez du inork ezer egiten, gauzak berez-edo gertatzen direla dirudi:

⇒ Atzo aurkeztu zen emaitzak biltzen dituen txostena. Bertan, sektorearen diagnostikotik abiatuta, hainbat aholku eta proposamen egin dira aurrera begira.

⇒ Gizarte eragileek atzo aurkeztu zuten emaitzak biltzen dituen txostena. Bertan, sektorearen diagnostikotik abiatuta, hainbat aholku eta proposamen egin dituzte aurrera begira.

### 3.3.14. *aurpegia jarri* informazioari

Informazioa humanizatuz gero, irakurleak gertuago sentitzen du. Ideia abstraktuei bizitasuna eman behar zaie, hezur-haragizko pertsonen aurpegia jarritz: bizipenak, egoera konkretuak, gertaera pertsonalak... Edozein informazio interesgarriagoa gertatzen da datu orokor hotza laguntzeko pertsonen bizipenak kontatzen badira.

### 3.3.15. azaldu eta zehaztu

Oker larria da irakurleak ez dakiena jakintzat ematea. Aipatutako pertsonen kargua, lanbidea edo egitekoak azaldu egin behar dira, eta orobat argitu behar dira bestelako datu batzuk ere: politikoak, ekonomikoak...

⇒ Rafaela Romero Elgoibarren izan zen eguenean. [baztertu]

⇒ Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria, Rafaela Romero, Elgoibarren izan zen eguenean. [egokia]

### 3.3.16. erredundantziarik ez

Kazetaritzako testuetan erredundantziak sarri agertu arren, alferrikakoak dira, eta kazetariak saihestu egin behar ditu:

⇒ Eskubaloi talde berri bat sortu dute. [baztertu]

⇒ Eskubaloi talde bat sortu dute [egokia]

⇒ Ander Oñederra izendatu dute tenis irakasle berria. [baztertu]

⇒ Ander Oñederra izendatu dute tenis irakasle. [egokia]

### 3.3.17. eufemismoak, inoren esanetan bakarrik erabili

Hona hemen zenbait eufemismo, inoren esanetan bakarrik erabiltzekoak:

desfaboratuena	pobreak, txiroak
hazkunde negatiboa	ekonomia krisia, krisialdia, atzeraldia
helduentzako filma	film pornografikoa
hirugarren adina	zahartzaroa
Hirugarren Mundua	herrialde pobretuak
koloreko gizona/emakumea	gizon/emakume beltza
langile taldea doitu	langile taldea murriztu
zehir kalteak	biktima zibilak

### 3.3.18. klixerik ez

Kazetaritzako hizkeran klixe batzuk sortu dira azkenaldian, eta irakurlea gogaitzeraino zabaldu. Esapide ugalduek dira, neurritz gain erabiltzearen poderioz indar guztiez gabetuak, eta baliabide pobrezia erakusten dute. Honako hauek saihestu behar dira, besteak beste:

⇒ Halako izango da protagonista.

⇒ Erakusketak bihar irekiko ditu atearak

⇒ Haundiren jarraitzaileek hitzordu bat dute gaur San Mamesen.

⇒ Etxeko txikienentzat jolasak izango dira

⇒ Aurpegi ezagun asko bildu ziren ekitaldira.

⇒ Sabin Oregiren jaiotza erakusketa bat izango da ikusgai Kultur Etxean.

⇒ Azpimarratu behar da...

⇒ Gogorarazi beharra dago...

⇒ Nabarmentzekoa da...

⇒ Amaitzeko esan...

### 3.3.19. siglak, neurrian

Siglak oso lagungarriak zaizkio kazetariari, baina ezin dira izan irakurlearentzako traba. Titulu eta azpitituluetan, oso kontuz erabili behar dira: ezagunak bakarrik, eta neurrian beti. Hala jokatu ezean, titulua ezin ulertuzkoa izango da, eta irakurleak ez du jakingo albistea zein den ere.

Euskarazko siglak ezezagunak direnean erdarazkoekin batera jarriko ditugu, ulergarriago egitearren; lehenengo, euskarazkoa, eta gero, erdarazkoa: EAE-ANV, KPI-IPC, IAT-ITV, TAO-OTA, NBE-ONU eta abar idatziko dugu. Termino ezezagun edo berriek zer esan nahi duten jartzeko ahalegina egin beharko du kazetariak, ahal duenean: Gabonetako Haur Parkea (GHP-PIN), Nazio Batuen Erakundea (NBE-ONU).

### 3.3.20. arrunckeriak, inoren esanetan bakarrik

Hitz gordinek eta arrunckeriek ez dute lekurik kazetaritzan. Inoren esanetan bakarrik agertuko dira BARRENeN, eta, betiere, interes informatiboa baldin badute.

⇒ Kristoren balantza egin zion harriak 55. jasoaldian.

[baztertu]

⇒ Sekulako balantza egin zion harriak 55. jasoaldian.

[egokia]

⇒ OTA-TAOren makina izorratu egin da Plaza Txikian.

[baztertu]

⇒ OTA-TAOren makina hondatu egin da Plaza Txikian.

[egokia]

### 3.3.21. hizkera espezializatuak ez dira kazetaritzarako

Desegokia da teknizismo ulergaitzak idaztea. Kazetariak saiatu behar du kontzeptuak hitz ezagun zehatzekin azaltzen, ahalik eta irakurle gehienek uler ditzaten, aldizkaria ez baita adituentzat, publiko zabalarentzat baino. Oso termino teknikoak edo espezializatuak erabili behar izanez gero, beti azaldu behar da zer esan nahi duten.

### 3.3.22. aditzak ez errepikatu gehiegi

Hitz bera edo bertsua behin eta berriz errepikatzeak pobrezia erakusten du, baliabide erretorikoa ez denean behintzat. Baina kontuz: konponbide ez, baizik okerbide da sinonimo bila hasi eta inork gutxik ulertuko duen hitza erabiltzea.

### 3.3.23. alferreko lokailurik ez

Lokailuek esaldien arteko lotura logiko eta semantikoak adierazten dituzte. Hona hemen zenbait lokailu:

⇒ Gainera; bestalde; era berean; behintzat; behinik  
behin; bestela; osterantzean; gainerakoan; ordea; berriz;  
aldiz; ostera; dena dela; dena den; hala ere; hala (eta  
guztiz) ere; beraz; bada; hortaz; horrenbestez; halatan;  
hala; izan ere; hau da; alegia; azken batean; hain zuzen  
ere...

Lokailu batzuk (*bestalde, horrenbestez, alegia, beraz*) adineko jendeak ez ditu erabiltzen geurean, eta neurritz erabiliko ditugu BARRENen.

Tresna bikainak dira diskurtsoa antolatzeko, baina gogaikarriak zaizkio irakurleari betegarri huts direnean, eta are gogaikarriagoak, sasilokailu berriki asmatuak:

⇒ Zentzu honetan; ildo beretik; ildo berean... [Ahal dela, baztertu]

### 3.3.24. enumerazio eta zerrendetan, egitura bera

Zerrendaturiko elementuek egitura bera izan behar dute; hau da, denek izenak izan behar dute, edo denek aditzak, eta abar.

⇒ Debegesak zehaztu berriak ditu helburuak: beste taldeekiko elkarlana; gizaritari gero eta zerbitzu hobea eman; teknologia arlo berrion zabalkundea; eta profesional gazteak trebatu. [baztertu]

⇒ Debegesak zehaztu berriak ditu helburuak: beste taldeekin elkarlanean aritzea; gizaritari gero eta zerbitzu

hobea ematea; teknologia arlo berriok zabaltzea; eta profesional gazteak trebatzea. [egokia]

### 3.3.25. kazetariak ulertu egin behar du zer idazten ari den

Kazetariak ez badu ulertzen idazten ari dena, auskalo zer ulertuko duten irakurleek. Informazio horrek ez luke, beraz, inolako baliorik izango. Kazetariak informazioa ez badu, kontsultatu egin behar du idatzi aurretik.

### 3.3.26. euskaraz pentsatu

Gaztelaniazko esamolde ugari kalkatzeko bizioa izan ohi du kazetariak sarritan, erdarazko hedabideen eraginez.

⇒ Eguraldi txarrari aurpegi ona.

Tentazio horiek albo batera lagatzea erraza ez bada ere, euskaraz pentsatzeko ahalegina egin behar dugu. Pentsa dezagun euskaldun peto batek euskaraz nola esango lukeen idatzi nahi duguna, kazetaritza estiloari eutsiz betiere. Jar gaitezen haren lekuan.

Idatzitakoa modu naturalean agertzea komeni da. Hizkuntza idatzia eta ahozkoa ezberdina badira ere, BARRENen idatzitakoak ez dio belarriari min egin behar.

### 3.3.27. ondo orraztu testua

Kazetariak ondo orraztu behar du testua. Arretaz txukundu arte, testua ez dago bukaturik.

## 3.4. testuaren egitura: paragrafoa

### 3.4.1. testua antolatu eta egituratu beharra

Idaztea, neurri handi batean, ideiak antolatzeari da, eta antolamendu horri egitura egokia ematea. Osotasunaren barruan, testuaren zati eta azpizati bakoitza eduki unitatea da, formaren aldetik ere markatua.

Testua egituratu eta zatitu egin behar da, eta horretarako baliabide nagusiak, hain zuzen, paragrafoak dira: testuaren edukia antolatzen dute, eta antolaketari forma ematen. Horregatik, berebiziko garrantzia du paragrafoak taxuz osatzeak: ideia bakoitza bere tokian jartzen laguntzen du; ordena logikoa ematen dio diskurtsoari; saihestu egiten ditu alferrikako errepikapenak; testuaren egitura erakusten dio irakurleari, gehien interesatzen zaiona erraz aurki dezan... Azken batean, lagundu egiten du komunikazioan.

### 3.4.2. paragrafoa, baliabide grafikoa

Paragrafoak ondo multzokatuta egon ezean, itxuragatik soilik, irakurlea uxatzeko arriskua

dago, irakurtzen hasi aurretik ere begietatik sartzen baita testua: paragrafo gutxi eta oso luzeak badira, itxura trinkoegia izango du, eta irakurlerik saiatuenera ere kosta egingo zaio hastea; paragrafo asko eta oso laburrak badira, badirudi ideia solteak zerrendatu ditugula, batere landu gabe; askotariko paragrafoz osatzen badugu testua (orain luze-luze bat, orain ezin laburrago bat, orain erdibideko bat...), anabasa itxura hartuko du.

Argi dago, beraz, kazetariak zaindu egin behar dituela paragrafoen kopurua eta paragrafo bakoitzaren neurria. Ez dago, ordea, paragrafo kopuru jakin bat, beti eta zehazki testutarako balioko duena, eta ez dago neurri bakar eta estandarrik paragrafo guztietarako. Kazetariak aldiro erabaki behar du: berriari zer leku dagokion ikusi eta esateko duena nola esan nahi duen pentsatu ondoren, hori guztia paragrafotan nola multzokatu aukeratu beharko du.

### 3.4.3. edukia, paragrafoka antolatutik

Kazetariak eduki batzuk biltzen ditu, eta horiekin diskurtso bat eratzen du eta paperean ematen. Orrialde osoaren egitura edo antolamendua, oro har, aurrez erabakia egoten da, eta orriak eskaintzen dion elementu hierarkiara moldatu behar du diskurtsoa, zatitu eta informazio elementu guztietan banatu: zer titulurako, zer azpiztitulurako, zer

zatidurarako, zer argazkirako... eta zer testu barrenerako. Testu barrena ere, jakina, antolatu egin behar du kazetariak, besteak beste paragrafoak erabiliz.

#### 3.4.4. paragrafo bat, ideia bat

Hutsegite aski hedatua da paragrafoak askorik pentsatu gabe hasi eta bukatzea. Paragrafo bakoitzak zer bildu behar duen ez dakien kazetariak nekez lortuko du diskurtsoa egoki antolatzea.

Paragrafoak ideia nagusi bat eduki behar du; ideia horrek gidatzen ditu paragrafoa osatzen duten gainerako esaldiak, eta ideia horrek ematen die zentzua. Testu idatzi batean, beraz, esanahia ez dago soilik esaldietan; paragrafoak ere esanahidunak dira, eta horrek elementu beregain bihurtzen ditu, beren baitako logikari erantzuten dioten diskurtsoaren zati bereziak.

Paragrafo bateko esaldi kateak logika bat behar duen bezala, ideia baten testuinguruan biltzeko adinakoa, testu bateko paragrafo kateak ere behar du jarraitutasun logiko bat, diskurtsoaren zati batetik bestera galdu gabe joateko adinakoa. Eta hor egin behar du ahalegina kazetariak, irakurlea eraman egin behar du, eta sentiarazi behar dio, irakurri ahala, diskurtsoari zentzua ematen ari zaiola.

#### 3.4.5. paragrafoa eta alferreko lokailuak

Paragrafo bateko esaldiak ez lirateke egongo elkarren ondoan helburu bat eta bera ez balute, informazioa eta argudioak bide berean eramango ez balituzte. Paragrafo berean egoteak aski lotura logikoa ematen die, eta, batzuetan, gututz alferrekoa izaten da lotura hori hizkuntzazko elementuekin adierazi nahi izatea. Ustez paragrafo barruko loturak egiteko erabiltzen diren lokailu asko behar handirik gabe jartzen dira:

⇒ Juan Manuel Torres gaztea zela hasi zen motorrean ibiltzen, 14 urterekin, alegia. Dena den, ez zuen gidabaimenik, baina, hala ere, motorra bazuela gogoratzen du, malko artean. Azken batean, beraz, bere ametsa betetzen ahalegindu zen: errepideko errege izaten, azken batean.

Horrek ez du esan nahi lokailurik erabili behar ez denik. Ez da egokia behar denean lokailurik ez jartzea.

Berdin gertatzen da paragrafotik paragraforako loturekin ere. Diskurtsoa ongi antolatuta duen kazetariak ez du premiarik izango paragrafotik paragraforako bidea etengabe lokailuak eta diskurtso antolatzaileak erabiliz egiteko.

### 3.4.6. paragrafoa eta tarteko titulua (tartekia)

Tarteko tituluak funtzio argia du testuan: kazetariak ordura arte landu duen ideia laga eta beste bat proposatzea. Tarteko tituluari jarraitzen dion paragrafoa gairaren beste alderdi bati ekiteko baliatzen da, eta ez aurreko paragrafoari segida emateko. Tarteko tituluak ez dakarkio etenik diskurtsoaren bilakaerari, baina bai paragrafoen arteko loturari.

## 3.5 esaldiaren antolamendua

### 3.5.1. informazio nagusia aurrean

Informazio nagusia esaldiaren hasieran eman behar da, eta bestelako xehetasunak gero. Esaldia luzea baldin bada, hobe elementu batzuk aditzaren ostera pasatzea, mamia aurreratu ahal izateko.

⇒ Joan den eguaztenean Gasteiz-Eibar errepideko Larreategiko zubibidearen laugarren zutabearen zintzilik geratu ziren hiru piezek GI-627 bidean eragin dituzten arazoak konpontzeko lanak Gipuzkoako Diputazioko Garraio eta Errepide Departamentuak espero moduan ari dira egiten, bertako iturriek atzo jakinarazi zuten. [baztertu]

⇒ GI-627 bideko arazoak konpontzeko lanak espero moduan ari dira egiten, Gipuzkoako Diputazioko Garraio eta Errepide Departamentuak atzo jakinarazitakoaren arabera. Joan den eguaztenean zintzilik geratu ziren hiru

pieza Gasteiz-Eibar errepideko Larreategiko zubibidearen laugarren zutabearen, eta horrek arazoak sortu ditu. [egokia]

### 3.5.2. aditza ez laga azkenerako

Esaldiak luzeak eta korapilotsuak badira, aditza bukaeran joatea ez da lagungarria testua ulertzeko. Galdegaia aditzaren aurrean joateak ez du esan nahi aditzak atze-atzean joan behar duenik. Galdegai luzeak, adibidez, joan daitezke aditzaren atzetik. Aditza aurreraturaz gero, esaldi ulergarriagoak lortzen dira:

⇒ 1983ko ufalak izan zirenetik, Madalako, San

Frantziskoko eta Errosarioko dendari, tabernari eta auzokideak euri jasa handiak diren bakoitzean urduri jartzen dira. [hobeto eman daiteke]

⇒ 1983ko ufalak izan zirenetik, urduri jartzen dira

Madalako, San Frantziskoko eta Errosarioko dendari, tabernari eta auzokideak, euri jasa handiak diren bakoitzean. [ulergarriagoa]

Ulergaitzak dira izenez, karguz eta bestelako xehetasunez zamaturiko esaldi hasierak. Horrelako aurkezpenak egin behar izanez gero, hobe da atzera pasatzea, esaldiari eta irakurleari arnasa emateko.

- EAJ-PNVren Elgoibarko Uri Buru Batzako lehendakari izan den Jesus Mari Kortaberria Udal Hauteskundeetarako hautagai izendatu zuten atzo. [hobeto eman daiteke]



⇒ Udal Hauteskundeetarako hautagai izendatu zuten atzo Jesus Mari Kortaberria, EAJ-PNVren Elgoibarko Uri Buru Batzako lehendakaria. [egokia]

⇒ Zuzendaritza taldeko lau kide bakarrik aurkeztearen aldeko ahotsak badirela jakina da. [hobeto eman daiteke]

⇒ Jakina da zuzendaritza taldeko lau kide bakarrik aurkeztearen aldeko ahotsak badirela. [egokia]  
Jakina da badirela ahotsak izuzendaritza taldeko lau kide bakarrik aurkeztearen alde [egokia]

### 3.5.3. subjektua eta aditza, elkarrengandik hurbil

Subjektua eta aditza elkarrengandik hurbil ematea komeni da, esaldiaren haria ez galtzeko. Beti subjektuarekin hasi beharrik ez dago: kategoria gramatikalak baino gehiago enfasi jokoak (mintzagai-galdegai jokoak) gobernatzen du osagaien ordena.

⇒ Nazioarteko adituek orain dela 55 milioi urte bizi izan ziren landare eta animalien fosilak jaso dituzte Ozeano Atlantikoan. [hobeto eman daiteke]

⇒ Orain dela 55 milioi urte bizi izan ziren landare eta animalien fosilak jaso dituzte nazioarteko adituek Ozeano Atlantikoan. [egokia]

### 3.5.4. kontuz subjektu segidekin

Bi perpausetako subjektuak elkarren ondoan pilatzen baditugu, nahasmendua sortuko dugu.

⇒ Pello Arrietak eta Andres Alberdik Gotzon Garate euskaltzale eta idazleak egindako lanen berri emango dute. [hobeto eman daiteke]

⇒ Gotzon Garate euskaltzale eta idazleak egindako lanen berri emango dute Pello Arrietak eta Andres Alberdik. [egokia]

⇒ Venerando Cid, Juan Manuel Torres eta Miguel Borreguero Skull Riders taldeko hiru kide dira [hobeto eman daiteke]

⇒ Skull Riders taldeko hiru kide dira Venerando Cid, Juan Manuel Torres eta Miguel Borreguero [egokia]

### 3.5.5. aposizioak

Hiru modutara egin daitezke:

⇒ Jabi Fernandez Urgazi Triatloi Taldeko kidea gogoz entrenatzen ari da. [komarik gabe]

⇒ Jabi Fernandez, Urgazi Triatloi Taldeko kidea, gogoz entrenatzen ari da. [komekin]

⇒ Urgazi Triatloi Taldeko kide Jabi Fernandez gogoz entrenatzen ari da. [modu klasikoa]

Aposizioa komen artean denean, bi osagaiak berdin deklinatzen dira:

⇒ Ikuskizun bikaina eskaini zuten Jon Lizarralde eta Eire Vila Haritz dantza taldeko kideek Plaza Handian.

⇒ Ikuskizun bikaina eskaini zuten Jon Lizarraldek eta Eire Vilak, Haritz dantza taldeko kideek, Plaza Handian.

### 3.5.6. adierazpenak

Norbaitek esandakoa jaso behar denean, zehatz eta garbi eman behar da, bai zer esan duen, bai zeinek esan duen.

Adierazpenek indarra eta sinesgarritasuna ematen diote informazioari.

Kazetariak ondo landu behar ditu adierazpenak: testuingurutik atera gabe eta desitxuratu gabe.

Akats gramatikalak eta ahozko hizkeran ohi-koak diren hutsak konpondu egin behar ditu kazetariak, betiere esanahia eta tonua errespetatuz.

Kazetariak sintesi lana egin behar du, adierazpenik esanguratsuenak hartu eta testua landu.

Aipuak ondo aukeratzea oso garrantzitsua da: indartsuak, erakargarriak, esanguratsuak izan behar dute. Ez da komeni aipu luzeak egitea.

#### 3.5.6.1. adierazpenak emateko moduak

√ **Estilo zuzena:** Estilo zuzenean esaldi osoak ematen dira aipu markaren barruan:

Marivi Agirregomezkorta: “Ez naiz aurkeztuko hurrengo hauteskundeetara”.

Estilo zuzenean, bi puntuen ostean maiuskula erabiltzen da.

√ **Zehar estiloa:** Zehar estiloan, aipu markarik ez da erabiltzen, eta esaldi osagarri edo zehar galdera bihurtzen dira adierazpenak:

⇒ Marivi Agirregomezkorta esan du ez dela hauteskundeetara aurkeztuko.

√ **Bitariko estiloa:** Berba bat, sintagma bat edo esaldi bat idazten da aipu marken barruan, baina ez esaldi osoak:

⇒ Madalako obrak direla-eta, “kontu handiz” ibiltzeko eskatu die Udalak elgoibartarrei.

√ **Interpretatiboa:** Kazetariak deskribatu egiten du mintzatu denaren asmoa, aditzaren bitartez gehienetan: aitortu, egotzi, gaitzetsi, iragarri, kritikatu, leporatu, salatu...

⇒ Legealdi Planak ezer berririk ez dakarrela kritikatu du Unai Zulaikak zinegotziak.

#### 3.5.6.2. ez nahastu estilo zuzena eta zehar estiloa

Estilo zuzena eta zehar estiloa ezin dira nahastu; bestela, zail egingo zaio irakurleari kazetariaren diskurtsoa eta protagonistaren adierazpenak bereiztea.

Gainera, joskera arazoak ere sortzen dira, esaldi osagarriak aipu marken barruan sartzeko tentazioa izaten baitu kazetariak.

⇒ Iñaki Lazarobasterrek esan du “baserriaren egoera kritikoki bihurtu dela”. [ez da zuzena]

⇒ Iñaki Lazarobasterren esanetan, “baserriaren egoera kritikoki bihurtu da”. [egokia]

Aditz laguntzailea aipu marketatik ateratzeak ez du konpontzen arazoa. Aditz nagusiak eta laguntzaileak batera joan behar dute: edo biak aipu marken barruan, edo biak kanpo.

Hirugarren pertsona eta lehen pertsona ondo bereizita:

⇒ Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusiak [hirugarren pertsona] babes osoa **eskaini zion** Zapaterori, “bakea lortzeko egingo dituen urratsetan Euskadik laguntzea **nahi bainuke**”. [ez da zuzena]

⇒ Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusiak babes osoa **eskaini zion** Zapaterori: “Bakea lortzeko egingo dituen urratsetan Euskadik laguntzea **nahi nuke**” [egokia]

### 3.5.6.3. adierazpenak neurrian

Neurrian erabili behar dira aipu marken barruko adierazpenak, bai estilo zuzenekoak eta bai bitarikoak.

Esaldi eta berba esanguratsuak bakarrik mugatu behar dira aipu marken bidez.

Horrela eginda, berbaz berbako adierazpenei behar duten indarra ematen zaie; bestela, gerta daiteke testua aipu bilduma hutsa bihurtzea, inolako irizpide barik, bata bestearen atzetik kateaturik era monotonoan.

⇒ Lazarobasterrek adierazi zuen, oraindik “aukera bada-goela” Abiadura Handiko Trena gelditzeko, baserriarrek “gizartea konbentzitzea lortzen” badute. [ez da zuzena]

⇒ Lazarobasterrek adierazi zuen oraindik aukera badagoela AHT gelditzeko, baserriarrek gizartea konbentzitzea lortzen badute. [egokia]

### 3.5.6.4. nork esan duen garbi adierazi, baina ez betegarri

Irakurleari argi adierazi behar zaio noren berbak jaso diren testuan, baina neurrian. Hala, testuan pertsona bakar baten aipuak baldin badaude, ez da beharrezkoa aldioro noren berbak diren adieraztea.

⇒ Real Madrid txapelketatik kanporatzea ohore handia izan da, Real Union taldeko Zuhaitz Gurrutxagaren iritziz. “Garaipen historikoa lortu dugu”, adierazi du Real Unioneke Zuhaitz Gurrutxagak. [ez da egokia]

⇒ Real Madrid txapelketatik kanporatzea ohore handia izan da, Real Union taldeko Zuhaitz Gurrutxagaren iritziz: “Garaipen historikoa lortu dugu”. [egokia]

Pertsona gehiagoren adierazpenak biltzen direnean, ordea, oso kontuz ibili behar da,

irakurleak hasieratik jakin behar baitu noren esanak irakurtzen ari den.

### 3.5.6.5. kazetariak gehitutako argibideak, parentesi zuzenen artean

Estilo zuzeneko artikuluetan eta elkarrizketa formatukoetan, inoren adierazpenen barrenean kazetariak zerbait gehitu behar izanez gero, parentesi marka zuzenak ([...]) erabiltzen dira, ez marra luzeak (—...—). Marrak erabiliko bagenitu, aipuaren parte dela ulertu beharko genuke.

⇒ “Hemen –Real Unionen–, sekulako taldea dugu”

[desegokia]

⇒ “Hemen [Real Unionen], sekulako taldea dugu” [egokia]

⇒ “Ilusio handiz prestatu dut erakusketa –barre egiten du–, Elgoibarko herriak hori eta gehiago merezi du eta”

[desegokia]

⇒ “Ilusio handiz prestatu dut erakusketa [barre egiten du], Elgoibarko herriak hori eta gehiago merezi du eta”.

[egokia]

### 3.5.6.6. aipuetarako bi marka mota

Adierazpenetarako, komatxoak erabiltzen dira BARRENen.

Hitzak, esaldi zatiak nahiz esaldi osoak

mugatzen dituzte komatxoek. Betiere nolabaiteko osotasuna izan behar du aipuak (“ ”).

Adierazpenen barruan beste norbaiten hitzen aipua txertatzeko baliabidea komatxo bakunak dira (‘ ’).

⇒ Evelyn Santos pozik agertu da egutegiarekin:

“Ezagutzen ez genuen beste gauza bat ikasi dugu eta ETB2ko saiokoez zera esan ziguten: ‘Lan bikaina egin duzue’. Harro egoteko modukoa da”.

### 3.5.7. kontuz perpaus erlatiboekin

Oro har, informazio garrantzitsuena atzeratu egiten dute, eta esaldi artifizial eta korapilotsuak osatzen dira.

⇒ Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak herrian dauden hamazortzi klubek urtean zehar egiten duten lana aintzat hartzekoa dela erakutsi du kirol federatuaren urteko sariak banatzean. [ez egokia]

⇒ Elgoibarko hamazortzi klubek urtean zehar egiten duten lana aintzat hartu du Udal Kirol Patronatuak, kirol federatuaren urteko sariak banatzean. [egokia]

⇒ Olaizaga kiroldegian egiten ari diren Bigarren Eskuko XII. Automobil Azokaren inaugurazioan 40 herrialdetako ordezkariak bildu ziren domekan. [ez da egokia]

⇒ Olaizaga kiroldegian 40 herrialdetako ordezkariak bildu ziren domekan, Bigarren Eskuko XII. Automobil Azokaren inaugurazioan. [egokia]

Perpaus erlatiboak ugaltu egin dira kazetari-tzan, klise artifizial eta alferrikoak sortzeraino:

⇒ Aurrekontua egokia da, Elgoibarko alkate den Alfredo Etxeberriaren iritziz. [BARRENen ez erabili]

⇒ Aurrekontua egokia da, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatearen iritziz. [BARRENen hobeto]

### 3.5.8. parentesiak eta marra luzeak

Parentesi eta marra luzeek ahalik eta gutxien eten behar dute esaldia. Trabarik egiten ez duten lekuan erabili behar dira, ahal dela.

⇒ Domekako saioa Ikastolako frontoian (12:30) jokatu da. [hobetzeko modukoa]

⇒ Domekako saioa Ikastolako frontoian jokatu da (12:30). [egokia]

⇒ Nazioarteko Xake Federazioak dopin analisiak egingo dizkie San Luiseko (Argentina) munduko txapelketan ari diren jokalariei. [hobetzeko modukoa]

⇒ Nazioarteko Xake Federazioak dopin analisiak egingo dizkie San Luisen (Argentina) munduko txapelketan ari diren jokalariei. [egokia]

## 3.6. puntuazioa

### 3.6.1. zertarako erabiltzen den

Testua egituratzeko tresna garrantzitsua da: testua osatzen duten informazio unitateak

markatzen ditu, diskurtsoa ulertzen laguntzeko. Baina diskurtsoaren egitura ez ezik, esanahia ere definitzen da puntuazioaren bitartez. Azken batean, irakurlearen interpretazioa egokia dela segurtatzea da puntuazioaren egiteko nagusia; izan ere, puntuazio markek irakurlea gidatu egin behar dute, testua ondo uler dezan.

√ **Puntuazioa eta joskera:** Joskerari estu lotua dago, eta, horregatik, diskurtsoaren joskerak eta antolamenduak agintzen dute zein puntuazio marka erabili, eta ez intonazioak. Puntuazioa aberasteak joskera aberasteko modua ematen du.

√ **Puntuazioa eta estiloa:** Egitura ez ezik erritmoa eta musika ere ematen die puntuazioak testuei. Kazetaritzako testuetan, egitura korapilatsuak albo batera laga behar dira. Testu motaren arabera, zilegi da puntuazio modu erretorikoagoak erabiltzea. Testu motaren arabera, jakina, zilegi da puntuazio modu erretorikoagoak erabiltzea.

### 3.6.2. tituluak

Ezin dira inolaz ere korapilotsuak izan, eta hobe da puntuazioz ere sinpleak izatea. Puntuazio markarik behar ez duten tituluak hobeak dira, oro har; baina markak behar badituzte, jarri egin behar dira.

### 3.6.3. puntua .

#### 3.6.3.1. ezaugarri orokorrak

Esaldia, paragrafoa edo testua bukatua dela adierazten du puntuak. Funtsezkoa da testua egituratzeko.

Esaldiaren bukaera harridura marka, galdera marka edo eten puntuak daudenean, ez da punturik jarri behar.

Tituluetan, azpituduetan, tartekietan eta leihoetan ez da punturik jartzen esaldi bukeran.

Adierazpenetan, puntua kanpoan idazten da, ez aipu marken barruan.

⇒ Julenentzat ez dauka sekreturik marrazketak:  
“Lapitzarekin ondo egin behar da”.

Puntuaren ostean, zuriunea lagatzen da beti.

#### 3.6.3.2. noiz erabiltzen den

Esaldi bukaera markatzeko erabiltzen da puntua nagusiki.

Dena dela, koma ordezkatzeko du batzuetan, arrazoi estilistikoengatik, enfasia emateko. Neurritz erabiltzeko baliabidea da.

⇒ Idazleak beste bost poema argitaratu zituen. Nahiz eta jakin espetxera eramango zutela. Traba guztien gainetik. [ez da desegokia, baina aldizkari guztia ezin dugu horrelako egiturekin bete]

Ordinalek ere puntua behar dute:

⇒ *Abendua bertsotan* ekimena martxan jarri du Elgoibarko Izarra kultur elkarteak, Gabonetako bertso jaialdiaren 25. urteurrena dela eta.

Dena dela, zenbakia segida bati badagokio, ez da punturik jartzen (urteak, posta kodea...).

Laburdurek puntua izan ohi dute.

Zehar marra duten laburdurak punturik gabe idazten dira. Sigla eta sinboloetan, ez da punturik jartzen.

### 3.6.4. puntu eta koma ;

#### 3.6.4.1. ezaugarri orokorrak

Puntuak baino eten txikiagoa adierazten du puntu eta komak. Hala, puntu eta komaz markaturiko esaldien artean lotura semantiko handia dago, puntuz bereizirikoen artean baino. Beraz, egokiro erabiliz gero, aberastu egiten du testuaren egitura eta informazioa, ñabardurak adierazten baititu.

Puntu eta komaren ondotik, zuriunea uzten da beti.

### 3.6.4.2. noiz erabiltzen den

Esaldien artean esanahi lotura estua dagoela adierazten du puntu eta komak.

Bi perpaus esaldi berean lotzeko erabiltzen da, eta ez puntua. Beraz, testuetan puntua ez ezik puntu eta koma ere erabiliz gero, sotilago adieraz daitezke puntuen arteko lotura semantikoak.

⇒ Elgoibarko gizonik aberatsena zen; lurrak, etxeak eta baserriak zituen.

Lotura logikoa esplizitatu nahi izanez gero –kausa, ondorioa, aurkaritza–, lokailuak eta bestelako diskurtso antolatzaileak erabili beharko ditugu.

⇒ Aimarrek Peñagarikano izango du lagun; Asierrek, berriz, Ruben Beloki.

⇒ Batez ere, eleberriak eta ipuinak irakurtzen ditut; zuk, aldiz, sekula ez duzu nobelarik irakurri.

⇒ Nik uste dut oparitarako erosketa asko egiten dela hemen; hori ikusi dut nik, behintzat.

Enumerazioetan, normalean komaz bereizten diren elementuak puntu eta komaz

bereizten dira, baldin eta barrenean komak badituzte.

⇒ Han izan ziren Ander Soraluze, Elgoibarko Izarra kultur elkartekoa; Koro Gabiola, BTT Zentrokoa; Arrate Zubia, Marimendi elkartekoa; eta Anbolo lora, Ego-Toki elkartekoa.

Laburpen moduko batzuetan ere puntu eta koma baliatzen da. Argibide modukoak izan ohi dira, esaldi bukaeran idatziak.

⇒ Bizipen horiek sentimendu bat sortzen dute, eta sentimendu hori hitz bilakatzen da; kantu, azken batean.

## 3.6.5. bi puntuak :

### 3.6.5.1. ezaugarri orokorrak

Bi puntuen bidez, diskurtsoa eten egiten da, segidan datorrenari nolabaiteko sarrera emateko.

Gehienetan, bi puntuen atzetik ez da erabiltzen lokailurik. Izan ere, aurrekoaren azalpen, ondorio edo iruzkintzat hartzen da, lokailuak esplizitatu gabe ere.

Teorian, komunztadura egitea aukerakoa da, baina komunztatu gabekoak oso arrotzak gertatzen dira batzuetan: batez ere, sintagma hutsetik urrunduta ahala.

⇒ Ezusterik ezean, David Lopezek eta Enrique Corralesek beteko dituzte bi hegala: Lopez eskuinean, eta Corrales ezkerrean. [desegokia]

⇒ Ezusterik ezean, David Lopezek eta Enrique Corralesek beteko dituzte bi hegala: Lopezek eskuinean, eta Corralesek ezkerrean. [egokia]

Behin baino gehiagotan erabil ditzakegu bi puntuak segidan, tartean punturik izan gabe. Dena dela, oso kontuz ibili behar da, haria gehiegi korapila ez dadin.

⇒ Hauxe izan zen gakoak: Alderdi Popularrak baldintza batekin eman zizkion bere botoak Clri: Estatutua ez aldatzea.

⇒ Ez da, jakina, aliritzira egindako hautua: liburua osatzen duten bost ipuinetan “ardatz” dira, Karmele Jaio idazle eta kazetariaren ustez, izenburua osatzen duten hiru hitzetatik bi: bihotza eta gosea.

Bi puntuen ondotik, zuriunea lagatzen da beti.

### 3.6.5.2. noiz erabiltzen diren

Azalpena, kausa, ondorioa edo aurrekoaren laburpen modukoa sartzeko erabiltzen dira bi puntuak.

Agerian lagatzen dute lotura semantikoa.

⇒ Beste bi egitasmoak ez daude oraindik onartuta, ezta guztiz erabakita ere, baina bai nahiko pentsatuak: *Zorion perfektua* aurten filmatzen hasteko asmoa du Amigok, eta *Bihotz bi* datorren urtean filmatu nahi du.

⇒ Bi sail nagusi ditu erakusketak: batean, egileak Balear uharteetan eta Parisen pintatutako 22 olio pintura daude, zuriak eta beltzak aparteko kolore askorik gabekoak; bestean, Malin 2004ko abenduan eta 2005eko urtarrilean egindako marrazki koloretsuak eta brontzezko bost eskultura.

Enumerazioak irekitzeko (normalean) edo ixteko modu bat dira.

⇒ Einsteinen teoria eta hipotesi asko egiaztatu egin dira, eta haren teorian oinarritutako hainbat tresna ezinbestekoak dira gaur egun: kamera digitalak, laser izpiak, GPS sistema, unibertsuaren garapenaren teoria, zelula fotoelektrikoak...

⇒ Kamera digitalak, laser izpiak, GPS sistema, unibertsuaren garapenaren teoria, zelula fotoelektrikoak...: Einsteinen teoria eta hipotesi asko egiaztatu egin dira, eta haren teorian oinarritutako hainbat tresna ezinbestekoak dira gaur egun.

Adibide modukoak sartzeko ere erabiltzen dira bi puntuak.

⇒ Columbia disketeak Miles Davis jazz musikariaren hainbat disko berrargitaratuko ditu datozen hilabeteotan: *Seven Steps to Heaven*, besteak beste.



Aipuak eta adierazpenak txertatzeko, batez ere estilo zuzenean, askotan baliatzen dira. Estilo zuzenean ari bagara, bi puntuen ondoko lehen hitza letra larriz idazten da.

⇒ Hedabideek Afrikarekin duten jokabideari oso kritika-garri deritzo Mankellek: “Europar guztiok oso ondo dakigu Afrikan nola hiltzen diren, baina Europan inor gutxik daki Afrikan nola bizi diren”.

Kataforaren bat erabiltzen denean (erakuslea, izenordea...), esaldiak lotzeko modu bat dira.

⇒ Honako esaldi hau errepikatuko dizut: gure lurraldean ez dago ia nekazaritzarik, abeltzaintzarik ere ez kasik, eta jaten dugun guztia inportatzen dugu ia-ia.

⇒ Telebistak ondorio hau ekarri du: jendeak uste du bertsoan egiten dakien bakarra bertsolaria dela.

### 3.6.6. koma ,

#### 3.6.6.1. ezaugarri orokorrak

Esaldi koordinatuak lotzeko eta esaldi barre-neko eten txikiak egiteko da koma. Puntuazio markarik konplexuena da, erabile-ra gehien duena.

Eten puntuak ezin dira joan komaren ondolik. Komaren ondolik, zuriunea uzten da beti.

#### 3.6.6.2. noiz erabiltzen den

Esaldi koordinatuak lotzeko erabili ohi da.

Bi esaldi *eta*, *baina* edo *edo* erabiliz koordinatzen baditugu, koma jarriko dugu juntagailuaren aurretik: [, eta], [, baina], [, edo].

⇒ 10:00etan hasiko da krosa, eta furgoneta zerbitzua 9:00etan hasiko da.

⇒ Gazte baten errespetu falta ematen zuen, baina Mugerzak emandako hitza bete egin zuen.

⇒ Konturatu ere ez naiz egiten oroitzapen horiek hor daudela, edo erdizka besterik ez naiz jabetzen, edo pasatu eta gero konturatzen naiz.

Esaldi koordinatuetako batean aditza isildua baldin badago ere, berdin jokatzen da.

⇒ Taldeko kideek oroitarria jarri, eta bertsoan jardun dute eguerdian.

⇒ Hark arkumea ekarri, eta nik prestatuko dut.

Estilo zuzeneko esaldiak mugatzeko ere erabiltzen da. Izan ere, aipua eta kazetariaren diskurtsoa komaz bereizten dira (aipu markarekin mugatzeaz gain).

⇒ “Naval erosi gura dugu”, berretsi du ontziolako presidente Joanes Labairuk.

Enumerazioetan, osagaiak komaz bereizten dira.

⇒ Etxean gordeta neuzkan ordenagailuak, liburuak, DVDak eta bideoak [enumerazio itxia da *eta* duena]

⇒ Ehun irudi ditu liburuak: itzulpenen azalak, liburu batzuetako ilustrazioak, hainbat artistaren argazkiak... [enumerazio irekia da *eta*-rik gabea]

Batzuetan, errepikapen efektua emateko, *eta* erabiltzen da sail guztian, komaren orde.

⇒ Elgoibarko gizonik aberatsena zen; denetik zuen, eta denetik franko: lurrak eta etxeak eta errotak eta zer ez.

Enumerazioen atalen barruan komak badaude, koma ez baizik puntu eta koma erabili beharko dugu atal bat eta hurrengo bereizteko.

⇒ Gaurko bilerara sail hauek etorriko dira: Jaurkitzako Lehendakaritza; Osasuna; Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza; eta Kultura.

Esaldi zerrendetan ere erabil daiteke.

Enumerazio modu bat dira, eta bi osagai baino gehiago lotzen dituzte, gainerako enumerazioek bezala.

⇒ Azken urteotan, bertsolaritza ofizialdu egin da, nolabait: bertso eskoletan udaletako euskara sailak sartu dira,

irakasleak profesionalak dira, beste babes mota batzuk ere badira...

Deikiak komaz markatzen dira.

Esaldi hasieran, jakina, ondotik jartzen da koma; eta esaldi bukaeran, aurretik.

⇒ Agur eta mila esker, Mosku.

⇒ Zuk, Silveira, ika-mika sortu izan duzu behin baino gehiagotan hainbat bertsorekin.

Tarteki txikiak ere mugatzen ditu komak, esaldiari estu loturikoak.

⇒ Jokalariak, pozez zoratu beharrean, kopa hartu zuen esku artean.

⇒ Barrez erantzun zien, pozik, galdera guztiei.

Aposizio batzuk koma tartean idazten dira.

⇒ Dmitri Pitermani, Alaveseko presidenteari, asko kostatzen zaio hitzak neurtzea.

Horrelako aposizioetan, bi osagaiak deklinatzen dira: aposizioa eta hari dagokion sintagma.

Koma tartean idatzi behar dira lokailuak eta diskurtso antolatzaileak. Hona hemen batzuk:

⇒ gainera, bestalde, era berean, halaber, orobat, behintzat, behinik behin, bestela, osterantzean, gainerakoan, ordea, berriz, ostera, dena dela, dena den, hala ere, hala eta guztiz ere, beraz, hortaz, horrenbeste, halatan, hala, izan ere, hau da, alegia, azken batean, hain zuzen ere, horregatik, batetik, bestetik, azkenik, lehenik, bigarrenik, hirugarrenik...

Esaldi hasieran edo bukaeran egokitzen badira, aurretik edo atzetik puntua edo puntu eta koma izango dute, jakina.

Bada salbuespen bat: *bala nola* lokailuak aurretik bakarrik izan ohi du koma eta ondolik ez.

⇒ Pasarte batean, gainera, Bukowski irakurtzen agertzen da Kat.

⇒ Nobela aspaldidanik ari da, ordea, beste genero batzuekin nahasten.

⇒ Dena den, bakoitzak bere iritziazen arabera bozkatuko du.

⇒ Bada besterik, beraz.

⇒ Ez dago batere ados, hala ere.

*Hala nola* lokailuaren kasua:

⇒ Atzerrian bizi diren kurdu siriarrak protestak egin zituzten Europako zenbait hiritan, hala nola Bruselan, Genevan eta Berlinen.

Kontuan izan diskurtso antolatzaile batzuk galdegai izan daitezkeela; esaterako, *horregatik* eta *bori dela eta*. Galdegai direnean, ezin da komarik jarri haien eta aditzaren artean.

⇒ Bertsolaria, hain justu, hori da, edozein giro tara egokitzekeo gai dena. Horregatik bereizten dira bertsolaria eta bertsotan egiten dakiena.

*Hori dela eta*, galdegaia denean marratxo idatziko dugu:

⇒ Hori dela-eta etorri gara.

Beste galdegai bat gehitzen denean, komaz bereizten da.

⇒ 1860. urtean jaio zen Txirrita, Hernanin.

⇒ Sariak barixakuan banatuko dituzte, Herriko Antzokian.

⇒ Aurreneko kanporaketa domekan jokatuko da, Mintxetan.

Mintzagaia markatzeko ere koma erabiltzen da, batez ere mintzagai hanpatua markatzeko.

Mintzagaia esaldiaren hasieran egon ohi da; lehendik dakigun informazioa errepikatu ohi dugu mintzagaian, edo bestela, gure diskurtsoaren unibertsoa mugatu.

Mintzagai izaten dira, esaterako, hauek: *-ri dagokionez, horren gainean, -ren ustez, -ren esanetan*. Horrelakoak beti komarekin izaten dira, non eta ez diren mendeko baten parte.

Batzuetan, zilegi da koma kentzeko lizentzia hartzea, baina inolaz ere ez honelako kasuetan:

a) Anbiguitasuna sortzen denean:

⇒ Lehen herriaren itxura aldatu zuten, orain eskualde osoarena [lehenbiziko herria ote da?]

⇒ Lehen, herriaren itxura aldatu zuten; orain, eskualde osoarena. [egokia]

b) Esanahia aldatzen denean.

Koma jarri edo ez jarri, esanahia aldatu egiten da askotan. Esaldi honetan, esate baterako:

⇒ Agurrean “egindako lagunak” goraiatu eta Eibar mailaz igoko dela ziurtatu du Karmonak.

Dagoen-dagoenean hau ulertu beharko genuke: Karmonak lagun batzuk egin ditu agurrean; gainera goraiatu egin ditu, eta Eibar igo egingo dela ziurtatu.

Logikak salatzen du ez dela horrela izan, agurrean ziurtatu duela, eta ez agurrean lagunak egin. Horrelakoetan, koma jarri egin behar da, ez baitago lizentzia hartzerik

⇒ Agurrean, “egindako lagunak” goraiatu, eta Eibar mailaz igoko dela ziurtatu du Karmonak.

Hona hemen beste adibide batzuk:

⇒ 80ko hamarkadaren hasieran hiesa denon arazoa zela gogoratu zuen [= 80ko hamarkadaren hasieran izan zen hiesa denon arazoa]

⇒ 80ko hamarkadaren hasieran, hiesa denon arazoa zela gogoratu zuen [= 80ko hamarkadaren hasieran gogoratu zuen].

⇒ Modu sotilean, emakume askok euren buruari egiten dizkioten galderak egiten dituzte aktoreek taularen gainean [= Modu sotilean egiten dituzte aktoreek galderak].

⇒ Modu sotilean emakume askok euren buruari egiten dizkioten galderak egiten dituzte aktoreek taula gainean [= Modu sotilean egiten dituzte emakume askok galderak].

Mendeko perpaus batzuk markatzeko ere koma erabiltzen da.

⇒ Hain da pisua, non hamar lagunek ezin jaso baitute.

⇒ Gezurra esango balu, segituan igarriko nioke.

⇒ Ama etorri zenean, isildu egin zen.

⇒ Lanean aritu zen, harik eta eguna argitu zuen arte.

⇒ IMHko museoa kalera aterako dute, Elgoibarren egiten zen lana erakusteko.

⇒ Berandu iritsi bazen ere, osorik ikusi zuen filma.

Mendeko perpausa esaldiaren erdian badago, koma pareak mugatzen ditu hasiera eta bukaera.

⇒ Beste batzuk hemengoak badira ere, ez dakite euskaraz. [ez da zuzena]

⇒ Beste batzuek, hemengoak badira ere, ez dakite euskaraz. [egokia]

Mendeko perpausa galdegaia bada, ez da jartzzen komarik.

⇒ Gezurra esan zidalako haserretu nintzen. [zergatik haserretu nintzen?]

⇒ Ama etorri zenean isildu zen. [noiz isildu zen]

Adierazpen perpaus osagarri edo konpletiboak ez dira bereizten halako komarekin esaldi nagusitik (*-ela*, *-enik*, zehar galderetako *-en*).

⇒ Arazoa oso larria dela, esan zuen. [ez da zuzena]

⇒ Arazoa oso larria dela esan zuen. [egokia]

⇒ Ez dakigu, etorriko den. [ez da zuzena]

⇒ Ez dakigu etorriko den. [egokia]

⇒ Ez dugu uste, etorriko denik. [ez da zuzena]

⇒ Ez dugu uste etorriko denik. [egokia]

Aditza isildua dagoenean, koma baliatzen dugu elipsia markatzeko.

⇒ Ermuaran-Sallobente, elgoibartarren helmuga nagusia.

⇒ Katxok Elgoibarko Banda zuzenduko du, eta Txomin Mujikak, Mutrikukoa.

⇒ Urkulluk adierazi du nabarmentzeko “joko hutsa” dela eta Madrazok, “nahasmendua” ekarriko lukeela.

[Alegia, Madrazok adierazi du nahasmendua ekarriko lukeela].

Azken esaldian, aditz isilduari dagokion koma –eta juntaturari dagokiona– kenduz gero, beste esanahi bat hartuko luke esaldiak.

⇒ Urkulluk adierazi du “joko hutsa” dela, eta Madrazok “nahasmendua” ekarriko lukeela. [Madrazok berak ekarriko luke nahasmendua Urkulluren esanetan]

Mintzagai-galdegai jokoa ere kontuan hartu behar da. Hala, galdegaiaren atzean ez da komarik jartzzen, nahiz eta aditza isildua egon.

⇒ Marek Janowsky poloniarrek zuzenduko du orkestra, eta Sainz Alfarok abesbatza.

⇒ Irabaztea helburu.

Helbideetan, kalearen eta zenbakiaren artean koma jartzzen da, bai eta zenbakiaren eta solairuaren artean ere.

⇒ Ermuaran-bide, 14, 2. esk.

⇒ Nafarroa plaza, 2, behea.

Hamarrenak komaz markatzen dira.

⇒ Cac 40 indizeak %1,71 irabazi du aste honetan.

### 3.5.6.3 noiz ez den erabiltzen

Mendeko perpausen barreneko komak, gehienetan, kendu egin behar dira.

⇒ Azkenaldian, gai beraren inguruan eztabaidatzen ari gara.

⇒ Azkenaldian gai beraren inguruan eztabaidatzen ari garela ezin dugu ahaztu.

⇒ Oroitarria jarri dute, eta eguerdian bertsoan jardun dute.

⇒ Ez dakigu oroitarria jarri duten eta eguerdian bertsoan jardun duten.

⇒ Hitz hori erabiltzen dugu, baina ez zaigu egokia iruditzen.

⇒ Argi esan nion hitz hori erabiltzen dugula baina ez zai-gula egokia iruditzen.

Galdegaiaren eta aditzaren artean, hobe komarik ez jartzea.

⇒ Mendaron, Azpilgoeta auzoan, egingo dute erakustal-

dia. [desegokia]

⇒ Mendaron egingo dute erakustaldia, Azpilgoeta auzoan. [egokia]

⇒ Azpilgoeta auzoan egin dute erakustaldia, Mendaron. [egokia]

Subjektuaren eta aditzaren artean ezin da koma bakarra jarri; koma pareak, berriz, bai.

⇒ Haizea taldeko bazkideek, 38 euro ordaindu beharko dituzte. [gaizki]

⇒ Haizea taldeko bazkideek 38 euro ordaindu beharko dituzte. [egokia]

⇒ Haizea taldeko bazkideek, joan ahal izateko, 38 euro ordaindu beharko dituzte. [egokia, koma parearekin]

⇒ Haizea taldeko bazkideek, ordea, 38 euro ordaindu beharko dituzte. [egokia, koma parearekin]

⇒ Elgoibarko Udal Musika Bandak, kontzertua eskainiko du domekan. [desegokia]

- Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan. [egokia]

⇒ Kiribil, irakaslearekin agertu da. [ez da zuzena]

⇒ Kiribil irakaslearekin agertu da. [zuzena da, baina gaizki uler daiteke. Kiribil irakaslea dela dirudi]

⇒ Irakaslearekin agertu da Kiribil. [zuzena]

-⇒ Alaba, gaztearekin ikusi dute. [ez da zuzena]

⇒ Gaztearekin ikusi dute alaba. [zuzena]

⇒ Arkaitz Iruretak, iraupen eskian zilarrezko bi domina lortu dituela nabarmendu du. [ez da zuzena]

⇒ Arkaitz Iruretak nabarmendu du zilarrezko bi domina lortu dituela iraupen eskian. [zuzena]

### 3.6.7. eten puntuak ...

#### 3.6.7.1. ezaugarri orokorrak

*Eta abar* erabiliz gero, alferrik da eten puntuak jartzea.

Harridura markarekin batera daudenean, eten puntuak harridura markaren ondotik jartzen dira esaldia osorik bada: (!...). Esaldia bukatu gabe badago, aurretik jarri: ...!

⇒ Zer egingo ote du!... Beldurrez airean gaude.

⇒ Jakin nahiko nuke, baina...!

Ondotik beste puntuazio markak izan ditza-kete, baina beste punturik ez. Aurretik, komarik, puntu eta komarik eta bi punturik ez.

Esaldi bukaeran badaude, ondoren letra larria idazten da.

⇒ Ikastola gertu dago, eta umeak ikaratuta ibili ziren... Harrokeria erakutsi zuten.

Esaldi erdi-erdian badaude, ondotik letra xehea.

⇒ Horrelako makina bat liburu zeukan etxean... harik eta lapurrek den-dena ostu zioten arte.

#### 3.6.7.2. noiz erabiltzen diren

Enumerazioa ez dela bukatu adierazteko erabiltzen dira.

Komarik ez da jartzen eten puntuen aurretik:

⇒ Azken urteotan bizi izandako gertaerak kontatuko dizkiote elkari: ikasketak, familia, maitasuna, lan mundua, haurdunaldiak, seme-alabak...

Osagai bakarrekoak ezin dira enumerazio-tzat hartu, eta, beraz, horrelakoetan ez da egokia eten puntuak erabiltzea:

⇒ Guztiak daude euskararen alde, baina desadostasunak sortzen dira epeak... zehaztean. [gaizki]

⇒ Guztiak daude euskararen alde, baina desadostasunak sortzen dira epeak-eta zehaztean. [ondo]

Ez erabili galdegaiak denean: horrelakoetan, hobe *eta beste, eta abar, -eta* idaztea.

⇒ Bibliako pasarteak, egunkarietakoak, telefono konpainiak bidalitako gutunetatik ateratakoak, bidean entzundako elkarrizketak... txertatzen zituzten poemetan, eurenak balira legez. [ez da egokia]

⇒ Bibliako pasarteak, egunkarietakoak, telefono konpainiak bidalitako gutunetatik ateratakoak, bidean entzundako elkarrizketak eta abar txertatzen zituzten poeme-

tan, eurenak balira legez. [egokia]

⇒ Bibliako pasarteak, egunkarietakoak, telefono konpainiak bidalitako gutunetatik ateratakoak, bidean entzundako elkarrizketak-eta txertatzen zituzten poemetan, eurenak balira legez. [egokia]

Nahita pentsamendu bat edo esaldi bat bukatu gabe laga dela seinalatzeko ere erabiltzen dira.

⇒ Hala egin behar ei da, baina...

⇒ Badakizu zer esaten den horrelakoetan: errementariaren etxean...

Harridura edo zalantza adierazten dute batzuetan.

⇒ Ez dute argitu lan taldeari eutsiko dioten...

Hitzez hitzeko aipuetan zerbait falta dela adierazteko erabiltzen dira, parentesi zuzen artean jarrita.

### 3.6.8. parentesiak eta marra luzeak

#### 3.6.8.1. ezaugarri orokorrak

Bai parentesiek eta bai marra luzeek eten egiten dute diskurtso nagusia, eta beste unitate bat gehitzen, datu osagarriak eransteako.

Neurriz erabiltzekoak dira: testua etenez

betea badago, errazago da irakurleak haria galtzea.

⇒ Zapatuan (20:30) elkarren aurka jardungo dute [desegokia]

⇒ Zapatuan elkarren aurka jardungo dute (20:30) [egokia]

Izen sintagma barruko etenik, ahal dela, ez da egin behar.

⇒ Nilo Cruz (Matanzas, Kuba, 1961) antzerkigileak Pulitzer saria irabazi zuen 2003an.

⇒ Nilo Cruz antzerkigileak (Matanzas, Kuba, 1961) Pulitzer saria irabazi zuen 2003an.

#### 3.6.8.2. parentesia ( )

Datu solte argigarriak gehitzeko erabiltzen dira: herrialdea, kopurua, jaioteguna, jatorrizko izenburua, enumerazioak, siglak...

⇒ Txapelketa hurrengo barixakuan hasiko da, tolosan (22:30 ETB1).

⇒ 36ko Gerran hildako gizon baten gorpua topatu dute Madariagan (Azkoitia).

Parentesi barrenean beste parentesi bat jarri behar izanez gero, marra luzeek baliaturik, honela jardungo dugu.



⇒ Andrew Niccollek –*Simone* (2002)– zientzia fikziozko film biribila egin zuen.

### 3.6.8.3. marra luzeak

Datu solteetatik haragoko tartekiak marra luzez mugatzen dira.

⇒ Aurten diru gutxi –30.000 euro– batu duela uste du Gemma Agirregomezkortak.

Koma arteko tartekietan beste tarteki moduko bat egiteko egokiak dira.

⇒ Berdintasun plana egiteko lehen puntua diagnostikoa zen, eta urte hartan egin zuten Elgoibarkoa: alde batetik Udalekoa –joan den astean aurkeztu zuten–, eta bestetik herrikoa.

Bi puntuen baliokideak dira batzuetan. Bi puntuak esaldi amaieran egon ohi dira, eta marra luzeak, berriz, tartean.

⇒ Lan arloan baldintza batzuk sortu behar dira –emakumeek lanean aritzeko aukerak izatea, partaidetza handitzea eta desberdintasunak gutxitzea–, planaren arabera.

### 3.6.9. parentesi zuzenak [ ]

Adierazpenetan, parentesi zuzenetan idazten dira kazetariak argigarri gehiturikoak.

⇒ “Betiko lekuan [Plaza Handian] agertzeko deia egiten dugu”.

Hemeroteketan-eta, parentesi zuzenak eta eten puntuak erabiltzen dira testuaren zati bat falta dela adierazteko.

⇒ Edonork gogoratuko ditu orduantxe, Europan behintzat, guztiz nagusiak ziren bi sentipenak [...]: harridura eta errezeloa.

### 3.6.10. galdera marka ? eta harridura marka !

Marka hauek eurekin dakarte etenaldia, eta, beraz, ondotik ez da punturik edo komarik erabili behar. Salbuespena: marka arteko aipu bat edo letra etzanez idatziriko izenburu bat galdera edo harridura markaz bukatzen bada, bukaeran puntua jartzen da.

⇒ Garbi mintzatu zen: “Prest gaude lanean hasteko. Bai horixe!”.

⇒ Horretarako antolatu dute *Plazara!*.

Marka eta aurreko hitza elkarren segidan idatziko dira, tartean zuriunerik laga gabe.

Bi galdera marka edo bi harridura marka segidan egokituz gero, bakarra idazten da:

⇒ Nork irakurri du *Non dago Stalin?*

### 3.6.11. zehar marra /

Poema eta bertsoetako lerro banaketa adierazteko erabiltzen da. Zuriunea aurretik eta atzetik laga behar da.

⇒ Begiratzen dut gogoan, / bizitza nola badoan, / nere herrikoen soa / perla sortu izerdia / ardoan galdu basoa / eta erran hitzerdia.

Legeen izenetan ere jartzen da.

⇒ 17/1895 legea

Zenbait laburdura eta sinbolo elkartzen ditu.

⇒ z/g [zenbakirik gabea]

⇒ km/h [kilometro orduko]

Binakako pilota partiden berri emateko erabiltzen da, infograma edo koadroetan.

⇒ Ariznabarreta-Gorriti / Antxia-Armendariz

### 3.6.12. aipu markak “ “

Hitzez hitzezko adierazpenak eta aipuak txertatzeko balio dute: bai hitzak, bai esaldi zatiak eta bai esaldi osoak.

⇒ “Bi dominekin pozik itzuli naiz etxera”, adierazi du Iruretak.

Dokumentuen pasarteak ematean, bi paragrafo edo gehiago izanez gero, marka jartzen da paragrafo hasieran.

### 3.6.13. aipu marka bakunak ‘ ’

Adierazpenen barruan beste inoren hitzak markatzeko, aipu marka bakunak erabiltzen dira.

⇒ Garbi esan zuen Agirrek: “Oso haserre nago jokalariekin, ‘joan hadi hemendik’ oihukatu baitzidaten entrenamenduan”.

Era berean, inork bere artean esanikoa aipu batean txertatzeko erabiltzen da.

Tituluetan, azpituluetan eta leihoetan, aipu marka bakunez bereizten ditu BARRENEk testuan letra etzanez idazten direnak.

### 3.6.14. hitz elkartuak: aukeran, marra gabe

Zenbait hitz elkarturen kasuan, marrarik edo marra gabe idazteko aukera ematen digu Euskaltzaindiak (25. araua).

Marrarekin edo bereiztuta idatz daitezkeen hitz elkartuak bereiztuta emango ditugu BARRENEk, marrarik gabe.

⇒ Eguzki lore, arau proposamen, gizarte bizitza, osasun egoera, arazo iturri, kale garbitzaile, bide urratzaile, soi-

nu jole, eguraldi iragarle... [BARRENen bai]

⇒ Eguzki-lore, arau-proposamen, gizarte-bizitza, osasun-egoera, arazo-iturri, kale-garbitzaile, bide-urratzaile, soinu-jole, eguraldi-iragarle... [BARRENen ez]

Marrarekin edo lotuta idatz daitezkeen hitz elkartuak elkartuta emango ditugu BARRENen, marrarik gabe.

⇒ Sudurluze, burusoil, ahobero, puntazorrotz...

[BARRENen bai]

⇒ ⇒ Sudur-luze, buru-soil, aho-bero, punta-zorrotz...

[BARRENen ez]

# 4 ortotipografia

#### 4.1. kazetaritza estetika eta ortotipografia

Testuak egoki idatzi, zuzendu eta aurkezteko erantzukizuna dute hedabideek. Hortaz, irakurgarriak eta erakargarriak izan behar dute.

√ **Tipografia egituratua duen orrialdeak gaitasuna du irakurlea erakartzeko.** Irakurleak goitik behera eta ezkerretik eskumara arakutzen du orrialdea.

Horregatik lerrokatzen dira ezkererantz edo erdirantz tituluak eta azpituduluak.

√ **Elementu tipografiko batzuek irakurlearen begia erakartzen dute.** Horrexegatik idazten dira, oro har, tituluak eta sarrerarik letra zabalagoekin.

√ **Irakurlearen atentzioa erakartzeko, elementuak tentuz erabili eta konbinatu behar dira:** kolorea, testuaren dentsitatea, argazkien tamaina, letra tipoa, letraren tamaina, zuriuneak, lerro artea...

√ **Prensa idatzian hauek dira puntu erakargarrienak:** eskumako orrialdearen eskuma goialdea eta ezkerreko orrialdearen ezker goialdea. Toki horietan jarriko ditugu irakurleak irakur ditzan bereziki interesatzen zaizkigun gaiak.

√ **Ilustrazioa edo argazkia zenbat eta handiagoa izan, errazago erakarriko ditu**

**irakurleak,** oro har. Baina justifikatuta egon behar du tamaina handiak: gaiaren garrantzia, edukiaren esanahia, edertasun estetikoa...

#### 4.2. letra etzana

##### 4.2.1. zertarako

Letrak, berbak, esaldiak edo testu zatiak nabarmentzeko erabiltzen da. Testu osoa letra etzanez idatzita badago, aipu marka bakunez bereizten dira bestela etzanez idatzi beharrekoak.

##### 4.2.2. etzanez idaztekoak

Honako hauek etzanez idatzi behar ditugu:

###### 4.2.2.1. izenburuak

√ **Liburuak, tesiak, ikerlanak eta komikiak; eleberrien atalak, ipuinak eta poemak:** *Maldan behera* poema; *Obabakoak*.

Salbuespena: erlijioen testu santuak eta kodiizeak: Biblia; Korana; San Joanen Ebanjelioa.

Liburu bildumak ere letra arruntez: Sail Beltza eta Enigma bildumak; Zerberri; Bidegileak.

√ **Egunkariak, aldizkariak, egunkarietako eta aldizkarietako artikulua:** *Berria; Noaia; D eredua: oraingoz beste aukerarik ez artikulua.*

√ Ikus-entzunezkoak eta multimedia produktua: antzezlanak, filmak, irratiko eta telebistako saioak, telesailen sailak: *Lentas pero seguras* antzezlanak; *Kalaka* saioa.

√ **Musika lanak:** abestiak, diskoak, ereserkiak, operak eta beste: *Lau teilatu* abestia; *Jaiotze basatia* diskoa; *Els segadors* ereserkia; *Carmen* opera.

√ **Artelanak:** margolanak, eskulturak, argazkiak, instalazioak eta abar, baina ez arkitekturen lanak, toponimo bihurtu diren neurrian: *Esencia* erakusketa; *Ikarro* eskultura.

√ **Erakusketa, hitzaldi eta mahai inguruak:** *Emakumeen jabekuntzarako jendarte trebetasuna* hitzaldia; *Kooperatiben oraina eta geroa* mahaingurua.

√ **Biltzarren izen espezifikokoak:** *Parekidetasunetik kultura eraiki* topaketak.

Baina izena deskriptiboa bada, ez da letra etzanez idazten: *Gazte Hizkerari buruzko Biltzarra*; *Artista Gazteen Topaketak*.

√ **Leloak** (publizitate kanpainak, hauteskunde kanpainak, manifestazioetarako deialdiak eta pankartak...). *Bai euskarari lema*; *Lan istripurik ez lema*.

√ **BARRENen atalen izenak:** *Berbetan* atala.

√ **Euskaratu gabeko liburu eta filmak aipatzean** jatorrizko izenburuarekin batean itzulpena ematen denean, jatorrizkoa etzanez idazten da, eta itzulia arruntez: *Film zoragarria* da *The Birds* (Txoriak).

#### 4.2.2.2. goitzenak eta familia izendatzeko baserrien izenak

Izen-abizenen ondoan daudenean, letra etzanez idazten dira. *Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegia*; *Felix Etxeberria Parapan*; *Juan Izagirre Upai*; *Jon Garate Katalo*.

Bestela, letra arruntez idazten dira, betiere goitizena ez bada arrunkeria edo gordinkeria. Arrunkeria den kasuetan izen-abizenak baino ez dira emango argitara, baina goitizena kaleratzea beharrezkoa bada, beti etzanez idatziko da.

⇒ *Katxok bandan segituko du.*

Baina:

⇒ *Mikel Gorritiberea Oztopo.* [beharbada ez da errespetuzkoa]

Izen txikigarriak ez dira goitzenak. Beraz, letra arruntez idatziko dira:

⇒ *Luitxo Fernandez*; *Montxo Armendariz*; *Fran Lasuen*;

Txetu Rojo.

Errege-erreginen, aita santuen eta santuen goitizenak, beti letra arruntez: Alexandro Handia; Antso Jakituna.

Artista eta kirolarien izen ezaguna goitizen eta abizenaz osatzen denean, letra arrunta erabili behar da: Magic Johnson.

#### 4.2.2.3. zenbait izen berezi

√ **Mota guztietako ibilgaluei jarritako izen bereziak** (itsasontziak, hegazkinak, trenak, sateliteak, aireontziak...). *Titanic*; *Sputnik*; *Nautilus*; *Prestige*...

Baina marka eta modeloak letra arruntez: Opel Zafira; Boeing 747.

√ **Birus informatikoen izenak eta Interneteko helbideak eta helbide elektronikoak.** *Downadup* birusa; <http://www.elgoibarren.net> ataria; [jesumari@elgoibarkoizarra.com](mailto:jesumari@elgoibarkoizarra.com) helbidea.

Baina programa informatikoak, letra arruntez: Photoshop.

√ **Animaliei jarritako izen bereziak:** *Mimi* astoa; *Txuri* txakurra.

√ **Animalien eta landareen latinezko izen zientifikoa** (generoa eta azpigeneroa letra

larriz, eta espeziea eta subespeziea xehez). *Sambucus nigra*; *Canis lupus familiaris*.

√ **Urakan eta bestelako natur fenomeno-  
ei jarritako izen bereziak.** *Katrina* urakana; *El Niño* fenomenoa.

√ **Objektuei jarritako izen bereziak**, hala nola kanoiei, ezpatei, ezkilei, harriari eta diamantei emanikoak. *Excalibur* eta *Tizon* ezpatak; *Rosita* kanoia.

√ **Auziak, eskandaluak eta operazio militarrak** izendatzeko modu arrunta:

⇒ *Malaya* auzia; *Atutxa* auzia; *Ostadar* operazioa.

Baina: *Atutxaren* auzia.

√ **Lege, plan eta batzordeen izen laburtuak, egilearen edo sortzailearen izenez osatuak:** *Ibarretxe plana*; *Delors* batzordea.

√ **Eskaladako bideei jarritako izen bereziak.**

⇒ *Tas-Tas* bidetik igotzen ahalegindu zen.

#### 4.2.2.4. metahizkuntza eta matematikak

√ **Metahizkuntza:**

⇒ Damutu zaio *herritar* hitza ez erabiltzea.

⇒ *Ahalegindu* esan diezun arren, *saiatu* idazten dute

kazetari askok, eta *jaramon* egin esan eta *kasu* egin idatzi.

√ **Formula matematikoetako** testu atalak izendatzen dituzten letra xeheak:

⇒ jo dezagun  $x + y = z$  dela.

⇒ Legeak *b* eta *c* paragrafoetan dioena gogoratu du.

Formula kimikoak letra arruntez:  $H_2O$ ,  $CO_2$ ...

#### 4.2.2.5. beste hizkuntzetakoak

√ **Euskarak bere egin gabeko maileguak:**  
*apartheid; thriller; cum laude.*

√ **Beste hizkuntzetan idatziriko esaldiak:**

⇒ Elgoibarren ere *yes, we can* aldarria entzun ahal izan da.

Baina badira nazioarteko zenbait esamolde, batez ere tituluetan erabiliak, letra arruntez idatzi beharrekoak.

⇒ Gotzon Garate, *in memoriam*

⇒ Gaztetxea versus lokalak.

√ **Ironiaz idatziriko hitzak:**

⇒ Inkisizioaren ordezkoa da hark gidatu duen

*ministerioa.*

√ **Hitzaren betiko esanahia aldatu-rik idatzitakoa.** *Txapapera* botatzea gauza arrunta da gazteen arteko sexu harremanetan.

#### 4.2.2.6. nola deklinatu

Deklinabide atzizkia letra arruntez idatziko dugu, eta marratxoz lotuko diogu hitzari. *Noaia*-ko artikulua; *Berria*-ko kazetaria.

Izenburuak deklinatzean, ahal dela hobe da ondotik hitz bat jartzea eta hura deklinatzea. *Obabakoak* liburuko ipuina.

Deklinatu beharrik ez izateko, jakina, absolutiboan jartzea da onena, (nor kasuan), baina ezina da beti horrela jokatzea.

Salbuespenak: bestelako adiera edo ironia adierazten duten euskal berbak; auziak eta eskandaluak izendatzeko modu arrunta; lege, plan eta batzordeen izen laburtuak; eta zenbaki erromatarra duten goitizenak eta ontzi izenak. Horrelakoetan, deklinabide atzizkia ere etzanez idazten da.

⇒ *Porruak* erre zituzten; *Ibarretxe planak* porrot egin du; *Watergate* auziaren oihartzuna ez da itzali oraindik; Maria-no Juaristik, *Atano III.ak*, txapelketa asko irabazi zituen; Ana Maria Gonzalez Garate *Habanan* ontziratu zen.

#### 4.2.2.7. tituluak eta beste informazio



elementu bereziak

Titulu, azpítitulu, goítitulu, tarteko titulu eta leihoetan, letra arruntez eta aipu marka bakunen artean idazten dira testu barrenean etzanez idatzi beharrekoak.

⇒ ‘Condor operazioagatik’ ez auzipetzea erabaki du epaileak.

⇒ ‘Axeri-boda’ ikuskizuna ekarriko du Haritz taldeak Herriko Antzokira.

### **4.3. letra larria, xehea, eta maiuskula txikia**

#### **4.3.1. zertarako letra larria**

Mota bateko letra larriek testu edo esaldi hasiera markatzen dute.

Beste mota batzuetakoek, berriz, izen edo izendapen bereziak markatzen dituzte, eta berezkoak direnez, beti jartzen dira maiuskulaz, esaldian dauden tokian daudela.

#### **4.3.2. letra larria, tokiaren arabera**

√ **Testu hasieran eta paragrafo hasieran.**

√ **Puntuaren ostean.**

√ **Galdera eta harridura marken eta hiru**

**punturen ondoren**, puntuaren funtzioa ere betetzen dutenean. Esaterako:

- Ederra zen, bada! Inor ez zen ausartzen ezertxo ere esaten.

- Zergatik egin nuen? Bada, barrenak eskatu zidalako. Horrela jokatzu gero, ez dago irabazterik... Nolanahi ere, liga hasi besterik ez da egin.

**Baina:**

- Opari bikaina da... ezer gutxi behar duenarentzat.

- Arrazoi duzu, bai horixe!, eta nekez azalduko du inork hobeto.

- Denbora-pasa ederra da...: nik ez dut besterik egin azkenaldian.

√ **Bi puntuen ostean, sailkapen, kronologia edo taula modukoetan.** Esaterako:

⇒ Otsailak 22: Alegazioak jartzeko epea amaitu zen. Uztailak: 15 Arazorik ez bada, behin betiko onartuko da uztailean.

√ **Bi puntuen ostean, aipu marken barruko adierazpena badator:**

⇒ Iruretak probako giroa nabarmendu du: “Denok ezagunak gara, eta oso giro ona egoten da gure artean. Horregatik pena ematen dit lagatzeak.”

Baina bi puntuen atzetik gure diskurtsoan

segituz gero, letra xehez.

⇒ Eskola hori hamar eta hamabi urte bitarteko gaztetxoentzat izango da: bai elgoibartarrentzat, bai inguruko herrikoentzat ere.

### 4.3.3. letra larria, izen nagusiak markatzeko

4.3.3.1. pertsona izenak, egiazkoak zein alegiazkoak

#### √ **Pertsona baten izenak eta gaitzizenak.**

Baina deiturretarako artikulak eta preposizioak (*de, del, de la, d'*) minuskulaz. Esaterako: Antso Azkarra; Martinez de Ortuzar; Eça de Queiros; Charles de Gaulle; Vincent van Gogh; Lars von Trier.

Badaude salbuespen batzuk, hala nola italiar abizenetako artikulak eta preposizioak: Brian De Palma; Robert De Niro; Danny DeVito; Leonardo DiCaprio. Dena dela, aurretik izenik ez badute, preposizioa beti larriz: Van Gogh; De Gaulle; Von Trier.

#### √ **Santuen izenetan eta erlijiosoen izenetan:**

San Bartolome, Aita Donostia, Ahizpa Lurdes, Santa Klara.

#### √ **Jainko-jainkosak, mitologia eta alegiazko heroi eta pertsonaiak:**

Jainkoa; Ala; Atenea; Olentzero; Herkules; Akerbeltz.

Baina alegiazko pertsonaien izen kolektibo-

ak, letra xehez: lamiak; prakagorriak; musak; zentaurorak; sirenak; amazonak; nibelungoak.

### 4.3.3.2. animaliak

√ **Animaliei jarritako izen bereziak:** *Mimi, Pintxo, Lur*. Animalia arrazak, ordea, minuskulaz: setter, chihuahua.

Animalien eta landareen izen zientifikoetan, lehen berba larriz (generoa eta azpigeneroa larriz), eta espeziea eta subespeziea minuskulaz:

⇒ Malaria zabaltzen du *Anopheles gambiae* eltxoak.

⇒ Hori guztia *Homo sapiens*-a agertu aurrekoa da.

### 4.3.3.3. lekuak

Leku izenetan, letra larriz hitz guztiak, tarteko artikulak eta preposizioak izan ezik. Los Angeles; Santa Eulalia del Riu; Aix-en-Provence; Ille de France.

Generikoa minuskulaz idazten da, izen bereziaren parte ez bada. Esaterako: Mediterraneo itsasoa; Deba ibaia; Bilbo hiria. Baina: Itsaso Gorria; Indiako Ozeanoa; Ozeano Barea.

Administrazioko egitura politikoak: Nafarroako Foru Erkidegoa; Pirinio Atlantikoetako Departamendua.

Errealitate historiko eta geopolitikoak. Esa-

terako: Estatu Batuetako eta Mendebaldeko kulturen menpeko ikusten zuen Japonia.

Leku izenetatik eratorritako aditzak, baina ez herritar izenak. Esaterako: Euskal Herriratu, Espainiaratu, Elgoibarreratu. Baina: nafarra, elgoibartarra, frantziarra.

Herri eta hiri-tako toponimoak, eraikinak, gelen izen bereziak. Generikoa minuskulaz idazten da, ez bada izen bereziaren parte. Esaterako: Petrona dorreak; Nafarroa plaza; Errosario kalea; Barakaldoko antzokia; Olaizaga kiroldegia; Inazio Bereziartua musika eskola; Arte Ederretako museoa. Baina: Dorre Bikiak; Plaza Handia; Plaza Txikia.

Itzultzen ez diren atzerriko toponimoak: Downing Street; Times Square.

#### 4.3.3.4. argizagiak

Planetak, satelliteak, izarrak, konstelazioak eta zodiakoa.

⇒ Saturno; Marte; Artizarra; Aries.

⇒ Eklipse ikusgarria izan zen atzo: Ilargia Lurraren eta Eguzkiaren artean igaro zen.

Baina: Jupiterren ilargi bat da lo.

⇒ Gaur eguzkiak ez du askorik joko.

#### 4.3.3.5. erakundeak eta taldeak

Esaterako: Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernua; Elgoibarko Udala; Ekonomia Ministerioa; Gipuzkoako Foru Aldundia; Elgoibarko Eskubaloi Eskola; Zuzenbide Fakultatea; Legebiltzarreko Mahaia.

Erakundeak ofiziala ez den moduren batean izendatzen direnean, minuskulaz idatziko dira: Madrilgo gobernua; Iruñeko gobernua; Lopezen gobernua.

Erakundeak pluralean edo adjektibo erakusle batekin agertzen direnean, minuskulaz. Esaterako: Euskal Herriko Unibertsitatea; Mendaroko Udala. Baina: unibertsitate hori; Hitzarmena udalek izenpetu dute.

Kasu berezi bat: Eliza erakundea aipatzean, larriz joango da beti, nahiz eta adjektiboa erantsi. Esaterako: Eliza katolikoa; Eliza ebanjelikoa. Baina eraikinez ari garenean, xcehez: San Bartolome parrokia, San Pedro basiliza.

Taldeen izena larriz idatziko dugu, eta jarduna txikiz. Haritz taldea; Haritz dantzari taldea; Taupada antzerki konpainia; Elgoibarko Izarra kultur elkarteak; Karakate mikologia elkarteak; Haizea emakume taldea.

#### 4.3.3.6. ekitaldiak

√ **Gizarte, kultura eta kirol ekitaldi eta egun bereziak**, berba guztiak maiuskulaz (jardunaldiak, literatura eta arte jaialdiak, kirol

txapelketak...)). Esaterako: Soinu Zahar eta Aurreku Txapelketa; Gay eta Lesbianen Nazioarteko Eguna; Aberri Eguna; Eskuz Banakako Txapelketa; Juan Mugerza Nazioarteko Kros Txapelketa; Nazioarteko Xake Txapelketa; Nazioarteko Folklore Jaialdia. Baina: txapelketa gogorra; Euskal Bizikleta proba; Roland Garros tenis lehiaketa.

√ **Sariak.** Kontuan hartu *sari* berba larriz idazten dela, izenaren parte denean, eta minuskulaz, hala ez denean. Esaterako: Kritikaren Saria. Baina: Oscar sariak; Emakunde sariak; Ricardo Arregi saria, Idarraga sariak.

#### 4.3.3.7. izenburuak

√ **Argitalpen, dokumentu eta artelanen izenak,** lehen berba larriz (liburuak, antzezlanak, telesailak, artelanak, telebista eta irrati-ko saioak, filmak, CD-ROMak...). Esaterako: *Elgoibar koloretan, Hitzetik hortzera, Haur besoetakoa.*

Baina egunkariak, aldizkariak eta liburukiz osaturiko hiztegi, gramatika, entziklopedia eta abar, hitz guztiak larriz: *Orotariko Euskal Hiztegia; Euskaldunon Egunkaria; Le Mond; El Pais; Noticias de Gipuzkoa, Eta Kitto!*

√ **Ingeleszko izenburuetan,** berba guztiak larriz, gramatika hitzak izan ezik. Esaterako: *Hard to Kill.*

√ **Liburu bildumak:** hitz guztiak larriz. Esate baterako: Enigma eta Sail Beltza bildumetako

lau liburu kaleratu dituzte.

√ **Erakusketa, berbaldi, tailer, mintegi eta mahai-inguruak,** lehen berba maiuskulaz. *Emakumeen jabekuntzarako jendarte trebetasuna tailerra.*

√ **Biltzar eta jardunaldien izen deskriptiboetan,** berba nagusiak larriz: Artista Gazteen Topaketak; Gazte Hizkerari buruzko Biltzarra. Baina izen espezifikoeetan, lehen hitza bakarrik larriz: *Orain da garaia biltzarra; Parekidetasunetik kultura eraiki topaketak.*

#### 4.3.3.8. agiriak

√ **Hitzarmenak, agiriak, planak, egitasmoak.** Kontuan izan itun, agiri, plan, egitasmo hitzak larriz idazten direla izenaren parte direnean, eta xehez, ez direnean. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia; 2007-2011 Legealdi Plana; Kyotoko Protokoloa; Trentoko Kontzilia. Baina: *Erasmus egitasmoa; Nunca Mais* agiria.

√ **Arauek eta agiri ofizialak:** oro har, letra larriz idazten dira.

⇒ Zigor Kodea; Gizarte Eskubideen Agiriaren Legea; Ingurumena Babesteko Lege proiektua.

Dena dela, legeen atalak minuskulaz idazten dira. Europako Konstituzioko VII. Tituluan ageri dira lan-  
kidetza indartuari buruzko xedapenak.

Arau eta agiri ofizialen izenak luzeak direne-

an, sei hitz nagusi arte letra larriz hasita idatziko dugu. Hortik gora (zazpi hitz edo gehiago), arauaren edo agiriaren lehenbiziko hitza letra larriz hasita idaztea proposatzen da, baita arau motaren beraren izena ere –Legea, Dekretua...–;

⇒ Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foruzko jardute-erakundeen arteko harremani buruzko Legea.

⇒ Euskadiko Gas Baltzuaren kapital-gehitzeari erantzuteko berariazko diru-izendapen bat egiteari buruzko Legea.

#### 4.3.3.9. historia

√ **Aro, aldi eta gertakari historikoak; mundu gerrak.** Berba guztiak larriz idazten dira:

⇒ Erromako Inperioa; Erdi Aroa; Frantziako Iraultza; Errusiako Iraultza; Bigarren Mundu Gerra; Bigarren Errepublikak; Pragako Udaberria; 68ko Maiatza, Kultura Iraultza, Karlismaldia, Bergarako Hitzarmena, Maastrichteko Ituna.

**Baina:** leinu-gerrak, erlijio-gerrak, familia-itunak, karlistaldiak.

√ **Erljioari lotutako aldi eta egunak:** Bazko; Mendekoste; Aste Santua; Gabonak.

#### 4.3.3.10. ikasgai, ikastaro eta ikasketak

⇒ Ikus-entzunezko komunikazioa izango da ikasketa berria.

⇒ Informazioaren Segurtasuna ez da master erraza.

#### 4.3.3.11. markak eta modeloak

Autoak, motoak, hegazkinak, espaziontziak eta ibilgailuak, oro har, eta bestelako marka komertzialak. Ford Scort bat; Boing 707 hegazkina.

Marka batzuk arrunt bihurtu dira, generiko, eta hiztegietan agertzen dira. Kasu horietan, xehez idatziko dugu eta grafia moldatzeko aukera izango da:

⇒ Atzo aspirina bat ekarri nizun

⇒ Bazkaldu aurretik koca-kola bat hartu dut.

⇒ Zelofan zati bat erabiliko dugu.

#### 4.3.4. letra xehea (minuskula)

Hona hemen zalantza sortzen duten zenbait kasu, denak ere minuskulaz idaztekoak:

√ **Herritar izenak:** elgoibartar; mendaroar; azpeitiar; europar.

√ **Puntu kardinalak:** Kenyako ipar-ekialdea;

Malaysiako hegoaldea; Lapurdiko iparraldea.

√ **Karguak:** aita santua; dalai lama; erregea; erregina; lehen ministroa; Ekonomia ministroa; lehendakaria; ahaldun nagusia; Hezkuntza sailburua; alkatea.

√ **Noblezia tituluak:** Urbiaingo markesa; Merteuilko markesa.

√ **Familia, leinu eta dinastien izenak:** agaramontarrak; agirretarrak; borboitarrak. Baina: Ming dinastia; Agirre familia; Filipe Borboikoa.

√ **Herrietako jaiak:** sanbartolomeak; sanferminak; sanpedroak. Baina: San Bartolome jaiak; San Fermin jaiak.

√ **Otoitzak:** aitagurea; kredoa.

√ **Arte, ideologia eta kultur mugimenduak:** marxismoa; surrealismoa; dadaismoa. Baina orokorragoak izanik aldi historikoa ere adierazten dutenak, larriz: Erreforma; Errenazimentua; Erromantizismoa; Ilustrazioa.

√ **Musika notak:** do; mi; si.

√ **Zientzia arloak eta diziplina akademikoak,** oro har, baina ez katedra, fakultate edo institutu jakinak: Aditua da zuzenbide zibilean; Liburu bat argitaratu du informatikari buruz.

√ **Hezkuntza zikloen izen generikoa:** lehen maila; bigarren zikloa. Baina izen berezia denean, larriz: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

√ **Mahats motak:** cabernet sauvignon, chardonnay, tempranillo.

√ **Koktelak eta antzeko edariak:** Ezer esan aurretik, manhattan bat edan zuen.

Hiriei-eta ematen zaizkien izendapenak, generiko deskriptiboak direnean: argiaren hiria (Paris); kontinente zaharra (Europa). Baina: Sagar Handia (New York).

#### 4.3.5. maiuskula txikia

Maiuskula txikia BARREN astekariaren izena idazteko erabiltzen da. Izan ere, egunkari eta aldizkariak beren burua izendatzeko erabiltzen da maiuskula txikia. Dena dela, tituluetan, letra larri arruntez idazten da BARRENen izena.

BARRENen atari digitala honela idatziko dugu paperean: [elgoiBARREN.net](http://elgoiBARREN.net)

#### 4.3.6. letra lodia

BARRENen ez da ohikoa letra lodia erabiltzea.

Erredakziora iritsitako gutun eta kolaborazioetan, letra lodiz nabarmendutako hitzak, letra arruntez jarriko ditugu beti.

#### 4.3.7. kapitularra

Kapitularra duten paragrafoetan, testuak hizki kapitularra inguratu egin behar du, albotik eta behetik. Beraz, hiru lerroko kapitularrak dauden paragrafoetan, gutxienez bost lerroko testuak egon beharko du; lauko kapitularretan, berriz, seikoa.

Artikulu hasieran kapitularra badago, eta testuko lehen hitza aipu markarekin hasten bada, kendu egingo zaio.

Kapitularrez nabarmendu behar den berba letra etzanez badoa, kapitularra ez da etzanez idatziko.

Kapitularra zenbakia ez izatea komeni da.

Kapitularra I hizkia ez izatea komeni da.

### 4.4. zenbakiak

#### 4.4.1. zenbakiak nola idatzi

Hona hemen zenbakiak deklinatuta:

⇒ 1a, 1ean, 1etik; 2a, 2an, 2tik; 3a, 3an, 3tik; 4a, 4an, 4tik; 5a, 5ean, 5etik; 6a, 6an, 6tik; 7a, 7an, 7tik; 8a, 8an, 8tik; 9a, 9an, 9tik; 10a, 10ean, 10etik; 11, 11n, 11tik.

#### 4.4.2. egunak, urteak, hamarkadak, mendeak, kronologiak

##### 4.4.2.1. egunak

Zifraz idazten dira, baita jai edo historiako gertakari baten izena badira ere. Martxoaren 8a; maiatzaren 28a. Salbuespen bakarra dago: Maiazaren Lehena.

##### 4.4.2.2. urteak

Milako punturik gabe idazten dira.

⇒ 2010ean [ondo]

⇒ 2.010ean [gaizki]

Atzetik *urte* hitza badute, *-garren* adierazten duen puntua idatzi beharra dago. 2010. urtean; Kristo aurreko 45. urtea.

Urteak osorik idazten dira:

⇒ 1978ko udazkena [egokia]

⇒ 78ko udazkena [gaizki]

Baina: Kilometroak 09; 36ko Gerra.

##### 4.4.2.3 data osorik

BARRENen, urtea zifraz idazten da beti, hila, beti letraz, eta eguna beti zifraz:

⇒ 2012ko abenduaren 21a [ondo]

⇒ 2012-XII-12 [gaizki]

#### 4.4.2.4. ikasturteak, kiroletako denboraldiak eta beste

Aurreneko urtea osorik idazten da eta bigarre-na laburtuta: 2009/10 denboraldia. 2007/08 ikasturtea.

Baina mendea amaitzen den kasuetan, osorik joan behar dute bi zenbakiek: 1999/2000 ikasturtea; 799-845. urteak.

#### 4.4.2.5. hamarkadak

Zifraz ematen dira beti, -ko loturarekin.

⇒ 1980ko hamarkada edo hamarraldia; 80ko urteak.

[ondo]

⇒ 1980. hamarkada [gaizki]

⇒ 80. hamarkada [gaizki]

#### 4.4.2.6. mendeak

Erromatarrez idazten dira ordinala adierazteko puntuarekin.

#### 4.4.2.7. kronologiak

Honela jokatuko dugu:

⇒ 1912ko abuztuaren 25a: Kuomitang sortu zuten.

⇒ 1921eko martxoa: Txinako Alderdi Komunista sortu zuten.

#### 4.4.3. orduak

√ **Osorik zifraz idatzi behar dira, bestela osorik letraz.**

Zifraz adierazten ditugunean, bi punturekin idatzi behar dira, *goizkeo*, *gaueko* eta gisakorik gabe.

Letraz idazten ditugunean, egunaren zatia zehaztu behar da, testuinguruak argitzen ez badu: goizaldeko, goizeko, eguerdiko, arratsaldeko, ilunabarreko, gaueko...

⇒ 10:00etan. [BARRENeN ondo]

⇒ goizeko hamarretan. [BARRENeN ez]

⇒ goizeko 10:00etan. [BARRENeN ez]

⇒ 20:15ean; iluntzeko zortzi eta laurdenetan; iluntzeko 20:15. [BARRENeN ez]

BARRENeN ez da zero zenbakia aurretik idatziko:

⇒ 9:15ean; 4:00ak. [BARRENeN ondo]

⇒ 09:15ean. [BARRENeN ez];

⇒ 04:00. [BARRENeN ez]

√ **Orduak zelan deklinatu:** ordua osoa denean (10:00, 16:00...) denean *-eta* atzizkia eroan-



go du: 12:00etan; 17:00etan; 14:00etatik 23:00etara. Salbuespena: 1:00ean. Orduak osoak ez direnean, berriz, *-eta* atzizkia ez da erabiliko: 13:15etik 14:15era.

Atzetik *inguruan* edo *aldean* idatziz gero, deklinatu gabe lagako dugu ordua: 16:00 aldean; 16:15 inguruan.

#### 4.4.4. kiroletako emaitzak, denborak eta markak

Kiroletako emaitzak zifraz adierazten dira beti, marratxoz loturik.

⇒ Alkortak 20-31 irabazi zuen Ordiziako Rotula Studioren kontra.

Denborak eta markak zifraz idazten dira beti. BARRENen bi puntuz bereizten dira orduak, minutuak eta segundoak. Segundoen hamarrenak komaz markatzen dira. Esaterako: Nabarmentzekoa da Ainhoa Lendinezek lortutako 13. postua, 1:23:11,2 denboran.

Unitatea eta hamarrenak komaz bereizten dira. Esaterako:

⇒ Maria Jose Gilek 9,75 segundoko marka jarri du.

#### 4.4.5. ehunekoak

Aurrena sinboloa idazten da [%], eta gero zifra, loturik, tartean hutsunerik gabe.

Mugagabean deklinatzen dira: Herritarren %24 ados daude, eta %76 ez.

Baina aurretik gainerako edo beste berbak joanez gero, artikulua hartzen dute: Herritarren %24 ados daude, eta beste %76ak ez.

Erreferentea plurala denean, pluralean egiten da aditzaren komuntzadura; singularra bada, singularrean. Ikasleen %75ek gainditu dute azterketa; Aurrekontuaren %15 ez du gastatu oraindik.

Beste modu batzuk ere badira ehunekoak adierazteko. Gainera, adierazkorragoak dira: Hamarretik bederatzia ados daude.

#### 4.4.6. zifraz idaztekoak

√ **Hogeita batetik gorako zenbakiak**, hogeita bata barne.

√ **Hamarrenak dituztenak**. Komarekin idazten dira, koma behean dutela. Iaztik 5,5 milioi euro galdu ditu.

√ **Tauletan zerrendatzen diren zenbakiak**.

√ **Adina.** Errepideetan 7 urteko bi haur hil dira; Baina: Haurrak urtebete du.

√ **Helbideak.** Ataria, solairua eta posta kodea, denak zifraz idazten dira.

√ **Kale izena data bat bada,** zifraz ematen da, *lebena* eta ordinalak izan ezik. Abuztuaren 31 kalea, 23, 4. ezk; Maiatzaren Lehena plaza; Bosgarren etorbidea.

√ **Posta kodea, punturik gabe.** Bidali helbide honetara: Nafarroa plaza, 2, behea, 20870 Elgoibar.

√ **Errepide zenbakiak:** 634 errepidea; A-8 autobidea.

√ **Ibilgailuen zilindroak.** 50 cc-ko motoen lasterketa irabazi du.

√ **Errezetetako kopuruak.** Osagaiak: 120 g azukre, 20 ml oliba olio, 250 g irin.

√ **Magnitudeak,** hala nola abiadura, tenperatura, lurrikaren eskala, haizearen indarra, armen kalibrea, latitudea eta longitudea. 10 km/h; Richter eskalan 7,6 graduko indarra.

√ **Segidak osatzen dituzten zenbakiak,** hala nola hoteletako gelak, antzokietako aulkiak, liburu-etako orrialdeak. Milakoak markatzeko punturik ez dute: 45. gela; 14. ilara; 1555. orrialdea. Baina: Liburu horrek 1.408 orrialde ditu.

Salbuespena: zozketetako zenbakiak puntu eta guzti idatziko ditugu: 01.445, 4.333.

√ **Telefonoak eta faxak.** Hirunaka idatziko dira, tartea utziz.

⇒ 943 744 112; 658 005 147; 902 500 600.

√ **Izen berezietako zenbakiak eta ibilgailuen matrikulak:** auto modelook, irratia, telebista, autoak, hegazkinak, itsasontziak, espazio ontziak, misilak eta abar. Citroen C5 autoa; 5641-HKN matrikula; Apolo X.a; Titanic II.a; Antena 3; Elgoibar 1936 taldea.

√ **Legeen izenak eta atalak; epaitegien zenbakiak eta salak:** Instrukzioko 3 zenbakiko Epaitegia; Epaitegiko 4. sala; 5. artikulua; 13. araua; 2000ko ekainaren 17ko 4/84 Legea.

#### 4.4.7. letraz idaztekoak

√ **Batetik hogeira artekoak** (hogeia barne).

⇒ Errege Kopako finalerako bi sarrera zotz egingo ditu CD Elgoibarrek.

Dena den, tituluetan zilegi da hogeitik behe-rako zenbakiak zifraz ematea.

√ **Ehun, mila.** Mila lagun inguru elkartu ziren Madalan. *Milioi, bilioi, trilioi* eta abar, baina ez *4 mila*.

⇒ 555.0000. [egokia]  
⇒ 555 mila. [desegokia]

⇒ 76 milioi. [egokia]  
⇒ 76.000.000. [egokia]

⇒ 45.000 milioi. [egokia]  
⇒ 45 mila milioi. [desegokia]

### √ **Esapideetakoak:**

⇒ Niri bost axola

⇒ Hamaika aldiz esan zidan!

### √ **Zatikiak:**

⇒ Zigorren hiru laurdenak [egokia]  
⇒ Zigorren 3/4 [desegokia]

⇒ Ikasleen erdiak.

⇒ Bi ordu laurden.

√ **Kiroletako maila:** Lehen Maila, Hirugarren Maila. Baina: 1 Formula.

#### 4.4.8. zifrak nola eman

√ **Hamarrenak** beheko komaz markatzen dira, bukaeran zerorik gabe:

⇒ 7,75 euro [egokia]

⇒ 7'75 [desegokia]  
⇒ 7.75 [desegokia]

⇒ 5,5 milioi [egokia]  
⇒ 5,50 milioi [desegokia]

√ **Milakoa, milioikoak eta hortik gorakoak adierazteko**, puntua erabiltzen da, sailak osatzen dituzten zenbakietan izan ezik –horregatik ez zaie punturik jartzen urteei eta posta kodeei, esaterako—. Margolana 7.032 euro kostatu zaio; Liburu horrek 5.000 orrialde ditu; Baina: 2005. urtea; 1020. orrialdea.

√ **Balio tartek edo gutxi gorabeherakoak.** Bi kopururen arteko balioa adierazteko, osorik idazten dira bi zenbakiak. Nahikoa da marratxoaz lotzea. Herriko Antzokian 200-300 lagun elkartu ziren.

#### 4.4.9. lerro bukaeran ezin dira zifrak bereizi

√ Zifra bakarra osatzen dutenak.

⇒ 50.000  
⇒ 50.//000 [gaizki]

√ **Zifra eta dagokion sinboloa.**

⇒ %18  
⇒ %//18 [gaizki]  
⇒ 120 cc  
⇒ 120//cc [gaizki]

√ **Marratxoz loturiko zenbaki multzoak.**

⇒ 22-15 irabazi du

⇒ 22-//18 irabazi du [gaizki]

√ **Ahal dela telefono zenbaki osoak lerro berean.**

Konponbideak: gehienetan, ordena aldatzea nahikoa da, baina zentzuz egin behar da, esaldia bihurtu gabe. Paragrafoaren *track* kopuruarekin ere joka daiteke, oso nabarmen gelditzen ez bada; betiere diseinatzaileak baimendutako mugen barruan (-3 / +3).

#### 4.4.10. errromatarrak

Zenbaki errromatarrez hauek hasten dira:

√ **Mendeak eta milurtekoak.**

√ **Errege-erreginen, aita santuen, enperadoreen eta kirolarien izenak.**

√ **Urteurrenak, jaialdiak, biltzarrak, jardunaldiak, olinpiar jokoak, txapelketak, sariketak, kontzilioak eta antzekoak.**

Horrelakoetan hogeira arte erabiltzen dira. Hortik gora, arabiarrek (zenbaki normalak).

⇒ Elgoibarko Izarrak 50. urteurrena ospatuko du;

⇒ Ikastolako frontoiak X. Pilota Eguna hartu zuen.

#### 4.4.11. tituluak eta esaldi hasierak

Ahal dela, ez da komeni zifrarik idaztea tituluaren hasieran, testuaren hasieran eta puntuaren ondoren. Nolanahi ere, hobe da esaldia zifra batekin hastea, esaldiaren antolamendua bihurtzea baino.

Tituluetan, zilegi da hogeitik beherako zenbakiak zifraz ematea.

#### 4.4.12. dirua eta balioa

Euroaz beste dibisetan adierazitakoa zenbat euro den zehaztu egin behar da: aurrena, beste dibisako kantitatea, eta gero, parentesi artean, eurotan zenbat den.

Dibisa jakin bat testuan behin baino gehiagotan agertuz gero, nahikoa da lehenbizikoan zehaztea zenbat den eurotan.

#### 4.4.13. erdia, erdiak

Erreferentea singularra bada, singularrean egiten da komunztadura.

⇒ Gazta erdia jan genuen.

Erreferentea plurala bada, pluralean egiten da komunztadura.

⇒ Ikasleen erdiek gainditu zuten azterketa.

#### 4.4.14. ordinalak

√ **Puntuarekin idazten dira.** Enumerazioetan, zilegi da azkenari bakarrik jartzea. Udal Musika Bandaren 150. urteurrena; XIX, XX eta XXI. mendeetan.

√ **Erromatarrez idazten dira beti: mendeak, milurtekoak,** Egiptoko faraoien dinastiak, liburukiz osaturiko obra batzuen izenak, itsasontzi eta beste ibilgailu batzuen izenak eta errege-erreginen, aita santuen, enperadoreen eta kirolarien izenak.

√ **Jaialdiak, biltzarrak, olinpiar jokoak, sariketak, urteurrenak eta historiako gertakariak,** erromatarrez hogeigarrenera arte (hogeigarrena barne), eta hortik gora, arabiarrez. Esaterako: II. Mundu Gerra.

√ **Gainerako kasuetan,** hogeigarrenera arte letraz idazten dira eta hortik aurrera zifraz. Esaterako: Bosgarren egin du.

Tauletan eta grafikoetan, beti zifraz.

#### 4.4.15. banatzaileak

*Bana.* Singularrean jokatu behar da *banari* dagokion aditza.

⇒ Etxe bana erosi dute Arkaitzek eta Maialenek [ondo]

⇒ Etxe bana erosi dituzte Arkaitzek eta Maialenek [gaizki]

Ez dira zuzenak honelakoak: Disko eta liburu bana erosi du Arkaitzek. Horrela behar du: Disko bat eta liburu bat erosi ditu Arkaitzek.

Hona hemen banatzaileak osatzeko era: mila bana (milana\*); hiruna mila (hiru milana\*); hiru mila eta hamarna; milioi bana; bosna milioi; Milioi bana irabazi dute loterian. Bosna mila euroko bermea ordainduta irten ziren kalera.

#### 4.4.16. kopuru zehaztugabeak

Gutxi gorabeherako kopurua emateko, *bat* erabiltzen dugunean, kontuz mila tartean baldin bada:

⇒ Zazpi bat sagar jango zituen

⇒ Hiru bat ordu laurden iraun du partidak.

Baina:

⇒ Hiru bat mila lagun etorri dira [ondo]

⇒ 3.000 bat lagun [gaizki]

⇒ Jaira 22 bat mila lagun bildu ziren [ondo]

⇒ 22.000 bat lagun [gaizki]

## 4.5. izen bereziak nola deklinatu

### 4.5.1. pertsona eta leku izenak

Tituluetan, marratxorik gabe deklinatzen dira BARRENen.

Testu barruan, marratxorik jarri gabe deklinatzen dira, oso izen arrotzak ez badira. Hala bada, lehen aipamenean deklinatu behar izanez gero, marratxoz idazten dira, eta hortik aurrera marratxorik gabe.

### 4.5.2. taldeen izenak

√ **Absolutiboan daudenak:** Neurri batean, behinik behin, deskriptibotzat jo daitezke hainbat talderen izenak. Horrelakoak izen arruntak bezala deklinatzen dira, eta, beraz, *-a(k)* hartzen da. Esaterako: Eusko Alderdi Jeltzaleko; Ezker Batuko; Eusko Alkartasunera; Batasuneko; Ibilaldira. Deskriptibotzat nekez jo daitezkeenetan, aldiz, *-a(k)* berezkotzat hartzen da. Esaterako: Elgoibarko Izarrako; Haizeako (emakume taldea); Osasunako; Negu Gorriak-ek; Hertzainak-ekin.

√ **Bestelakoak:** Absolutiboaz besteko

kasuetan bukatuak diren izenak marratxoz idazten dira deklinatzen direnean: Bide Ertzean-eko; Lokarri-ko; Nafarroa Oinez-era.

### 4.5.3. letra etzanez idaztekoak (izenburuak, gaitzizenak)

Marratxoz lotzen zaie deklinabide atzizkia. Dena dela, izenburuak deklinatzean, ahal dela hobe da atzetik berba bat jartzea eta hura deklinatzea. Esaterako: *Obabakoak* liburuko ipuina.

## 4.6. lerroak

### 4.6.1. lerro bukaerak

Tituluetan, azpтитuluetan, tartekietan eta leihoetan ezin dira berbak moztu, eta hitz elkartuetako marratxoa ezin da utzi lerro bukaeran.

Paragrafoko azken lerroa ezin da zutabeko lehenengoa izan.

Kontuz paragrafo amaierako lerroak motzak badira. Ezin dira lehen lerroko sangratua baino motzagoak izan.

Zutabe baten hasieran, gutxienez, hiru lerro idatziko dira, puntu eta aparte egin arte, hau da, beste paragrafo bat hasi arte.

Era berean, zutabe amaieran hasitako para-

grafoak gutxienez hiru lerro izan beharko ditu beste zutabe batera pasa aurretik.

Siglak ezin dira bereizi lerro bitan.

Magnitudeak eta dagokien sinboloa ezin dira bereizi bi lerrotan.

Telefono zenbakiak, helbide elektronikoak eta e-postak lerro berean emango ditu BARRENe ahal den heinean.

#### 4.6.2. titulueta lerro banaketa

Titulueta hitzak zentzuz banatu behar dira lerroetan, lerro bakoitzak nolabaiteko osotasuna izan dezan.

### 4.7. tituluak egiteko arauak

#### 4.7.1. berbarik ez errepikatu

Ezin da errepikatu hitz berbera titulu eta azpititulu. Aprobetxatu espazioa informazio gehiago emateko. Kontzeptua errepikatu behar bada, ahalegindu sinonimoen bidez.

⇒ Elgoibarko baserrietako produktuekin egindako menua dastatzeko aukera izango da Azken Zapatuko Ferian.

Baserriko produktuekin osatutako menuak 30 euro balioko du. [titulu eta azpititulu errepikatzen dira.

Aldatu]

⇒ Elgoibarko baserrietako produktuekin egindako menua dastatzeko aukera izango da Azken Zapatuko Ferian.

Barixakuan eta zapatuan bazkariak emango dituzte 30 euroren truke. [egokia]

Titulueta ezin da errepikatu hitz berbera orrialde bereko eta ondoko orrialdeko batean ere, ahal dela behintzat.

#### 4.7.2. koma gutxirekin

Tituluak irakurlea erakarri egin behar du. Irakurleari albista irakurtzeko gogo sortu behar dio. Irakurleak berehala ulertu behar du titulu. Komek irakurketa moteldu egiten dute, eta, kasu askotan, esanahia aldrebestu. Beraz, koma gutxiko tituluak sortzen ahaleginduko da kazetaria.

⇒ Trenbideko lanak, azaroan hasi zirenak, amaitzear dira, Eusko Trenbideak Sareak enpresaren arabera.

⇒ Trenbideko lanak amaitzear direla iragarri du Eusko Trenbideak Sareak enpresak. [hobeto]

#### 4.7.3. titulueta nola eman *gaur, bihar eta atzo* kontzeptuak

Titulu eta ez dago esan beharrik asteko zein egun den. Izan ere, irakurleak badaki asteakaria ostiraletan argitaratzen dela. Beraz, erredundanteak dira honelako tituluak:

⇒ Bertso afaria izango da gaur, barixakua, Baltasar elkartean. [erredundantea]

⇒ Bertso afaria izango da gaur Baltasar elkartean [ondo]

Kazetariak, nahi badu, albistean azal dezake gaur asteko zein egun den.

*Bihar* eta *atzo* kontzeptuekin berdin jokatu dugu BARRENen.

*Herenegun*, *etzi* eta *etxidamu* berbak tituluetatik saihestu egingo ditugu, eta *eguaztana*, *domeka* eta *astelehena* erabiliko ditugu.

#### 4.8. enumerazioetako ordena

Enumerazio eta zerrendetan, alfabetoaren arabera ordenatzen dira elementuak, beste irizpideren batek agintzen ez badu (dela geografikoa, dela kuantitatiboa...). Kontuz ibili beharra dago informazioaren iturriak erdarazkoak direnean; izan ere, haiei segituz gero, alfabetoaren arabera ordenatuko ditugu elementuak..., baina erdaraz.

Argazkietako jende zein animalien izenak ordenan emango ditugu beti, ezkerretik eskumara eta goiko lerrotik hasita.

Tituluan argazkiko protagonisten izenak eman behar badira, argazkiko ordenan emango ditugu.

#### 4.9. laburtzapenak

##### 4.9.1. laburdurak

Laburdurak ez dira kazetaritzarako. Fitxetako datuetan erabili ohi dira, baina testu barrenean hobe da forma osoak idaztea.

⇒ Ekitaldian, kantariak, margolariak, idazleak, etab. egon ziren. [ez da egokia]

⇒ Ekitaldian, kantariak, margolariak, idazleak eta abar egon ziren. [egokia]

Pertsona izenetan eta deituretan, ez erabili erdarazko laburdurarik: M<sup>a</sup>; Mtnez.; Fdez.; Fco. Izen-abizenak osorik idazten dira. Dena dela, lekurik izan ez eta aurkezpen zintetan laburtu behar izanez gero, lehen letra erabili. Esaterako:

⇒ Juan M. Irujo

⇒ Juan Mtnez Irujo [desegokia]

⇒ M. Aurrekoetxea

⇒ M<sup>a</sup> Aurrekoetxea [desegokia]

Laburdurak puntuarekin idazten dira beti. Esaterako. Zuz.: Sergio Leone. Akt.: Claudia Cardinale, Henry Fonda. Baina *vs (versus)* eta tartean zehar marra dutenak, punturik gabe. Lerroa vs kolorea; San Frantzisko z/g

Laburdurak ezin dira deklinatu. Esaterako:



⇒ K.a.742. urtean

⇒ K.a.-ko 742. urtean [gaizki]

## 4.9.2. siglak eta akronimoak

### 4.9.2.1. zer diren

√ **Siglak:** Ordezko laburtuak dira, ordezkatzen dituzten hitzen lehen letrez osatuak. Esaterako: AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea); AHT (Abiadura Handiko Trena).

√ **Akronimoak:** Hauek ere ordezko laburtuak dira, baina hitz arrunten moduan irakurtzen dira, eta bi hitz edo gehiagoren elementuz osatuak dira; gehienetan silabaz. Esaterako: Debemen (**Deba Beheko Mendi-Nekazaritza** Elkartea); Debegesa (**Deba Beheko Garapen Ekonomikora**-ko Elkartea Sociedad Anonima).

### 4.9.2.2. nola idatzi

Siglak letra larriz idazten dira, osorik; akronimoetan, lehen letra bakarrik idazten da larriz. Dena dela, sigletan badira salbuespen batzuk:

Merkataritza izenak, azalpen beharrik ez dutenak. Lehen letra izan ezik, xehez idazten dira: Agfa; Seat.

Hiru silaba edo gehiagokoak izanik, hitz arruntak bezala irakurtzen diren siglak.

Horiek ere minuskulaz idaztekoak dira, lehen letra izan ezik: Asepeyo; Cepyme.

Hitz arrunt bihurturiko sigla eta akronimoak letra xehez idazten dira: hies gaitza; modema; radarra.

### 4.9.2.3. nola deklinatu

Sigla eta akronimo batzuk izen berezien ordezkoak izan ohi dira, eta haiek bezala deklinatzen dira.

⇒ PSEk atzo aurkeztu zuen lege zuzenketa.

[ondo]

⇒ PSEak atzo aurkeztu zuen lege zuzenketa.

[gaizki]

Beste batzuk izen arrunten ordezkoak dira, eta haiek bezala deklinatzen dira; beraz, artikulua hartzen dute. AHTaren proiektuarekin bat egin du Elgoibarko Udalak.

Deklinatzean, ez erabili marratxorik. Baina badira salbuespenak:

a) Testua letra larriz idaztekoa denean –zintetan edo titular berezietan esaterako- (UEU-ko kidea).

b) Siglaren azken letra eta atzizkiaren lehena bera direnean: AEK-ko beteranoak; BBK-ko aurrezkiak).

c) Siglaren azken letra -r- bada: lheslariak babes-  
teko eskatu du UNHCR-ek.

#### 4.9.2.4. zer esan nahi duten

BARREN astekarian, euskarazko sigla oso ezaguna ez denean, jarraian gaztelaniako sigla idatziko dugu, marra baten bidez: IAT-ITV; GKE-ONG; TAO-OTA; EHU-UPV.

Siglak ordezkatzeko duen izena osorik idatzi behar da testu barreneko lehen agerraldian, oso ezaguna denean izan ezik. Esaterako: Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT-ITV) pasatzera joan zen Bergarara.

Lehen agerralditik aurrera nahikoa da siglak erabiltzea (euskarazkoa ezezaguna bada, formula mistoa erabili).

Hitz gramatikalak (aldeko, kontrako, buruzko, gaineko...) beste hitzak bezala idazten dira siglak laburtzen duen izenean. Esaterako: Arma Nuklearrak Ez Ugaltzeko Ituna (NPT); Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ-IVA); gobernuz kanpoko erakundea (GKE-ONG).

#### 4.9.2.5. letra arruntez beti

Siglak eta akronimoak beti idatziko dira letra arruntez, nahiz eta ordezkatzeko duen izena etzanez idaztekoa izan. Esaterako: EGLU (*Euskal*

*Gramatika. Lehen Urratsak*); RIEV (*Revista Internacional de Estudios Vascos*).

#### 4.9.2.6. lerro bukaeran nola eman

Letra larriz idazten diren siglak ezin dira zati-tu lerro bukaeran.

Minuskulaz idatzi eta hitz arrunten modura irakurtzen diren sigla eta akronimoak banatu daitezke bi lerrotan.

#### 4.9.2.7. zenbakia loturik

Sigla batzuek zenbakia dute bukaeran. Erre-pideen izenak marratxoaz idazten dira; gaine-rakoak loturik: A-8; GI-3031; G8.

#### 4.9.2.8. letraz erantsitakoa, lotuta eta minuskulaz

Siglari beste letraren bat gehituz gero, letra xehez idatzi erantsirikoa. PCR-ko zuzendaritza; ETAp-ren ekintza; UPyD alderdia.

#### 4.9.2.9. tituluetan, kontuz

Kontu handiz erabili behar dira siglak titulu-  
etan: ezagunak bakarrik, eta beti neurriz. Irakurleak titulua irakurri behar du.

### 4.9.3. sinboloak

#### 4.9.3.1. zer diren eta nola idatzi

Jakintza alorretako laburdurak edo zeinu grafikoak dira, nazioartean finkatuak, eta gehienetan neurriak edo magnitudeak adierazten dituzte. 4 h 40 min 15 s

Punturik gabe idazten dira. Zifraz idatzitako zenbakia daramate aurretik. Tarteak laga behar da zenbakiaren eta sinboloaren artean.

#### 4.9.3.2. noiz erabili

Testu barrenean, ez erabili sinbolorik: osorik idatzi neurriaren edo unitatearen izena:

⇒ Goizero hamalau kilometro egiten ditu.

⇒ Atzotik hona bost graduko aldea dago.

⇒ Etxebizitzak 95 metro koadro dauzka.

Salbuespena: automobilismoari buruzko testuetan, sinboloa idazten da zilindroak adierazteko. Deklinatzean marra erabiltzen da. Proban 125 cc-ko motorra erabili zuen.

Tauletan, sailkapenetan eta fitxetan sinboloak erabiltzen dira.

Ezin dira bereizi bi lerrotan zenbakia eta sinboloa.

5  
onomastika

## 5.1. pertsona izenak

### 5.1.1. izen-abizenak

Euskal herritarren euskal abizenak euskal grafiaz idazten dira BARRENen, nahiz eta norbaitek esan bere izena edo abizena hone-la edo horrela idazten dela. Euskaltzaindiaren arauen arabera idatziko ditugu. Eskeletan edo ordainduzko iragarkietan egingo da bakarrik salbuespena, ordaintzen duenak hala eskatzen badu. Beraz:

⇒ Ramon Jauregi; Juan Zelaia; Antonio Zabala

⇒ Ramon Jauregui; Juan Celaya; Antonio Zavala [gaizki].

Abizenak osorik ematen dira, laburtu gabe. Esaterako:

⇒ Goikoetxea

⇒ Goiko [gaizki]

⇒ Etxeberria

⇒ Etxebe [gaizki]

Aurkezpenetan, argazki oinetan, zintetan eta kale inkestan onartzen dira laburtuak. F. de Aranoa (Fernandez de Aranoa); F. Temiño (Fernandez-Temiño).

Euskal herritarren euskal abizenak *de*, *y*, *d'* eta horrelakorik gabe idazten dira: Jean Iriart

(Jean d'Iriart\*); Iñaki Mujika (Iñaki de Mujika\*).

Salbuespena egiten da, ordea, tradizioz *de* eta guztiko forma izan duten euskal abizenekin: Iñiguez de Karkizano.

Euskal herritar ez direnen euskal abizenak haiek idatzi bezala idazten dira, euskal grafia-  
ra ekarri gabe: Che Guevara (Che Gebara\*); Julio Cortazar (Julio Kortazar\*); Esperanza Aguirre (Esperanza Agirre\*); Maite Zaldibar (Maite Zaldibar\*).

Alfabeto latinoan idatzitako atzerritarren izenak, oro har, bere horretan lagatzen dira: Jules Verne (Julio Verne\*); Alexandre Dumas (Alejandro Dumas\*).

Marka diakritikoak, hala nola azentuak eta dieresiak ezabatu egiten dira. Erabiltzen den diakritiko bakarra zubererako *ï* da. Ramon Rodriguez (Ramón Rodríguez\*); Gonzalez Marquez (González Márquez\*).

Beste alfabetoetan idatzitako izenekin transkripzioa edo transliterazioa egin behar da.

### 5.1.2. gaitzizenak

Oro har, gaitzizenak itzuli egiten dira: Jack Tripa-urratzailea; Katalina II.a *Handia*. Baina: Enrique Villarreal *Drogas*; Bruce Springsteen *The Boss*.

### 5.1.3. pertsonaia historikoak, garaikideak eta fikziozkoak

Oro har, hizkuntza bakoitzak bere erara idazten ditu honako hauen izenak: errege-erreginak, printze-printzesak, enperadore-enperatrizak, Bibliako eta historiako pertsonaia klasikoak eta errenazimendukoak, santuak, aita santuak eta pertsonaia mitologikoak. Santutegiko izen ohikoenak Euskaltzaindiaren 66. arauan topa daitezke (*www.euskaltzaindia.net*).

Oraingo errege-erreginen eta printze-printzesen izenak bere horretan idatziko ditugu: Elisabeth II; Charles printzea; Juan Carlos I.a.

### 5.2. erakundeak, bankuak, elkarteak, fundazioak, alderdi politikoak, sindikatuak eta gobernuz kanpoko erakundeak

Itzuli egiten dira, euskaraz baliokide argirik ez dutenak izan ezik. Esaterako: Nazioarteko Diru Funtsa; Espainiako Bankua; Alderdi Popularra; Fronte Nazionala; Mugarik Gabeko Pailazoak; Baina: National Geographic; Greenpeace; Scotland Yard; Convergencia i Unio.

### 5.3. enpresak

Oro har, enpresen izenak ez dira itzultzen: Gas Natural; Mittal Steel; British Telecom.

### 5.4. talde artistikoak

Izen espezifikoak ez dira itzultzen: Rolling Stones; Cicatriz; Els Joglars.

Izen deskriptiboak, normalean, itzuli egiten dira: Vienako Orkestra Sinfonikoa; Nizako Operako Balleta.

### 5.5. siglak eta akronimoak

Oro har, siglak ez dira itzultzen, batez ere herrialde jakin batekoak direnean, baina bai haiek ordezkatzeko dituzten izenak: PSC, Kataluniako Alderdi Sozialista.

Nazioarteko erakundeen siglak, aldiz, euskaratu egin ohi dira, batez ere oso erakunde ezagunak direnean. BARRENen, honela idatziko dugu: NBE-ONU, Nazio Batuen Erakundea; EBZ-BCI, Europako Banku Zentrala.

Dena dela, batzuek oso forma ezaguna dute nazioartean. Horrelakoetan, nazioartekoa erabiltzen da: Unicef; NATO.

### 5.6. mahai inguruak eta berbaldiak

Mahai inguruak eta hitzaldien izenburuak euskaraz ematen dira BARRENen. Aldamenean, zein hizkuntzatan izango den argitu beharko du albisteak edo agendako tarte horrek. Mendekotasunei aurre egiteko baliabideak nola eskuratu (gaztelaniaz).

## 5.7. kirol probak

Euskaraz ematen dira, jatorrizko izena nazioartean oso hedatua dutenak izan ezik: Olinpiar Jokoak; Paris-Dakar rallya; Europako Futbol Kopa. Baina: Volvo Ocean Race; Grand National.

## 5.8. zientzia, teknika, literatura eta zinema lanak

Euskaratu gabeko lanak aipatzen direnean, jatorrizko izenburua ematen da, letra etzanez, eta, ahal dela, ondoan kazetariak egindako itzulpena (parentesi artean eta letra arruntez):

⇒ *Il pendolo di Foucault* (Foucalten pendulua); *Why Write* (Zergatik idatzi).

Dena dela, egitarauen berri ematen denean, emanaldiko hizkuntzan idazten da izenburua, irakurleak jakin dezan zer hizkuntzatan ikusiko duen filma edo antzezlan. Hala egiten da, besteak beste, Herriko Antzokiko zinema programazioaren berri ematerakoan.

## 5.9. musika lanak

Musika klasikoko izenburuak, oro har, euskaraz ematen dira: *Alaitasunaren oda*; Vivaldiren *Lau urtaroak*; *Mundu berriko sinfonia*. Baina: *Madama Butterfly*.

Musika modernoko lanen izenburuak bere horretan idazten dira: *Dreams of Freedom*; *Yo quiero ser torero*; *Redemption Song*.

## 5.10. arte plastikoetako lanak

Oro har, euskaraz ematen dira: *Calaisko burgesak* eskultura; *Tahitiko emakumeak hondartzan* margolana; *Atseginen baratzea* pintura.

## 5.11. sariak

Sariaren izena deskriptiboa bada, euskaraz ematen da: Urrezko Palma; Asturiasko Printzea saria. Baina: Oscar sariak.

## 5.12. produktuen izenak

Jatorri izenak itzuli egiten dira, baina markak eta modeloak ez: Normandiako Camembert gaztaren jatorri-deitura; Opel Astra autoa; Chrysler Voyager modelo.

## 5.13. atzerriko hiri eta herrietako toponimia

Bide publiko, auzo, monumentu eta eraikin berezien izenak idazteko, ez da irizpide orokorrik. Gehienetan, generikoak itzuli egiten dira: Eixample auzoa; Retiroko parkea; Eiffel dorrea; Pisako dorrea.

Izen deskriptiboak, oro har itzuli egiten dira: Plaza Gorria; Eliseoko Zelaiak; Bosgarren Etorbidea. Baina: Wall Street; Central Park; Fontana di Trevi.

#### 5.14. kirol taldeak

Kirol taldeen izenetako toponimoak egokitu egiten dira: Real Madril (Real Madrid\*); Monako (Monaco\*); Valentzia (Valencia\*).

Kirol taldeen izenak, oro har, ez dira itzultzen: Hierros Servando Fernandez; Chicago Bulls; Estudiantes; Manchester United.

#### 5.15. Elgoibarko leku izenak

Hona hemen Elgoibarko leku izen batzuk. Honela idatzi behar dira –kalea, auzoa, plaza... Ez dago beti jarri beharrik, jakina–.

- Aiastia-San Migel auzoa
- Aita Agirre plaza [izen ofiziala]⇒ Plaza Txikia
- Aizbizkar kalea
- Albitxuriko industriagunea
- Altzola auzoa
- Antonio Arrillaga kalea
- Arregitorre kalea
- Artekale kalea
- Artetxe kalea
- Autonomia kalea
- Azkue-San Roke auzoa
- Azkue-San Roke poligonoa

- Basarte kalea
- Bernardo Ezenarro kalea
- Deba kalea
- Ermuaran-Sallobente auzoa
- Ermuaranbide kalea
- Erretxindi kalea
- Errosario kalea
- Errotaberri plaza
- Eulogio Estarta kalea
- Foruen plaza [izen ofiziala]⇒ Plaza Handia
- Gabriel Krutzelaegi kalea
- Giza Eskubideen parkea
- Goiko Errotako zubia
- Idotorbe-San Pedro auzoa
- Iñiguez de Karkizano kalea
- Jausoro plaza
- Juan Mugertza kalea
- Kalamua kalea
- Madalako parkea (Maalako parkea\*)
- Madalako zubia
- Morkaiko kalea
- Nafarroa plaza
- Olaso kalea
- Olasope kalea
- Plaza Handia
- Pedro Miguel Urruzuno kalea
- Pedro Muguruza etorbidea
- Plaza Txikia
- San Bartolome kalea
- San Frantzisko kalea
- San Ignazio kalea
- Santa Ana kalea
- Santa Klara kalea
- San Roke auzoa\* (Azkue-San Roke auzoa)



- San Roke kalea
- San Migel auzoa\* (Aiastia-San Migel auzoa)
- San Pedro\* (Idotorbe-San Pedro auzoa)
- San Lorentzo\* (Ermuaran-Sallobente auzoa)
- Sallobente\* (Ermuaran-Sallobente auzoa)
- San Antolin auzoa
- Trenbide kalea
- Txankakuako zubia
- Ubitarte plaza
- Upai Zaharra kalea
- Urasandi kalea
- Urasandiko plaza
- Usetxe kalea
- Xixilion kalea

6

Kontuan hartzeko oharrak

## 6.1. zenbait hitzen erabilera okerra edo desegokia

### 6.1.1. itzulpenetako akatsak

Informazioa askotan itzuli behar izaten dugu. Erdararik itzultzearen ondorioz, akats ugari agertzen dira komunikabideetan. Esate baterako, honako hitz edo esapide hauekin eginikoetan:

#### √ *Baldintza*:

⇒ Baldintza onetan dago. [erdararikako kalko hutsa da]

⇒ Egoera onean dago. [ondo]

⇒ Sasoi onean dago [ondo]

#### √ *Bere aldetik*:

⇒ Jokalariak, bere aldetik, pozik dagoela adierazi du [erdarakada]

- Jokalariak, ostera, pozik dagoela adierazi du [ondo]

⇒ Jokalariak, bere aldetik, pozik dagoela adierazi du [erdarakada]

⇒ Jokalariak, berriz, pozik dagoela adierazi du [ondo]

√ *Desberdin*: *Desberdin* jartzen dugunean desberdintasuna nabarmendu nahi dugu.

⇒ Hiru alor desberdin markatu dituzte [hiru alor markatu dituzte, desberdinak]

⇒ Elgoibarko talde ezberdinek parte hartu dute [desberdintasuna nabarmentzeko!]

⇒ Elgoibarko zenbait taldek parte hartu dute. [ondo]

⇒ Karabinak eskaintzen dituen aukera desberdinak. [ez da zuzena]

⇒ Karabinak eskaintzen dituen aukerak. [ondo]

⇒ Herrialde desberdinak ezagutu ditut. [erdarakada]

⇒ Hainbat herrialde ezagutu ditut. [ondo]

### 6.1.2. plural okerrak

Erdararen eraginez plural asko erabiltzen dira, euskaraz singularra nahikoa den kasuetan.

⇒ Jokalariarengandik emaitza onak espero dituzte. [ondo]

⇒ Jokalariarengandik emaitza ona espero dute. [ondo]

⇒ 1983ko ufalak oso kaltegarriak izan ziren. [behin baino gehiagotan gertatu ziren]

⇒ 1983ko ufala oso kaltegarria izan zen. [ondo]

### 6.1.3. *bera* / *berdin*

*Bera* hitzak objektu edo pertsona bakarra adierazten du, errepikatzen dena. *Berdin* esatean objektu edo pertsona bat baino gehiagoren artean antza handia dagoela diogu.

⇒ Aurreko eguneko soineko bera jantzi zuten.

⇒ Galtza berdinak dituzte biek.

#### 6.1.4. *maila*

⇒ Gipuzkoa mailako txapelketa. [desegokia]

⇒ Gipuzkoa osoko txapelketa. [zuzena, enfatikoagoa]

⇒ Gipuzkoako txapelketa. [zuzena]

#### 6.1.5. *gaurkoan / atzokoan*

*Atzokoan, gaurkoan, iaçkoan, aurtengoan* formulak, batez ere, komunikabideek zabaldu zituzten. Asmatu berriak ez ezik, alferrekoak dira. Hobeto, beraz, *atzo, gaur, iaç...*

#### 6.1.6. *bezala*

*Bezala* partikulak konparatu egiten du. Beraz, honako esamolde hauetan alferrik da erabiltzea:

⇒ Alderdiko buru bezala jarri dute [ez da zuzena]

⇒ Alderdiko buru jarri dute [zuzena]

⇒ Etxeberria etorri zen Udaleko ordezkari bezala [ez da zuzena]

⇒ Etxeberria etorri zen Udaleko ordezkari [zuzena]

⇒ Errektore bezala hitz egin du [errektoreen erara hitz egin ote du?]

⇒ Errektore moduan hitz egin du [onartuta dago]

⇒ Errektore gisa hitz egin du [onartuta dago]

⇒ Errektore den aldetik hitz egin du [onartuta]

#### 6.1.7. *ere, baita ere*

Askotan ez dugu leku aproposenean jartzen *ere* partikula, eta esaldi okerrak sortzen dira. Esaldiok esanahi ezberdina dutenez, tes-tuinguruaren arabera antolatu behar da esaldia.

*Ere* partikula esaldian ondo kokatzen jakitea garrantzitsua da. Izan ere, esanahia aldatzen da kokapenaren arabera:

⇒ Miren ere gaur Iruñera joango da.

⇒ Miren gaur ere Iruñera joango da.

⇒ Miren gaur Iruñera ere joango da.

Zenbait kasutan, gainera, gaizki erabiltzen dugu *ere* lokailua.

⇒ Miren gaur Iruñera joango da ere. [zer esan nahi dugu?]

Zerbait gehitzen dugunean erabiltzen dugu *ere*, elementu berri horri atzetik itsatsita. Modu horretan, elementu hori atentzio gune bihurtzen da berez. Edozein esaldi zati, edo esaldi osoa ere izan daiteke gehitzen duguna, eta funtzio edo maila bereko beste elementu bat izango da lehen aipatua edo aipatu gabe ere ulertzen duguna.

⇒ Gauza txarrak ere badituzte. [onak badituztela esana da lehen edo pentsatzen dugu]

⇒ Sirian ere gatazka sortu dira. [beste nonbait ere izan dira, itxura denez]

⇒ Datorren urtean jaialdia non izango den ere azaldu dute. [beste azalpenen artean]

Lotura horren aldaerak dira *baita ere* eta *ezta ere* formak. Horiek erabiltzean, aditza aurreko esaldiko berbera izanik, elipsia egiten da. Zuzen erabiltzeko *baita... ere* ordenan jarri behar da, tartean elementu berri hori sartuta. Esaterako:

⇒ Baita datorren urtean non izango den ere. [aditza azaldu dela badakigu, ez baita lehen azalpena]

Erraz uler daitezke ondoko esaldi hauek, hitz berberak izan arren, ezberdinak direlako:

⇒ Elgoibarren ere ekonomia indartu behar da.

⇒ Elgoibarren ekonomia ere indartu behar da.

⇒ Elgoibarren ekonomia indartu behar da ere. [azken hau gaziki dago]

Argibide gehiagorako, ikus Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-III (lokalak)*:

### 6.1.8. pena merezi

Euskaraz ez dago halakorik. Beraz:

⇒ Merkealdietan erosteak pena merezi du. [gaizki]

⇒ Merkealdietan erostea merezi du. [ondo]

### 6.1.9. atera / irten

Elgoibarren bereiztu egiten direnez, BARRENen ere bereiztu egingo ditugu.

⇒ Txakurra kalera atera zuen. [ondo]

⇒ Langileak kalera atera ziren. [BARRENen ez dugu erabiliko]

⇒ Langileak kalera irten ziren. [ondo]

### 6.1.10 Hau / hori

Diskurtoaren arabera, ezberdin erabiltzen dira. *Hori* (eta *horiek*) aldeztu aurretik aipatu denari dagokio. Esaterako:

⇒ Andoni lanean oso gustura dago. Hau izan da bere betiko ametsa. [ez da zuzena]

⇒ Andoni lanean oso gustura dago. Hori izan da bere betiko ametsa. [zuzena]

*Hau* (eta *hauek*) ondoren azalduko denari dagokio.

⇒ Hori da Andoniren betiko ametsa: lanean gustura egotea. [ez da zuzena]

⇒ Hau da Andoniren betiko ametsa: lanean gustura egotea [zuzena]

## 6.2. hitz erabiliegiak

### 6.2.1. aditz erabiliegiak

Denetarako, dagokien esanahitik kanpo erabiltzen diren aditz ugari ageri dira komunikabideetan. Erdaraz, hitz batek adiera asko dituen arren, horrek ez du esan nahi euskarazko haren pareko maileguak adiera guztiak behar dituenik. Horrelako zerbait gertatzen da honako aditz hauekin: *aurkitu, suertatu, inposatu, mantendu, burutu, zuzendu, suposatu, luzatu, eman...*

### 6.2.2. bat

Gaztelaniazko *un/una* itzultzerakoan, sarritan *bat* idatzi ohi dugu forma jatorren ordeiz. Gehiegitan idazten dugu *bat*.

BARRENen *-a* erabiliko dugu eta ez *bat* honako kasu hauetan:

√ **Izen zenbakaitzekin:** haizea, esperantza, mina, aurrea, ingurua...

√ **Izen zenbakarriak izanik balio generikoa dutenean.** Esaterako: Emakumea gutxietsita dago; Ez dut ezagutu espetxea bezain gauza txarrik.

√ **Izen balio generikoa dagoen ala ez zalantzan dagoenean** ere *-a* erabiltzera joko dugu. Esaterako: Errotonda egiteko asmoa

azaldu dute; autobusa dator.

### 6.2.3. beranduago

Askotan *geroago* hitza baztertu egiten dugu. Laga dezagun *beranduago* hitza zerbait berandutzen denerako.

⇒ Orubete beranduago ere berba egiten jarraitzen zuen [desegokia]

⇒ Orubete geroago ere berba egiten jarraitzen zuen [hobeto]

⇒ Bihar ordu erdi beranduago etorriko naiz lanera [berandutu egingo naizela esaten ari naiz]

## 6.3. deklinabidea

### 6.3.1. Kultur Etxetik esan dute

Azken urteotan asko zabaldu den forma okerra da, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.

⇒ Kultur Etxetik esan dute domekan ez dela emanaldirik izango [okerra]

⇒ Kultur Etxeko arduradunek esan dute domekan ez dela emanaldirik izango [zuzena]

⇒ Gaztetxetik protesta egiteko deia egin dute [okerra]

⇒ Gaztetxeko kideek protesta egiteko deia egin dute [zuzena]

### 6.3.2. *bi tantogatik*

*-gatik* deklinabide atzizkia behar ez denetan erabiltzen da batzuetan, erdararen eraginez.

⇒ Askogatik irabazi zuen [ez da zuzena]

⇒ Alde handiz irabazi zuen [zuzena]

⇒ Bi tantogatik [ez da zuzena]

⇒ Bi tantoz [zuzena]

## 6.4. bestelakoak

### 6.4.1. *-delarik*

Askotan gaizki agertzen da komunikabideetan. Badirudi esaldiak luzatzeko egiten dela. Moduzko edo denborazko menpeko esaldietarako denean, ondo dago.

- Txakurrek kaleak zikindu egiten dituzte, jabeek ezer egiten ez dutelarik [gaizki]

- Txakurrek kaleak zikindu egiten dituzte, baina/eta jabeek ez dute ezer egiten [ondo]

Forma zuzena modu eta denbora esaldietan izaten da: zain nengoelarik, euria hasi zen.

Trikimailua: *-rik* kenduta ondo badago, seguruenik ondo egongo da (gainera, beti hurbi-lagokoa izango dugu gure artean *-ela* erabiltzea eta ez *-elarik*. Gurea hori da, eta gurea erabiltzen badugu, okerrak egiteko arriskua txikiagoa izango da).

### 6.4.2 alferreko egiturak

Askotan alferreko egiturak erabiltzen ditugu, eta esaldiak luzeegiak gertazen dira. Hona hemen alferriko erlatiboaren adibide batzuk:

⇒ Elgoibarren 26 baserri dira dedikazio osoa dutenak

⇒ Elgoibarren 26 baserrik dute dedikazio osoa

[hobeto]

⇒ Gutxi ziren ikasketak atzerrian egiten zituzten elgoibartarrak

⇒ Elgoibartar gutxi egiten zituzten ikasketak atzerrian

[hobeto]

7

Internet



## 7.1. sarrera

Berehalakotasuna da Interneten ezaugarri-etako bat. Gertaera izan eta berehala kontatzeko aukera ematen du. Gainera, loturak egin daitezke informazio gehigarriaren bila, testuinguruaren bila.

Medio beroa da, azkarra. Horretaz jabetu behar du kazetariak.

Internet da hedabideen hedabidea, bere edukiera ez delako beste hedabide bat, hedabide guztiak batera baizik.

Internetek bere hizkuntza eta bere idazteko modua dauzka; gauzak kontatzeko modu berezkoa. Horretaz jabetu behar du kazetariak, eta mediora egokitu behar du.

Zerbait komunikatu behar duenean, interaktibitatea nola sustatu behar den sustatu behar du: nola uztartu eta nola elkarreragin edukiak eta erabiltzaileen nahiak edo interesak.

Ez da nahikoa albistea ematea. Komunitatea sortu behar da. Albiste batek eztabaida sortu behar du. Iritziak eskatu behar dira; irakurleei aukera eman behar zaie albistea osatzeko edota iritzietan parte hartzeko.

Kazetaria da edukien sortzaile eta email; horrek egiten du ezberdin, ez ditu eta albistek

bakarrrik eskaintzen, baizik eta zerbitzuak ere eskaintzen ditu eta. Kazetariak, irizpide informatiboa eskaintzeaz gain, edukiak antolatu behar ditu. Hori ondoen egiten duenak eta erabiltzaileen interesak hobeen asetzen dituenak lortuko du erabiltzaileen arreta.

Interneten, hortaz, beste komunikazio hizkuntza bat sortu behar da.

Ez du balio papererako idatzi duguna besterik gabe sarera jaulkitzea. Kazetariak hizkuntza propio bat, ezberdina, erabili behar du sarerako, eta, horretarako, burua sarean izan behar du.

Ezberdinak dira Internetetik mezuak jasotzen dituzten hartzaileen interesak eta ezaugarriak, eta ohiko hedabideetatik mezuak jasotzen dituzten hartzaileenak.

Hortaz, hartzailea ezberdina bada, mezuak ezberdina izan behar du; zehatzago esanda: kontatzeko moduak ezberdina izan behar du.

## 7.2. sarean lan egitea ezberdina da

Hedabide elektroniko batean, ikusteko markoa monitorearen denez, bereizmena txikia da.

Irakurketa sekuentziala da.

Unibertetala da: Internet konexioa dagoen toki guztietara heltzen da.

Bat-batekoa da: informazioa ia-ia denbora errealean kontsultatzen da.

Erraz eguneratzen da: informazioa berritu egiten da, gertatzen ari den heinean. BARRENen albiste bat berritu behar bada (istripua, hondamendia, eguraldiaren partea...), kazetariak sortuko du albiste berria, azken ordua dela adieraziko du tituluari (*Azken ordua: 14:40*), eta albistearen bertsio zaharraren lotura jarriko du testuaren amaieran.

Elkarreragilea edo interaktiboa da. Erabiltzaileak zuzenean parte hartzen du edukietan: informazioa ematen, beste ikuspuntu bat erakusten, osatzen...

Pertsonalizatua da. Erabiltzaileak nahi duena aukeratzen du.

Kolorea, irudiak eta soinua bikainak dira. Hedabide mota honetan dabilen kazetaria, beraz, polibalentea eta dinamikoa da.

### 7.3. Interneteko hizkuntza

#### 7.3.1. sarrera

Internetek eta ordenagailuak beste hizkuntza bat sortu dute, funtzionatzeko beste modu

bat, arau propio eta guzti. Ordenagailuak beste modu batean pentsatzea eragiten du.

Hizkuntza berezitu bat sortu du, hortaz, sareak: laburragoa, zuzenagoa, informala, zehatzagoa, interaktiboa eta multimedia.

Testua, irudia eta soinua dituen kanal baten aurrean gaude. Hortaz, hizkuntzak nahasketara hori izan behar du kontuan.

#### 7.3.2. Interneteko hizkuntzaren ezaugarriak

√ **Berezitua:** Papererako, irratirako eta telebistarako erabiltzen ditugun kanonak ezin ditugu erabili kazetaritza digitalean. Medioa ezberdina da. Horregatik, hizkuntzak ere ezberdina izan behar du Interneten, besteetatik berezitua.

√ **Informala:** Kazetariak baztertu egin behar du hizkuntza hotz, huts eta batere gizatiarra ez dena, hartzailearekin zerikusirik ez duena. Beste hizkuntza formal bat sortzen duten hizkuntzalariengandik ihes egin behar du. Edonola ere, informaltasunaren izenean, ezin da erori sinpletasunean; ez da erabiliko hizkuntza baldar eta kaskarra. Gauzak ondo eta zuzen kontatu behar dira. Ezinbestekoa da zuzentasun gramatikala zaintzea. Kazetariak *Hiztegi Batua*-n erabili behar du.

√ **Motza:** Gehiago sintetizatu behar da, sekuentzia sistema motzagoa erabili behar da Interneten. Esaldi motzak erabili behar dira. Lastorik ez. Paperean ez bezala, ez dago espazio bat zertan bete.

√ **Zuzenekoa:** Hizkuntza zuzena da, gertaerak itzulingeru ibili gabe kontatzen dituen. Ez erabili berba konplikaturik edo ulergaitzik. Kazetariari burura datorkion lehen berba erabiltzea komeni da; betiere egokia bada, jakina.

√ **Xumea:** Idazle handi askok ez dute malabarismorik egiten hizkuntzarekin. Edertasuna xumetasunaren bidez lortzen dute. Haien helburua ulermena da. Horregatik ona da aditzak erabiltzea, adjektiboen orde.

√ **Zehatza:** Idatzi: Batzarra zazpitan izango da **eta ez** Batzarra zazpitan hasiko dutela iragarri dute. Paperean ez bezala, ez errepikatu sarrerarik, Interneten ez du zentzurik eta. Sarreran ia dena garrantzitsua denez, ez da zentzuzkoa berba berberak errepikatzea .

√ **Elkarreragilea edo interaktiboa:** Sarean dabiltzanak ez dira informazio hartzaile soilak; emailak ere badira, eta, ondorioz, eduki sortzaileak. Erabiltzailea ez da pasiboa. Izan ere, aktiboa izateko eta sormena lantzeko aukera ugari eskaintzen dizkio sareak. Interneten edozein izan liteke eduki sortzaile; ez bakarrik hedabideak.

√ **Pertsuasiboa:** Limurtzea arte bat da. Argi eta garbi egin behar da berba, baina seduzitzeko gaitasunarekin. Idazten duenak bezala pentsatzera bultzatu behar da hartzailea. Kontua ez da inor engainatzea, ez eta errealitatea bortxatzea ere, baizik eta idazten duenak bezala pentsatzera mugiaraztea, indusitzea, inspiratzea... Limurtzeko armarik esanguratsuen titularra da, eta, ondoren, argazkia. Kontuan izan titularra eta sarrera e-postaz heltzen direla harpidedunengana. Bereziki zaindu beharreko elementuak dira. Beraz, harira jo, irakurle asko erakartzeko.

√ **Eduki sortzailea:** Interneten edukiak sortuko dituen kazetariak hauxe jakin behar du: hartzaileak ikusi, entzun eta irakur dezakeela eta, horrez gain, sortu ere egin dezakeela. Horrek egiten du ezberdin Internet, eta horretan datza elkarreragina.

√ **Argia:** Idazteko estiloa ona izango da, irakurlea berehala harrapatzen badu. Sentitzen dena argi eta behar den moduan azaltzen bada, estiloa ona da.

√ **Doia:** Berba bakoitzak zentzua izan behar du. Ez dadila ezer falta, baina soberan ere ez dadila ezer egon. Ez loratu alferrik esaldiak, eta ez erabili zentzurik gabeko berba politik.

√ **Originala:** Kazetaritzako hizkuntzan garrantzi handia dauka originaltasunak.

Askotan, gertaeraren berritasunak berak baino garrantzi handiagoa dauka zelan kontatzen den, gaia zelan landu eta enfokatzen den: berria izatea, pertsonala, egiazkoa eta zintzoa...

√ **Askotarikoa:** Gaiari egokitu idazkera estiloa. Hizkuntzaren urritasuna baztertu, ez izan monotonoa. Kazetari ona da gaiari ondoen egokitzen zaiona eta gai bakoitza modu ezberdinean enfokatu eta kontatzen dakiena. Ez da gauza bera Korrikaren gaineko kronika egitea edo hileta elizkizun bat kontatzea.

√ **Erakargarria:** Askotan, mamia bezain garrantzitsua da azala: kontatu nahi dena zelan kontatu. Kazetaritzan erabakigarria da hori. Kazetaria ezin da izan traketsa, gatz gabekoa. Kazetariak besteentzako idazten du, jarrai diezaioten. Horretarako, baina, hartzailea erakartzen jakin behar du, hizkuntzaren bitartez.

√ **Erritmikoa:** Kontakizun bakoitzari dagokion erritmoa zaindu behar du kazetariak.

√ **Koloretsua:** Irakurleak maite ditu dir-dir egiten duten berbak, esaldi beroak, orrialde argitsuak...

### 7.3.3. Interneten nola idatzi

#### 7.3.3.1. izenburua

Irakurlea limurtu egin behar du, erakarri.

Artikuluak deskribatu egin behar du.

Laburra izan behar du (bilatzaileetan agertuko da...).

Lerro bat hobeto, bi baino. Gehiago ez.

Berba gakoak erabili tituluan. Bilatzaileentzat beti da egokiagoa.

Ez idatzi inoiz letra larriz.

#### 7.3.3.2. sarrera

Motz, eta harira doan.

Hiru edo lau lerrokoa.

Aipatu artikuluaaren elementu garrantzitsuenak.

Inoiz ez letra larriz.

Autoerreferentziak izango dira sarrerako lotura bakarrak.

Aurreratu labur albistean datorrena.

### 7.3.3.3 ondorioak sarreran idatzi

Irakurleak presa dauka.

Artikuluak eskaneatu egiten dira.

Idatzi estilo aktiboa erabiliz.

### 7.3.3.4. zehatz idatzi

Bereizmen txikikoa da pantaila.

Kendu lastoa.

Ez errepikatu sarrera testu gorputzean.

Ez errepikatu titulua sarreran.

Idatzi beti paperean baino motzago, irakurleak pantailako hizkietan arreta txiki-agoa jartzen du-eta.

### 7.3.3.5. testua antolatu

Lehen begirada titular eta loturetara joaten da.

Modu hierarkikoan eratu informazioa.

Zenbat eta eskematikoago, hobeto: erabili gidoiak, puntuak, zenbakiak....

Banatu paragrafo txikitik testua.

Sortu izenburutxoak: letra lodiz idatzi.

### 7.3.3.6. hizkuntza objektiboa

Kazetaria ezin da saltzaile bihurtu.

Ez imitatu publizitatea: sinesgarritasuna galtzen du, eta irakurlea uxatzen.

### 7.3.3.7. loturak

Egin loturak, beti.

Internet = hipertestua.

Loturak balio erantsia ematen dio albisteari.

Erabili loturak: *Google*-n gustukoagoa izango zara.

Loturak sinesgarritasuna ematen du, eta informazioa kontrastatzea ahalbidetzen .

Autoerreferentziak ere onak dira.

#### 7.3.3.8. erlazionatutako loturak

Loturok ez doaz testu barruan, baina gaiarekin lotuta daude.

Aparteko loturak erabiltzeak jantzi egiten du albiste.

Asko laguntzen eta janzten dute artikulua.

Egjaztatu beti ba dabiltzan ala ez.

#### 7.3.3.9. bertakotu albiste guztiak

Globalean pentsatu eta lokalean jardun.

Beti ezin da, baina, ahal dela, egin.

Eman sareko ukitua albistei.

#### 7.3.3.10. argazkiak

Beti laguntzen dute. Edertu eta jantzi egiten dute informazioa.

Argazkiaren enkoadraketa aukeratu beti.

Aukeratu argazki bakarra, esanguratsuen. Argazkia egoki enkoadratu. Kendu haizea. Protagonistak dira garrantzitsuena.

Kontuz argazkiaren pisuarekin. Photo-

shopen enfokatu, enkoadratu, kontraste egokiak lortu eta pisua weberako egokitu.

Argazki oina ez da nahitaezkoa, baina jartzea komeni da.

Argazki oina egoki jarri: ahal dela, argazkia deskribatu behar da Interneten. Imajinatu itsu batek deskripzio horrekin ikusi behar duela argazkia.

#### 7.3.3.11. aprobetxatu berehalakotasuna

Jakin bezain laster, jarri sarean.

Ez da beharrezkoa dena jakitea.

Beti dago albistearen osatzeko aukera.

#### 7.3.3.12. gonbidatu irakurlea

Berri askok balio erantsia dute erantzuten bada.

Beti garatzen da albiste horrela.

*Feedback*-a, garrantzitsua ez ezik, beharrezkoa da Interneten.

Irakurleak ez du beti erantzuten, baina merezi du ahalegintzea.

Batzuetan zeharka jaso ditzakegu erantzunak, baina beste batzuetan zuzenean galderak egin beharko dizkiegu.

#### 7.3.3.13. idatzi errespetuz

Ez gutxietsi inor.

Eman ahotsa parte guztiei.

Errespetuz beti eta alde guztiekin.

#### 7.3.3.14. irakurleen iritzi eta irizpideen inguruko arauak

Ez da onartuko irainik. Irakurleek errespetuz idatzi beharko dute.

Gaiarekin bat ez datozen parte hartzeak ezabatu egingo dira.

ELGOIBARREN.NETek ez du onartuko, anonimotasunean mozorroturik, edozer esatea edozein pertsonaren, elkarteren, talderen, enpresaren edota instituzioren inguruan.

Ez dira onartuko intimitate eskubidea urratzen duten mezuak.

Ez dira onartuko publizitate mezuak.

Irakurleei izen-abizenekin idazteko gonbitea egingo die atariak.

ELGOIBARREN.NETek eskubidea du edozein erantzun ezabatzeko, horrela erabakiz gero. Aldi berean, beharra ikusten denean, atariak eztabaidako mezuak editatu ahal izango ditu.

ELGOIBARREN.NETek eta Elgoibarko Izarra kultur elkarteak ez dute bere gain hartzen webgunean adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Etorkizunean, ELGOIBARREN.NETek arau hauek aldatu edota zabaltzeko eskubidea dauka, eztabaidak zuzen erabiltzen direla bermatzeko.

Komentarioak eta bestelako parte hartzeak euskaraz egin behar dira.

#### 7.3.3.15. zertaz idatzi

Bat-bateko albisteak, gertatu berriak direnak.

Erredakziora datozenak eta agendarako baino gehiago direnak.

Elkarrizketa motzak.

Adierazpen batzuen laburpena.

Besteen blogetatik ateratako iritziak.

Iruzkinak.

Ikuskizunen kronikak.

Kirol albisteak.

Kultur albisteak.

### 7.3.3.16. euskaraz idatzi

Oro har, euskara batuan idatzi beharko dira albisteak. Hala ere, Elgoibarko euskararen idazteko aukera ere izango da.

Elkarrizketetan Elgoibarko hizkera erabili ahal izango da, elkarrizketatuak hala egin badu.

Euskara zehatza eta esaldi motzak erabili beharko dira.

Puntuazio markak erabili. Bi puntuak askotan.

Erabili lotura-berba iragarleak: nahiz eta, izan ere, ez bada...

### 7.3.3.17. Stephen Kingen urrezko arauak

Beharrezkoak ez diren berbak ezabatu.

Berridazten denean, garrantzitsuena da

kontatzea istorioa ez den beste guztia.

Hizkuntza zuzen eta egunerokoa sustatu.

Edozein izen eta edozein aditz elkartuz gero, esaldi bat osatzen da. Ez du hutsik egiten.

Izen-aditz idazkera sinplea oso erabilgarria da, gutxienez segurtasuna ematen duelako idazterakoan.

Gramatika makulu bat da, ideiak zutik jartzen eta ibilarazten dituena.

Aditz aktiboa daukan esaldi bateko subjektuak zerbait egiten du: aditz pasiboa daukan esaldi bateko subjektuari, berriz, zerbait egiten diote.

Lotsatiak honela idazten du: Batzarra zazpi-etarako iragarri dute. Eutsi gaiari eta idatzi: Batzarra zazpitan izango da. Hobeto, ezta?

Bi ideiatan zatituta, ideia nagusia ulergarriagoa da. Irakurleari gauzak errazteko modua da, eta kazetariak beti pentsatu behar du hartzailearengan.


Ondo idazteak esan nahi du beldurrik gabe idaztea.

Pentsamendu depuratua da idazkuntza.

Idaztea seduzitzea da.



Erritmoa entzuten ikasi behar du kazetariak.  
Kazetariak irakurtzeko astirik ez badu,  
idazteko ere ez du astirik izango, eta  
beharrezko tresnarik gabe egongo da.



Elgoibarko hizkeran idazteko arauak

## 8.1. noiz idatzi Elgoibarko hizkeran

Elgoibarko hizkerak lekua izango du BARRENen. Hala idatzi nahi duten kolaboratzaileek zein irakurleek (gutunen atalean) aukera izango dute. Horrez gain, elkarrizketak Elgoibarko euskararen emango dira, pertsonaiak bertako hizkeran jarduten badu. Kasu horretan, elkarrizketatuak euskara batua edota beste euskalki batzuk nahasi baditu forma batzuetan, kazetariaren lana izango da dena Elgoibarko hizkeran jartzea, modu koherentean.

Ale guztietan joan beharko du atal batek Elgoibarko hizkeran. Diseinu bakoitzarekin definituko da denboraldi horretan zein izango den. Euskara batuak beti izango du lehentasuna eta nagusitasuna astekarian.

Hiztegi eta sintaxi kontuetan ere Elgoibarko hiztegia eta sintaxi-egiturak hobestea da jarraibide nagusia. Esaterako: *bait-* eta *-larik* beharrean, *-eta* eta *-la*. Bigarrenak hobetsiko ditugu.

Elgoibarko hizkeran idazteko oinarrizko irizpideak...

## 8.2. irizpideak BARRENerako

BARRENen Elgoibarko hizkeran argitara emango diren testuek irizpide hauek jarraitu

beharko dituzte. Oro har, Badihardugu elkartearen jarraibideak hartu dira kontuan. Elgoibarko euskararen inguruko zalantzak argitzeko, Jesus Mari Makazagaren *Elgoibarko Euskara. Berbak egiturak eta irakurgaiak* liburua kontsulta daiteke (Elgoibarko Udala, 2007).

## 8.3. h

Batuan moduan: haundixa, mahaixa, hi, harrua...  
Baita *h* horrek diptongoa hausten badu ere: behixa, mehia, bihorra...

## 8.4. z / s

Batuan moduan: Ezin dogu ezetz esan.

## 8.5. tz / ts

Batuan moduan: mahatsa, hautsa, pentsau...

## 8.6. bustidurak: *iñ*, *ill*, *itt*, *indd*, *illdd*

√ *i* + **l** gertatzen denean, *ill* idatziko dugu:  
milla, hilla, sailla, hilletia, oillo...

√ *i* + **n** gertatzen denean *iñ* idatziko dugu:  
oiña, baiña, biña, gaiñian, makiñia...

√ **i + t** gertatzen denean, beti idatziko dugu jatorrizko forman (*itt*), gaur egungo kaleko ahozko hizkeran *itx* nagusitu arren: dittugu, gaittune, aitta, iturrixa, aittitta, maitte...).

√ **indd eta ildd** bustidura gertatzen denean hala idatziko dugu: ikusi *ninddun*, *zindduezen*, *inddarra*, *hinddudan*, *bilddurra*, *bilddotsa*...

√ **Berba bukaeran ez dugu bustidurarik idatziko:** *hil*, *sail*, *badakit*, *zenbait*, *zein*, *hain*, *oin*...

### 8.7. bokal arteko g

Berba osorik idaztea komeni dela esan dugunez, idatzi egingo dugu: Ezagun, egon, nagusi, eguen...

Ahoskatzen ez ditugun beste hizki batzuekin ere hala jokatuko dugu. Adizkietan arazoa konplexuagoa denez, Elgoibarko hizkerako adizkien tauletan erabakita dago forma bakoitza nola idatzi.

### 8.8. bokal arteko d eta r

Nahiz eta sarritan d-ren lekuan r esan, euskara batuan moduan d idaztea komeni da. Esaterako: abadia, partidua, edozer, bidia, entsegida... (eta ez abaria, partirua, erozer, biria, entsegira...).

### 8.9. hitz elkarketak

Bestela ahoskatu arren, berbak osorik idatzi behar ditugu, elkarrengandik banatuta. Esaterako: Egin bihar dogu (einbiou\*), ez jakiñat (etx-akiñat\*), ikusi dittut (ikusittut\*), esaten jako (esateako\*)...

### 8.10. berba amaierak

Berba amaierako hiatoak esaten ditugun moduan idatziko ditugu. Beraz:

**-a + a = -ia.** Esaterako: alabia, gauzia, andria...

**-e + a = -ia.** Esaterako: etxia, semia, urria...

**-i + a = -ixa.** Esaterako: txikixa, haundixa, ardixa...

**-o + a = -ua.** Esaterako: *astua*, *sendua*, *otsua*...

**-u + a = -ua.** Esaterako: *burua*, *eskua*, *dirua*...

Eta berdin berba barruko beste hiatoekin ere: gehixen, bixar, ziharretara...

### 8.11. erdaratik hartutako berbak

**-eo + a = -eua.** Esaterako: fideua, bideua, mau-soleua...

**-ia (diptongoa) + a = -ia.** Esaterako: farmazia, industria...

**-ia (hiatua) + a = -ixia.** Esaterako: ortografixia, armerixia, inbidixia...

**-ión = -io.** Esaterako: estazio, razio, direkzio...

**-ón = oi.** Esaterako: meloia, kamioia...

## 8.12. erdaratik hartutako aditzak

**-ar = -au.** Esaterako: kantau, eskalau, endredau...

**-er = -i(d)u.** Esaterako: entendidu, defendidu, kubriu...

**-ir = -i(d)u.** Esaterako: aburridu, esistidu, okurridu...

## 8.13. deklinabidearen inguruan

*Noren* kasua berba egiterakoan *-re-* gabe erabiltzen dugu (aittan autua, ikasian liburua).

*Nun* kasuarekin nahasteak saihestearren (etxian nago / etxian izena) *-re-* hori idatziko dugu (etxian nago / etxiaren izena)

.

*-re-* hori agertzen den gainerako kasuetan ere (*-ren*, *-rekin...*) idatziko dugu. Salbuespena, batuan ere libre laga diren kasuak: *-gandik*, *gana...* (amagandik, aittagana...).

Partitiboa osorik idatziko dugu: *-rik*.

Deklinabidean ere *-g-* hotsa sarritan ahoskatzen ez badugu ere, idatzi egingo dugu: *-gana*, *-gandik* (amagana...).

## 8.14. -dade

*-dade* atzizkia erabiliko dugu: bakardade, soziedade, amistade, Trinidad...)

## 8.15. eta

Beti osorik idatziko da (ta, da, txa baztertu).

## 8.16. ezker

Batuan *ekarri<sup>z</sup> gero*, *hartuz gero...* idatzi arren, elgoibarreraz *etorri ezker*, *hartu ezker* idatziko dugu.

## 8.17. erdaraz *r-* batekin hasi eta geureganatu ditugun berbak

Zaila da kasu honetan araurik ematea, modu ezberdinean idazten direlako: raziua, reuniua, arratoia...

Hala ere, esan daiteke ugariagoak direla erdarazko *erre-*, *arra* bihurtzen diren kasuak.

## 8.18. erakusleak eta azentua

Araua: singularra eta plurala desberdindu ahal izateko, erakusleetan, pluralean, azentua idatziko da "haren (pertsona bat) laguna" eta "hären (pertsona batzuk) laguna". "Ume horrek ekarri dau gaztaia" (batek), "Ume hórrek ekarri debe gaztaia".

Elgoibarren, nagusien artean batez ere, normala da erakuslea birritan esatea (hau

txakurrau). Idazterakoan erakuslea berbari lotuta eta h gabe idatziko dugu. Era honetan: hau txakurrau, hori etxiori, hárek mutillak, hórrek mutilok...

### **8.19. aditza**

Elgoibarko formak jaso beharko dira, *Elgoibarko aditz taulak* (Jesus Mari Makazaga, Badihardugu elkarte, 2006) liburukian jasota dauden bezalaxe. Egile berberaren *Elgoibarko euskara* liburua (2007) eta tesia (2009) kontsulta daitezke.





# eranskina: Elgoibarko aditza

(Jesus Mari Makazagaren tesitik hartua)













































10

eranskina: Elgoibarko hiztegia

(Jesus Mari Makazagaren tesitik hartua)

11

bibliografia

- BADIHARDUGU elkarteak: *Euskalkian idazteko irizpideak*, 2006
- BERRIA: Estilo liburua, *Donostia*, 2006.
- EIBARKO UDALA, Euskara Batzordea: *Eibarreraz idazteko oinarrizko erizpideak*, Eibar, 1998.
- EUSKALDUNON EGUNKARIA: *Estilo liburua*, Donostia, 1992.
- EUSKALDUNON EGUNKARIA: *Estilo liburua*, Donostia, 2002.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal gramatika: lehen urratsak-III (lokaluak)*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal gramatika: lehen urratsak-V (mendeko perpausak-1)*. Euskaltzaindia-EHU, Bilbo, 1999.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskaltzaindiaren arauak*. <http://www.euskaltzaindia.net/arauak/>
- EUSKALTZAINDIA: *Hiztegi batua*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2000.
- EL PAIS: *Libro de estilo*, Santillana, Madril, 2002.
- GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK: *Estilo liburua*, Arratsate, 2007.
- GOSTIN, Andres: *BARRENen idazteko aholkuak*, Elgoibar, 2006.
- MAKAZAGA, Jesus Mari: *Elgoibarko Aditz taulak*, Badihardugu elkarteak, 2006.
- MAKAZAGA, Jesus Mari: *Elgoibarko euskara*, Elgoibar, 2007.
- MAKAZAGA, Jesus Mari: *Elgoibarko hizkera*. Doktoretza tesia, EHU, Leioa, 2009.
- MUJIKA, Alfontso: *Letra larriak erabiltzeko irizpideak*, Ikasmaterialetako hizkuntzaren egokitasun-irizpideak finkatzeko Aholku Batzordea, Gasteiz 2008.
- LYNCH, Patrick; HORTON, Sara: *Web Style Guide third edition*. <http://www.webstyleguide.com>
- RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema: *Kazetari-l@na Euskal Herrian*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1998.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Euskara bedabideetan*, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Zarautz, 2008
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL Pello: *Idazkera-liburua*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu nagusia, Gasteiz, 1993.

